



Iñaki Dorronsoro, Eusko Ikaskuntzaren mendeurren

Atzerriko hainbat umek igaroko dute uda Debagoiengan



MARTA MACHO ETA MANOEL MARTINEZ
 ANESTESISTAK DEBAGOIENENKO OSPITALEAN

"BAGENEKIEN EZ ZELA DOAN IZANGO ETA ONDORIOAK EGONGO ZIRELA"

Osakidetzako azterketen ustezko irregulartasunen gainean dihardute bi medikuk / 3

Marta Macho eta Manoel Martinez, Debagoieneko ospitalean, martitzean.

XABIER URZELAI

Ospitale ondoko Arrasateko Zalduspe industrialdea 2024rako urbanizatu gura dute / 8

Berlingo Europako Txapelketan izango da Maialen Axpe pertika-jauzilari arrasatearra / 30

Agorrosin berria egiteko "sintonia berean" daude Bergara Kirol Elkarte eta Udala / 20

Kepa Errastik idatzi eta Mireia Gabilondok zuzendu duten 'Erlauntza' txalo artean jaso dute / 32

SINADURAK

	ANAJE NARBAIZA / 6		JOKIN LARRANAGA / 13
	ITSASO ERRETOLATZA / 12		MAIALEN SANTOS / 27
	ANDER ETXEBERRÍA / 40		

UDALDIA
 Egun hauetan argitaratuko dira hurrengo aldizkariak:
GOIENA: irailaren 7an.
'Puntua': irailaren 7an.

Ondo ibili!


ABUZTUAN ZABALIK

Astelehenetik ostiralera
 09:30etik 17:30era
 (Eguerdietan zabalik)

Larunbatetan itxita

LIRAIN
 ESTETIKA ZENTROA

943 79 52 17



Bergarako lotuneko beste sektore bat, esleituta

Esleitu berri dituzte AHTaren Bergarako lotuneko bigarren sektoreko lanak –hiru ditu, guztira–. Beraz, gaur-gaurkoz, hirugarrenaren esleipena besterik ez da geratzen. Hain justu, Adif-ek 89 milioi euroko aurrekontua du aurreikusita trenbide zati horretarako

Iker Oñate DEBAGOIENA

Urte batzuk gelditu izan ostean, berriz hasi dituzte Abiadura Handiko Trenaren Bergarako lotuneko lanak –lehen sektorean irekia dute obraldia–. Eta, gainerakoan, bukatzeaz dute esleipen prozesua: hirugarren sektoreko lanak esleitzea besterik ez da geratzen. Adifek irekia du horretarako lizitazio prozesua.

Bestetik, berriki esleitu dituzte bigarren sektoreko lanak, Arrasate, Elorrio eta Bergara artekoak –5,2 kilometroko luzera du trenbide zatiak–. Hain justu, Dragados, Tecs, Empresa Constructorak eta Cosntrucciones Amenabarrek aldi baterako sorturiko enpresak egin du bere kontratua, 182,75 euroko aurrekontuarekin.

Eta, trenbide zati horretan, lur azpiko lanak dira nagusi: %97,8 lur azpian egingo litzateke. Sakonago: Karraskain ekialdea –448 metro–, Karraskain mendebaldea –543 metro–, Udalatx ekialdea –4.620 metro– eta Udalatx mendebaldea –4.646 metro– tunelak eraiki behar dituzte bertan. Horrez aparte, gainera, Kobate ekialdea –83

metro– eta Kobate mendebaldea –28 metro– zubi bideak eraikiko dituzte. Behinik behin, 30 hilabeteko iraupena izango lukete lanok.

Lehen sektoreko lanak

Bestetik, administrazioko bidea bukatuta, hasia dute lehen sektoreko obra –hala baiezatu du Adifek–; Arrasate, Elorrio eta Bergara lotuko ditu horrek ere, 5,1 kilometro luzeko trenbide zatiarekin. Eta, hain zuzen, horrentzat litzateke aurrekontuaren zati handiena: 192,3 milioi euro. OHLk, Geotunelek, Cosntrucciones Adolfo Sobrinok eta G&Ok sorturiko aldi baterako enpresak egingo ditu lanok.

Kasu horretan, hiru tunel eraiki beharko lirateke: Udalatx ekialdea –2,3 kilometro–, Udalatx mendebaldea –2,3 kilometro– eta Kortazar –1,6 kilometro–. Eta, bestetik, bi zubi-bide ere izango litzateke: Arantostei –20 metro– eta Angiozarko galeria artifiziala –200 metro–. Kasu horretan, 38 hilabeteren buruan bukatu gura dituzte azpiegiturok.

Eta, gainerakoan, esleitu beharrean dituzte hirugarren sektoreko obrak, 89 milioi euroko aurrekontuarekin –irekita dute esleipen prozesua–. Hain zuzen, 2,8 kilometroko luzera du trenbide zati horrek –plangintzako laburrena da–, Elorrio eta Bergara lotzeko helburuarekin. Zehatz esanda, 37 hilabeteko lana aurreikusi dute zati horrentzat.

AHTaren tirabirak

Obrak hasi zituztenetik, gora-behera asko izan ditu AHTak; eta eztabaida iturri izan da hasiera-hasieratik. Tartean, Eusko Legebiltzarreko alderdien artean sokatira eragin zuen Europako Kontu Auzitegiak azpiegituraren

inguruan esanikoak: hark argitaraturiko txosten baten arabera, AHT lineak Europan ez dira "eraginkorrak". Are gehiago, Oskar Herics Kontu Auzitegiko kide eta txostenaren arduradunak azaldu zuen "mantsoak, garestiak eta ez-eraginkorrak" direla. "Herrialdeen artean gaizki lotutako mosaiko ez-eraginkorra da sarea, eta ez dauka plan errealistarik epe luzera", gaineratu zuen.

Hori horrela, txostenaren inguruan hitz egiteko, agerraldia egin zuen Arantza Tapiak, Eusko Legebiltzarreko Garapen Ekonomikorako eta Azpiegiturako sailburuak. AHTaren "errentagarritasun soziala" defendatu zuen hark. Bide berean, azaldu zuen urtean 8 milioi bidaiari "potentzial" izango dituela, eta, horrez gain, merkantziak ere eroango dituela, "errepideetako zirkulazioari mesede eginez". Hori bai, onartu zuen azpiegitura eraikitzeke lanek, gaur-gaurkoz, %8,5eko gainkostua pilotzen dutela. Gainera, Espainiako Sustapen Ministro Jose Luis Abalosekin batzartu zen Tapiak aurreko egunean, AHTa 2023an martxan jar dadin erakundeen arteko elkarlana berresteko.

Bestetik, EH Bilduk agerraldia egin zuen astelehenean Legebiltzarrean –Antzuolako alkate Beñardo Kortabarria izan zen tartean–. Besteak beste, AHTko lanak gelditzeko eta egungo trenbide sarea "modernizatzeko" eskatu zuen koalizioak. Eta, ohartarazi zuen, "zentsurik gabeko diru xahuketa erraldoia" dela azpiegitura. Era berean, salatu zuen datuak "manipulatu" dituela Jaurlaritzak, "proiektua errentagarria izango den itxura emateko".

Oñati eta Eskoriatzara zabalduko da 'Merkatari' irailetik aurrera

Aplikazio informatiko bitartez, dendarien eta herritarren arteko erlazioa indartu gura du proiektuak

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Irailetik aurrera Oñati eta Eskoriatzara martxan izango den *Merkatari* aplikazioak dendarien eta herritarren arteko harreman komertziala erraztea du helburu. Bertako merkataritza bul-

tatzeko asmotan, bailarako hainbat komertzioekin egin dute bat Goiena bultzatzaile duen proiektuarekin.

Merkatari-k aukera ematen du, esaterako, txat zerbitzu baten bitartez, herritarrek merka-

tariei mezu zuzenak bidaltzeko. Dendariak euren promozioen berri eman eta katalogoa erakusteko aukera ere izango dute, eta herritarrek produktuen inguruko balorazioak egin ahal izango dituzte.

Lehen fasean, merkatariekin ezarpen prozesua landu dute, komertzioetan aplikazioaren erabilera eta eskaintzen dituen aukera ugariak ezagut ditzaten. Irailetik aurrera, Eskoriatza eta Oñati osora zabalduko dute *Merkatari* aplikazioa.

Arrasaten lehen probak egin ostean, "asko" ikasi dutela adierazi du proiektuko kudeatzaile Asier Amutxastegik. Informazio guztia bereganatu eta hausnartu ostean, merkaturatu aplikazio asko zeudela eta bereizgarri bat behar zela konturatu ziren. Hala, fokua zerbitzuan jartzea erabaki zuten, komertzioekin harreman zuzen eta pertsonalizatua mantenduta.

Dendariak gogotsu agertu dira proiektuarekin eta jendea herriko komertzioetan erostera

animatzea espero dute, aplikazioaren erabilera "oso erraza" dela azpimarratuta. Eskoriatzako merkataria elkarteak Leire Errastiren esanetan, "oraindik ikusteko dago proiektuak zer onarpen duen herritarren artean, baina merkatarion artean, behintzat, harrera ona izan du". Oñatin ere baikor agertu dira. "Bertako merkataritzaren alde egiten duen edozein proiektu beti da ongietorria", adierazi du Maibi dekorazio dendako Argiloain Perosterenak.



Manoel Martinez eta Marta Macho, Arrasateko ospitalearen aurrean. XABIER URZELAI

"Denek dute barneratuta zein den postu bat lortzeko modua"

MARTA MACHO ETA MANOEL MARTINEZ ANESTESISTAK DEBAGOIENENKO OSPITALEAN Osakidetzako oposizioetan "iruzurra" izan dela eta "postuak nortzuk lortuko dituzten aurrez" erabakitzen direla salatu dute Arrasaten lan egiten duten hiru anestesistak

Josu Bilbao ARRASATE

Osakidetzako oposizioetan iruzurra gertatu zela salatu zuten Debagoieneko ospitaleko Manoel Martinez, Marta Macho eta Roberto Sanchez anestesistek –azken horrek elkarrizketan parte hartu nahi izan du, baina ezin izan du, Euskal Herritik kanpo oporretan dagoelako–.

Oposizioetan filtrazioak izan direla eta hori normalizatuta dagoela salatu duzue...

Macho: Robertok eta biok aspalditik ezagutzen genuen fun-

tzionamendua. Ospitaleetan guztiz barneratuta dago. Ospitalean denek dakiten zerbait da. Oposizioak deitu aurretik, gairen inguruan berba egin genuen, eta, ESK sindikatuaren laguntzarekin, konpromiso moralagatik, zerbait egin behar genuela erabaki genuen. Horregatik, Arartekora eta fiskaltzara joan ginen egoera salatzeke. Baina aurtengo azterketen gainean ez zuten datu zehatzik, artxibatuta utzi zuten. Hori dela eta, frogen bila hasi ginen. Hala ere, dena zantzuak dira, eta, oraingoz, ez dugu froga egiaztagarrik. Makillatu eta ezkutatu nahi bada ere, guk egunero ikusten dugun zerbait da.

"EMAITZAK IKUSITA, EDOZEINEK ONDORIOZTATU DEZAKE BANAKETA EZ DELA NORMALA IZAN"

Martinez: Ni duela urtebete etorri nintzen Euskadira, eta

astebetara jada banekien zer gertatzen ari zen. Lanean hasi aurretik, zurrumurruak entzun nituen, baina, ospitalean hasi bezain laster, gauzak horrela zirela egiaztatu zidaten. Osakidetzan plaza bat lortzeko modua zein den denek dute barneratuta, eta hau ezin daiteke gizarte demokratiko eta moderno batean onartu.

Zer dela eta erabaki duzue aurpegia ematea?

Macho: Gure bila ari ziren. Barne ikerketa gu seinalatzeko modu bat izan zen. Ez dugu arazorik hemen gaudela esateko, honek guztiak lehertzea denbora kontua zen, azkenean. Gainera, hasieratik, sindikatuaren, Elkarrekin Podemosen, prentsaren eta langileen babesak jaso dugu. Mezu anonimo ugari jaso ditugu, ez da-eta erraza, langileendako, aurpegia ematea. Hori ere ulertzen dugu. Batzuek beldurragatik eta beste batzuek, eroso daudelako edo sistemarekin ados daudelako. Medikuntzaren arlotik kanpo babes osoa dugula sentitu dugu. Honek ezin duela horrela jarraitu eskatzen du jendeak.

Martinez: Potea ireki da eta orain guztia irteten ari da. Normala da jendeak gurdira igo nahi izatea. Hala ere, ez dago gure moduan aurpegia eman nahi duenik. Zaila dela ulertzen dut. Guk, hasieratik, bagenekien ez zela doan izango eta ondorioak egongo zirela. Robertori eta Martari alde batera gelditzeke ere esan nien, ni ez naizelako bertakoa eta errazago alde egin dezakedalako. Eurak familia dute hemen, eta ausardia puntu handiagoa dakar horrek. Hasieratik argi geneukan ez genuela beldurrik, eta horregatik jo genuen aurrera. Osakidetzako mediku gehienek aurpegia emateko beldurra dute.

Espezialitate gehiagotan ustezko iruzurra gertatu delako zalantzan jarri dituzte oposizioetako azterketak. Ez zaituzte ezustekoan harrrapatu, beraz...

Martinez: Azterketa guztien emaitzak ikusita, banaketa ez dela normala ondorioztatu leza-

"HASIERATIK BAGENEKIEN ONDORIOAK IZANGO ZIRELA, BAINA EZ DUGU BELDURRIK"

ke matematiketan ezagutza urria duen edozeinek. HAEEK (IVAP) kontrolaturiko azterketa zatian ere filtrazioak egon diren zantzuak daude. Makillaje kaskarra egin dute, gainera. Test moduko galderetan filtrazioak egon diren zantzuak daude. Eta azterketaren bigarren zatiak ez du kontrolik, epaimahaiak erabakitzen delako osotasunean, eta haiek nahi dutenek bakarrik gaintitzen dute.

Macho: Zein plaza emango diren erabakitze horrek ez dakigun oinarri bat izan beharko luke. Agian ez delako nahi kanpoko medikurik etortzea edo zerbitzu batzuetan antzinatea bakarrik lehenetsi nahi delako. Euskara ez jakitea ere aitzakia moduan erabiltzen dute sarritan. Euskara maila izatea ez da plaza lortzeko ezinbesteko ezaugarria, aitzakia moduan erabiltzen dute. Antzinatean gehien dutenak, normalean, euskara gutxiago dakitenak izaten direlako, eta oposizioetan merituen atalera iristea ia ezinezkoa delako, agintean daudenek nahi dutenek bakarrik gaintitzen dutelako lehen azterketa. Euren kontrolatzen dute zehatz ospitalean nor sartuko den eta nor ez. Azkenean, plaza ateratzen dutenak zuzendaritzen posizioen alde daude-nak dira.

"Iruzurra egitea" leporatzen dizuzte, eta Fiskaltzara joko du Osakidetzak...

Macho: Bagenekien horrelako zerbait gertatuko zela, eta ez dugu beldurrik. Arrazoia dugula uste dugu. Egia gure alde dagoela uste dugu, eta gertatzen ari dena kontatzen ari gara, beste barik. Kontratazio sistema da kontua, eta ez da justua. Hori salatu egin behar dugu. Ados ez dagoena sistematik kanpo utzi dezakete, gainera, eta hori ez da ez justua, ezta legala ere.

Martinez: Orain, eurak urduri daude. Beldurra sartu nahi digute, baina Fiskaltzara eramango gaituzten mehatxuak ez digu beldurrik ematen. Guk aspaldi egin genuen berba Fiskaltzarekin, eta testigu moduan gaude bertan, ez ikertu moduan. Gure akzioa ezin zela ondorio barik gelditu ere adierazi zuten, eta hedabide batzuetan ez ginela inor ere entzun izan dugu. Gutxietsi egin nahi gaituzte, eta pelikulako gaiztoak gu garela saldu nahi dute.



Turistak, Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatea ezagutzen, iaz. GOIENA

Eskaintza zabala ibarrean, udako oporrei begira

Hasia da udako oporraldia. Eta ibarreko txokoak ezagutarazteko lanean dihardute Debagoieneko turismo arduradunek. Askotarikoak dira horretarako aukeraturiko turismo eskaintzak: bisita gidatuak, mendi ibilaldiak, aldian aldiko hitzorduak...

Iker Oñate DEBAGOIENA

Udako oporrak gainean, turismo eskaintzen zurrunbilan murgildurik da Debagoiena; era guztietako hitzorduak daude jarriak gura duenaren eskura. "Gaur-gaurkoz, badabil jendea. Eta pentsa daiteke horrela jarraituko dugula", aitortu du Ana Erizek, Mankomunitateko Turismo arduradunak.

Museoak, kobak...

Tartean, ohikoak aurki daitezke Debagoieneko turismo eskaintzen artean. Besteak beste, Ibarraundi museoko erakusketa –etnografiaren, historiaren eta amoniteen ingurukoak biltzen ditu horrek– eta Zubiateko labea ezagutzeko aukera egongo da Eskoriatzan. Bisita gidaturako aukera ere badago horietan.

Bestetik, Bergaran ere egongo da zer eginik. Batetik, ohi bezala, irekita izango da Laboratorium museoa, Errege Mintegiak utzitako XVIII. eta XIX. mendeetako bilduma zientifikoa ezagutu gura duenarendako. Eta, horretan geratu barik, aldian aldiko bisita gidatuak antolatu ditu herriko Turismo Bulegoak, *Bergara monumentala* izenpean.

Hain zuzen, uztailearen 16tik abuztuaren 31ra bitartean egingo dute hori.

Ostera, era askotako txokoak bisita daitezke Oñatin. Horien artean dira Arrikruz kobak; lurpeko munduaren bidez, historiaurrera bidaia daiteke haren bidez. Eta, era berean, Arantzazu inguruak –santutegia, adibidez– eta Txokolateixia –txokolatearen interpretazio gunea– ezagutu ahal izango dira udaldian. Horretan geratu barik, gainera, zenbait bisita gidatu ere egingo dituzte, *Oñatiko altxorrek* izenpean, herriko txoko ezberdinak ezagutaraziz. –Sancti Spiritus Unibertsitatea, parrokia...–

Eta, nola ez, udaldian ere egongo da eskaintzarik Leintz Gatzagan, Gatz Museoa erdigunean. Bertan, gatzaren ingurukoak ezagutu ahal izango dituzte bisitariak. Asmo horrekin, museoa uztailetik abuztura, asteartetik igandera, egongo da irekita.

Aurrekoiez gain, bestetik, erroturik duten eskaintzarekin dihardute Elgetan: ibilbide tematikoan murgilaraziko dituzte bisitariak, memoria historikoa berreskuratze ahaleginean –1936-37ko gerran herriko magalean izandako erresistentziari buruzkoak ezagut daitezke bertan–. Horretarako, bisita bereziak eskainiko dituzte uztailean; ostiraletan –11:00etan eta 16:00etan– eta larunbatetan –11:00etan–, zehazki. Aurrez eman behar da izena.

Eta, zelan ez, ibarreko gainerako herrietan ere bada turismo eskaintzarik. Esaterako, Lezetxiki –uztailak 20, 21 eta 22– eta Udako kobak –abuztuak 3– ezagutzeko bisitak antolatu dituzte Arrasaten. Eta guri ibilaldirako aukera eskainiko dute Urkulun (Aretxabaleta). Horiez

gain, bestetik, hor daude Aramaioko Albina urtegioko egun-pasarako aukera eta Antzuolako mendi ibilaldiez gozatzeko –Uzarraga, Galartza, Lizarraga eta Irimoegi Goenan barrenako bidea dago, besteak beste–.

Jardunaldi gastronomikoak

Eta bada aldian aldirako antolaturiko hitzordurik ere. Tartean, Debagoieneko 29. Jardunaldi Gastronomikoekin dihardute zenbaitek; domekara arte dago menu bereziez, bisitez... gozatzeko aukera. "Halakoak baliagarri dira turismo eskaintza aberasteko. Eta Debagoienearen izena zabaltzen ere laguntzen dute, gainera", dio Erizek.

'Ezkutuko altxorrek'

Gainera, udaldian, ohiko turismo eskaintzan ez diren zenbait txoko ezagutarazi gura dituzte arduradunek, *Ezkutuko altxorrek* ekimenaren bidez. "Balioan jarri gura ditugu leku horiek", azaldu du Erizek. Hala, eskaintzen artean dira Arrasateko Lauaxeta, Naparrena, Gesalibar eta Gargartza arteko mendi ibilaldia –uztailak 7–, *Gipuzkoako urrezuria*, *Leintz Gatzagako gatza* izenekoa –uztailak 8–, *Arte erlijiosoa Bergaran* bisita –abuztuak 11–, Arrasateko Kurtzetxikira mendi-ibilia –abuztuak 12–, Elgetako *Erdi Aroko bizitza antzetzua* ekimena –irailak 8– eta *Antzuola*, izan zena eta oraina delakoa –irailak 9–.

JARDUNALDI GASTRONOMIKOEN GOZATZEKO AUKERA DAGO DOMEKARA BITARTEAN

Hiru sari jokoan Goienaren udako argazki lehiaketan

Irailaren 16ra bitartean dago lehiaketan parte hartzeko aukera. Urriaren 5ean jakingo dira irabazleen izenak

I.O. DEBAGOIENA

Zabalik dago Goienaren udako argazkien lehiaketan esku hartzeko epea. Gura duenak irailaren 16ra bitartean izango du bereak bidaltzeko aukera –baikoz bost argazki bidaltzea

ke, gehienez–. Eta hiru bide ditu horretarako: posta elektronikoa –argazkiak@goiena.eus–, WhatsApp eta Telegram –688 69 00 07 da telefono zenbakia–. Gainera, jasotako argazkiak ez dira ezezean geldituko, webguneko

14. Udako argazkien lehiaketa kanalean egongo baitira ikusgai. Bestalde, urriaren 5ean jakinaraziko dira irabazleen izenak, GOIENA aldizkarian.

Ostean, gainera, Goienak euskarri ezberdinetan argitaratuko ditu jasotako argazkiak; guztiak argitaratzerik ez balego, egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera aukeraketa egingo luke. Eta 16 urtetik gorako herritar orok har dezake parte lehiaketan. Horretarako, hainbat datu helarazi beharko ditu ar-

gazkiarekin batera: egilearen izen-abizenak, harremanetarako telefonoa eta argazkia egin den lekua izena.

Hiru sari

Zehatz esanda, hiru sari banatuko ditu Goiena Komunikazio Taldeak: Redmi 5 Plus smartphonea –Eroski Arrasateren laguntzari esker–, bi lagunendako afari edo bazkaria –Gure Ametsa jatetxean– eta Zumaiako Zelai Talasoterapiaz gozatzeko aukera –bi pertsonarendako

zirkuitu termala eta Zelai menua, Arrasate Bidaiei esker–.

Hain zuzen, komunikazio taldeko kideek osaturiko epaimahaiari dagokio lehen bi sariak banatzea –argazkiaren kalitatea eta originaltasuna baloratuko ditu hark–. Eta, ostera, herritarrek erabakiko dute nork eroango duen hirugarren saria, publikoarena. Bozka bidez aukeratu da azken hori, irailaren 24tik 30era. [Goiena.eus](http://goiena.eus) webgunean eman daiteke botoa, lehiaketaren kanal berezian.

HANDIK ETA MEHENDIK

Kirola soilik**JOKIN LABAIEN**

[HTTPS://LABUR.EUS/ECVCJ](https://labur.eus/ecvcj)
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Astearteko Frantziako Tourreko etapak irudi asko utzi zituen. Izan ziren protesta eta geldialdia, erorketa ikaratzeko eta erabakigarri bana, bigarren irabazi zuen txirrindulari abilaren jaitsiera beldurgarria eta enegarrenez bigarren egin zuen euskaldunarena, talde betikoaren nagusitasuna... Bazkalostean, jarraitu egin nuen etaparen telebistako emanaldia, kate batetik bestera, eta gaueko albistegietan ere saiatu nintzen han eta hemen gertatua nola kontatzen zuten jarraitzen. Izan ere, nekazari batzuen protestaldiak txirrindularien bidea eten zuela hainbestetan entzun ondoren, jakin-mina izan nuen horretan inork sakonduko

ote zuen jakiteko. Ez zuten egin, espero izatekoa zen bezala.

Atentzioa horrek ematen dit, ezerk ematekotan. Alegia, pertsona talde batek, gainontzekoekin egin bezala, zale izan eta gozatzeko aukerari muzin egin, protesta egiteko beharra plazeraren ginetik jarri, eta haien helburuaren muinari inork ez begiratzeak. Hainbestetan etena eta protesta aipatu, txirrindulariak geldirik ageri diren irudiak eman, negar gasak kirolariei eragindakoa aipatu, polizia manifestariak era oso makurrean tratatzen erakutsi eta ia inor ez ahalegintzea azaltzen haien protestaren arrazoiak eta helburuak. Zergatik egin zuten, zerk eraginda, nori ari zitzaizkion protestan, zeren kexu, zeren eske. Hori bailitzateke emanaldi oso eta erakargarria niretzat, aukera baliatu eta kirol emanaldiari

testuinguruaren balio gehigarria txertatzen diona. Munduaren eta testuinguruaren konplexutasuna egiteko zehatzaren barruan txertatzen duena. Nik ikusi nueneraino, ez zen halako ahaleginik izan. Irudiak bakarrik eman dituzte, azalpenik gabe, batzuk gehiago eta besteek gutxiago bada ere, protestaren benetako helburuaren kaltetan. Gauean, Gorka Izagirre txirrindulariaren hitzak iritsi zitzaizkidan. La1 telebista katean gertatuaz galdetuta, protestan ari zirenek egin zutena egiteko haien arrazoiak izango zituztela erantzun zuen. Ez da ohikoa kirolariak halako erantzuna ematea, umil, lasai eta argi; eskertzekoa da, oso. Esanguratsua da zuzenean kaltetua izan denak —bere neurrian— sentsibilitate handiagoa erakustea gaiaz, informazioa eskaintzeko

ardura dutenek baino. Nekagarri eta frustragarria da garaiotan, oraindik ere, kirola kirola soilik ez dela aldarrikatzen aritu beharra.

Kakotxa**ANDONI EGAÑA**

[HTTPS://LABUR.EUS/JKEHV](https://labur.eus/jkehv)
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Egin izan dut aproba eta beti funtzionatzen du mahai-jiran. Berriketaldia hil-antxa badago eta eztabaida pizte aldera, galdera bat botatzen dut eta erantzuna eskatu mahaikideei. "Txirritak bere bertso bat hala hasi zuen: (Kantuan) 'Bi makulu zahar esku banatan'... Zenbat makulu dira bi zahar esku banatako horiek?". Batzuek bi direla erantzuten dute eta beste batzuek lau. "Birekin ibiliko zen. Ez zen lau makulurekin ibiliko!", botatzen dute batzuek. "Birekin ibiliko zen, jakina, baina esan, laurekin dabilela esaten du!", erantzungo diote

besteek. Eta nekez etorriko dira bat.

EHUko ikastaroetan, Konstituzioan pentsioen kutzaren eskuduntza Madrili dagokiola frogatzeko, Anton Danborenea PPko legebiltzarkideak 1,17 puntua irakurri omen zuen: "Gizarte Segurantzaren oinarriko legegintza eta ekonomia erregimena". Jon Aiertza jeltzaleak erantzun omen zion: "Pena da Danborenea jauna koman geratu izana. Geldialdi txiki bat egiteko da koma, ez da puntu bat". Eta artikulua nola amaitzen den irakurri zuen: "...erkidego autonomoek alor honetan duten esku hartzea salbu". Azti ibili zen Jon Fernandez kazetaria gakoa harrapatzean. "Bi makulu zahar, esku banatan" horrela idatzita bi dira. Komarik gabe, lau. Kantuan, ordea, askoz ere zailagoa da bereizten...

Post gehiago 6. orrialdean.

Amodio-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



ZABALIK

ANAJE NARBAIZA

Kulturaren sorpresak

Futboleko azken mundialak utzi digun irudietariko bat, zalantza barik, japoniar taldeko zaleek nola garbitzen eta biltzen zituzten futbol zelaian geratu ziren hondakinak, oso kanporaketa mingarria jasan ondoren. Bestetik, jokalariek eurek aldageletan ohar bat utzi zuten eskerrak ematen antolakuntzari, eta, zaleek bezala, dena jasota utzi zuten. Jakin nahi nuke nola geratu ziren beste hainbat selekziok erabilitako aldagelak. Ez dago zalantzarik heziketari, adeitasunari eta urrats ekologikoaren kontzientziari dagokionez japoniarrak oso aurreratuta daudela inguru honetan ikusten ohituta gaudenekin. Izan ere, urrutira joan gabe, Euskal Herriko hainbat jaitan ikusiko ditugu kaleak alkohol lokatsetan blai, edo kale bazterrak pixa-errekadaz hornituta eta hainbat tona zabor bertan pilatuta.

Japoniara itzulita, 1923an Kantoko lurrikara jasan zuten, Richter eskalan 7.8koa. Tokio, Yokohama eta inguruak suntsitu zituen; 100.000 pertsona baino gehiago hil ziren. Japoniara joan ziren kazetariak gertatutakoaren berri emateko harrিতa geratu ziren bizirik geratu ziren bizilagunen jarrerarengatik, eta horrela islatzen da beraien kroniketan.

DENA GALDUTA ZUTEN, ONDAREA, SENITARTEKOAK... BAINA EZ ZEN KEXA BAKAR BAT ENTZUTEN

Dena galduta zuten, ondarea, etxea, eta senitartekoak, baina ez zen kexa bakar bat entzuten, eta estoikoki hondakinak jaso eta berreraikitzeari ekin zioten.

Baina mundua ez da perfektua, eta, galdutakoa berreraikitzeoko sortu zen mugimendu sozialarekin batera, bandalismoari lotutako mugimendua sortu zen. Iturriko ura nahastuta eta zikina zetorren, lurraren mugimenduak eraginda, eta horren harira honako zurrumurru hau zabaldu zen, atzeritarrek, txinatarrek eta korearrek, batez ere, ura pozoitu zutela eta lapurreten errudunak zirela. Zaintza patruilak antolatu ziren, eta prestatuak hitz-jokoa ondo ahoskatzen ez zuten pertsonak korear moduan sailkatzen zituzten eta ondoren hiltzeraino kolpatu. 6.000 hilketak inguru izan ziren, nahasmena baliatuz hainbat lider sozialista eta anarkista barne.

Ez da erraza lezioa, ez. Gizakia oso konplexua da, eta antzinako kultura fin eta dotorearen jabe izateak ez du saihesten, noizbehinka, gizakiak bere barnean gordeta daraman izate irrazional eta basatia kanpora ateratzea.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Nik ez dut bigarren talderik

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

[HTTPS://LABUR.EUS/RMTEA](https://labur.eus/rmtea)
'ARGIA'-N ARGITARATUA

Ez da nire asmoa 22 urteko gazte baten ametsa zapuztea, denok izan baitugu noizbait burua ilusioz, espektatibaz eta proiektuz beteta. Gero pasatzen dira urteak eta, Hertzainak taldeak kantatzen zuen bezala, behin dena nahi zenuen hori, zure buruarekin konformatzen hasten zara –auskalo Odriozolaren kasua hori izango ote den, agian hegala libre aurkituko du Florentinoren taldean-. Baina mesedez, ez esan Real Madrilen jokatzeko dela edozein futbolariaren

ametsa. Onenetako batzuk – Maradona, Cruyff, nik zer dakit, Lopez Ufarte– merengea dastatu gabekoak dira eta ez dute haren faltarik sumatu ostikolarien olinpoan sartzeko.

Oraindik orain, erretiroa hartzean esan du Odriozolaren aldean beste estilo bat erakutsi duen Xabi Prietok: "Nire ametsa ez zen futbolaria izatea, Realean jokatzeko zen". Beste garai bateko adierazpena dirudi, kluba sozietate anonimo bihurtu aurrekoa. [...]

Fitxaketak erakusten duen klima da larriena ordea: tratuan Madrili ateratako sosa azpimarratzen aritu da Gipuzkoako buletin ia-ofiziala –erabili den erretorika konpara daiteke parlamentari

baskongadoek gastatzen dutenarekin, tarteka Moncloari ateratzen omen dizkioten bentajak saltzen hasten direnean-. Chamartingoen gauzak egiteko modua txalotu du Aperribayk, norbait Zubietatik Lezamara aldatzen denean zorrozten duen miztoa gordeta.

Gipuzkoarren Barçazaletasuna apaldu nahian "nik ez dut bigarren talderik" kanpaina bultzatu zuen Realeko zuzendaritza honek. Real Madrilekin antzeko zerbaitegiten duenean sinetsiko diot Debako arma-saltzaileari.

Post gehiago 5. orrialdean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amalia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Atean dago konponbiderako giltza; hori irekitzea falta da"

NEKANE BASAURI JOSEBA ARREGI PRESOAREN SENIDEA

Iker Oñate DEBAGOIENA

Presoen gaian urratsak egiteko asmoa berretsi zuen Pedro Sanchez Espainiako presidentek joan den asteko agerraldian. Dena den, "hankak lurrean" dituzte senideek, "bizitakoagatik ikasita". Hain zuzen, horren inguruan jardun du Nekane Basaurik, Joseba Arregi preso oñatiarraren senidea. Arregik 26 urte daroatza espetxean.

Presoen gaian urratsak egiteko asmoa berretsi berri du Pedro Sanchezek.

Hori esan du, bai. Baina esperientziak irakatsi digu Espainiako Gobernuaren hitzetatik ekintzetara badagoela tarterik. Eta, oraingoz, berdinean dirau jarrerak. Alegia, Sanchezek kargua hartu zuenetik, asko dira Euskal Herrian izandako bidetarako: Altsasukoen kartzelan diraute, Jose Ramon Lopez de Abetxuko 30 urteko kondena osotasunean beteta irten da espetxetik [gaixo



Nekane Basauri, Zarugaldeko parkean. IKER OÑATE

dago 2000 ezker], Murtziara eta Almeriara eroan dituzte Frantziak berriki Espainiara eramandako bi preso, 78ko sanferminetako inpunitatea salatzen jarritako pankartengatik deklaratzera

deitu dituzte zenbait herritar.... Beraz, asko dago aldatzeko.

Bestetik, itzultzen hasiak dira iheslariak...

Hala da. Baina berdinean dirau senideon desorekak.

Izan ere, iheslarien abokatuek haien gain karguren bat dagoen galdetzean, epaitegiek ez dute erantzuten. Ostein jakin da edozein unetan atxilo dezaketen 60 pertsonako zerrenda dutela; eta horietako 30 poliziaren kontrolpean direla. Beraz, beti bezala, hor dirau senideon beldurrak.


Eta konponbiderako lagungarri da ETaren desagerpena?

Baietz esango nuke. Behintzat, atean dago giltza; irekitzea besterik ez da falta. Eta hor, goraiatzekoa da Iparraldeak prozesuari egindako ekarpena; Bakegileekin, adibidez. Eskertzekoa da, era berean, Foro Sozialak egindakoa. Eredugarria izan zen mundu osoarendako, oraindik jabetu ez bagara ere. **Orain, zer eskatuko zenioke Espainiako Gobernuari?**

Gauza asko. Hasteko, legea betetzen has dadila. Kasu horretan, presoen erdia inguru kalean legoke; Joseba Arregi, tartean. Behinik behin, kanpoan baileudeke larriki gaixo daudenak, adinekoak eta zigorraren hiru laurdena beteta dutenak. Beraz, ez dezala legea nahieran erabiltzen jarraitu. Eta, gainerakoekin, bestetik, hurbildu ostein, epe motzean askatzea izan behar luke bidea. Urratsez urratsezkoa.

HAU BE BADOGU!

Ur likidoa aurkitu dute Marte planetan



Italiako zientzialari talde batek ur likidoa duen laku bat aurkitu omen du planeta gorrian.

@edulartzaguren: "Marte etxeko izozkailua bezalakoa da, ura eta gauza interesgarriak izotz geruza lodi baten azpian daude".

@asterrika: "Marten ura aurkitu dute. Ea garagardea ere aurkitzen duten, oporretan bertara joateko".

Zorion mezuak Aitor Fernandez atezainari



Arrasatearrak Levanten jokatu du datorren denboraldian:

@NaturalSerge: "Badoa Aitor Fernandez, Numanciako historiaren atezain onena. Eskerrik asko futbol arratsalde zoriontsuak emateagatik. Soria zure etxea izango da, beti". (itzulita).

@bzarrabeitia: "Aitor Fernandez Levantera. Fitxaketa bikaina eta erabaki oso ona. Zorte on Aitor!"

Abuztuarekin batera, '#oporrak' traola

Abuztuko oporrak gainean daudela nabaritzen da sare sozialetan ere:

@koldotxu: "#Oporrak hasteko #birrapintxo-a".

@egottikie: "Denboraren abiadurak kezkatzen nau, batik bat lanera joan behar ez dudanean. Badaezpada ongi pasatzen ari naizela diruditen argazkiak soilik elkarbanatuko ditut ez dezadan pentsa #oporrak alperrik galtzen ari naizela".

ITURRI ONETIK

Dani Lorenzo, Ointxe! Arrasatera

Ointxe! Arrasate saskibaloia taldeak Dani Lorenzo arabarra fitxatu du, datorren denboraldian EBAn jokatzeko. Esperientzia handiko jokalaria da, 24 urte baditu ere; izan ere, antolatzaile gasteiztarra Araberri taldean aritu da azken bi denboraldietan Urrezko LEB Mailan, saskibaloien bigarren mailan. Goierrri Verkolen ere aritua da. Jokoa antolatzeko ez ezik, defentsa lanetarako dohain bereziak ditu eta gertukoek haren izaera baikorra nabarmendu dute. EBAn lehiatzeko jokalaria inportantea izango da.

ALBISTE IZAN ZEN

2007-07-20

Hartz-garezurra aurkitu zuten Lezetxikin

Hartz baten garezurra aurkitu zuten Lezetxikin. Alvaro Arrizabalaga indusketa lanen arduradunaren esanetan, "azkeneko 40 urteetan aurkitutako piezarik onena". Izan ere, 1965ean, Lezetxikin aurkitu zuten giza-besahezur bat, 164.000 urteko antzinasuna izango lukeena. Garezurak, berriz, 150.000 bat urte zituen eta oso-osorik agertu zen. Gerora, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Maria Cruz Ortegak -argazkian- zaharberritu zuen.



MARI CRUZ ORTEGA



Zalduspe eremua Argatek –lehenago Asmobi– eta Ospitalearen artean dago. XABI GOROSTIDI

Zalduspe industrialdea, 2024rako urbanizatuta

Udala da partzela horren %88ren jabea, baina horren %35 SPRI erakundearen esku geratuko da 2024an. Aprendizien eraikina udalekotzeko permutan hala jasota geratu zen, eta Udal Gobernuak eremua urbanizatzeko plana onartu berri du

Xabi Gorostidi ARRASATE

Udal Gobernuak Zalduspe esparruaren urbanizazio proiektua onartu berri du uztailean. Debagoieneko Ospitalearen eta Argatek –lehenago Asmobi– lantegiaren arteko partzela da, eta Udala da bertako %88ren jabea. Eremu hori urbanizatzeko arrazoi nagusia 2016ko maiatzean

Udalak eta SPRIk erakundeak sinatutako akordioa betetzea da.

1996a ezker, Aprendizien eraikina SPRIren jabetzera zen, eta, urte luzez hutsik egon ostean, hori udalekotzeko negoziaketak hasi zituen Udal Gobernuak erakunde publikoarekin. Bilerek fruituak eman zituzten, eta permuta bat egitea adostu zuten bi

aldeek: SPRIk Aprendizien eraikinaren jabetza Udalaren esku utzi zuen, Zalduspe esparruko %35en truke.

Aipatutako truke horrez gain, partzelaren urbanizazio lanak bere gain hartzea eta lan horiek zortzi urteko epean egiteko konpromisoa ere hartu zuen Udal Gobernuak.

Parkea eta biribilgunea

Biribilgune bat jarriko dute gune horretan; gutxi gorabehera, errepidea Pazi-olaren paretik igarotzen den tokian. Horrez gain, errepidearen beste aldean, Zigorrolatik datorren zubiaren alboan, lantegi zahar bat eraitsiko dute atsedengune bat egiteko. "Egoteko gune bat izango da; zuhaitzekin, belarrarekin eta baldosazko lurrarekin. Erreka ondotik dabilen jendearentzat, deskantsatzeko gune bat izango da" azaldu du Hirigintza, Ingu-rumen eta Mugikortasun zinegotzi Ibon Arrupek.

Kulturolaren zain

Herriko kultur eragileak batuko dituen eraikinak erabat baldintzatuko du Zalduspeko lanen erritmoa. Udal Gobernuaren aurreikuspenen arabera, 2021erako erabilgarri egongo litzateke Kulturola, eta, data horretatik aurrera, asko azkartuko dira Zalduspe urbanizatzeko lanak. "Kulturola giltzarri izango da Zalduspeko urbanizatzeko lanak egiteko. Gaur egun, herriko hainbat kultur taldek eta udal zerbitzuek daukate euren egoitza Zalduspeko pabiloietan; Samba-maña batukada taldeak, Arrasate Margo Taldeak, Loixe Zeramika Elkartek, SUDCek eta Santamas Komisiñuak ere. Hala, behin hauek Kulturolara lekualdatzen direnean, ez da trabarik izango eremua urbanizatzeko".

Behin lanak amaituta, eta SPRI erakundearen laguntzarekin, enpresak edo erakundeak Zalduspera erakartzea errazagoa izango dela uste du Arrupek. "SPRIk esperientzia handia du industrialde degradatuak erakargarri bihurtzen. Horrez gain, enpresen eta erakundearen kontaktu sare handia dute, eta hori lagungarri izango da guretzat, Zalduspera erabiltzaile berriak erakartzeko.

Pazi-ola, lehen urratsa

Iaz udan egin zuten eremua urbanizatzeko lehen urratsa, Pazi-ola enpresa zegoen eraikina eraitsita. Orain, ospitaleko erabiltzaileentzako aparkaleku gehiago daude bertan, eta alboan Udalaren auto gordailua eta garabiak daude. Momentu honetan ere beste lan batzuk daude martxan: ospitale aurrean dagoen dorre elektrikoa lurperatzearenak, hain zuzen. Udalak bere gain hartu zituen kableatua lurpetik joateko kanalizazioa egiteko lanak, eta amaituta daude. "Guri dagokiguna eginda dago, eta Iberdrolaren txanda da. Espero dugu udazkenerako dorrea lurperatuta egotea".

KULTUROLA ERAIKINA GILTZARRI IZANGO DA ZALDUSPEKO LANEK ERRITMO BIZIAGOA HAR DEZATEN

Gizarte arloko elkarteei 74.000 euro bideratu dizkie Udalak

%33 gizarte zerbitzuen alorreko 28 erakundek jaso dute eta %67, gobernuz kanpoko zazpi elkartek

X.G. ARRASATE

Gizarte arloko elkarteei dago kienez, honako hauen artean banatu ditu Udalak 24.400 euro: Acabe, Ademgi, Afagi, Agifes, Agipase, Atece, Atzegi, Atzegi (Txolarte), Begisare, Behar Zana, Fundacion Syndrome de Down, Goienagusi, Harreman, Hurkoa, Iturrigorri Elkarlana, Itxaropen telefonoa, Izan, Msh-Ams, Gipuzkoako Elikagaien Bankua, Gautena, AECC, Ortzadar, Caritas Arrasate, Gurutze Gorria, Nagusilan, Adahigi, SOS Arrazakeria eta Inme. Talde, elkarte

eta erakunde horiei eskainitako diru laguntzen helburua da haien programak diruz lagundu eta indartzea.

Gobernuz kanpoko erakundearen artean, aldiz, honako hauek izan dira diru laguntzak jaso dituztenak: Ams-Msh, Amsogra, Garabide, Harreman, Oscar Romero solidaritate batzordea, Serso San Viator eta ONG Taupadak.

Diru laguntza horiez gain, beste 15.000 euro bideratuko ditu Udalak Harreman eta Mundukide erakundeekin iaz sinatuta zuten lankidetzak akordioa.

OHARRAK

Sorosle baten bila

Udalak sorosle bat kontratatzeko deialdia egin du. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, bisitatu www. arrasate.eus webgunea.

Egurrezko bankuak

Doctor Bañez kalean, Kurtzetxiki plazan eta Biteri etorbidean egurrezko banku berriak jarri ditu Udalak. Lanek 13.000 euroko kostua izan dute.

Mugikorrek batzen

Sagiri elkarteak 3G teknologia duten mugikorren bilketa antolatu du, uda hemen igaroko duten Saharako haurrek euren familiei eramateko.



AHE

Sutea Erguingo Herri Eskolan

Sukaldeko atean piztu zen sua, eta atea eta pertsiana kiskalita geratu ziren. Martitzen gaueko 02:00 aldera gertatu zen ezbeharra, eta, lehen hipotesien arabera, baliteke nahita piztutako su baten ondorioa izatea. Sukaldea eta jangela kez bete ziren, baina, Herri Eskolako arduradunek esandakoaren arabera, bertako ondasunek ez zuten kalte larririk jasan.



Iñaki Galparsoro abadea meza esaten. GOIENA

Iñaki Galparsoro hil da, "abade langilea"

1960ko hamarkadan heldu zen Garagartzara, eta langileen eta herritarren alboan egoteagatik zen ezaguna. Uztailaren 13an zendu zen, eta domeka honetan haren aldeko elizkizuna antolatu dute Garagartzako eta Santa Agedako lagunek

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Abade langilea". Hitz horiekin definitzen dute Garagartzako eta Santa Agedako biztanleek Iñaki Galparsoro Barandiaran, urte luzez bi auzoetan abade jardun duen ataundarra.

Hasieran, Joxe Migel Barandiaran antropologoaren iloba izateagatik zen ezaguna, baina Arrasatera heldu eta segituan hasi zen bere izaera langileagatik ezberdintzen.

Galparsorok, abade izateaz gain, lan egin nahi zuela esaten zuen. Langileen alboan egotea zen haren nahia, eta, abade lanak egiteaz gain, Fagor Garagartzan egin zuen lan, prentsa departamentuan. Horren ostean, Santa Agedako abade lanak ere hartu zituen. Aurreko apaizak Garagartzan bakarrik esaten zituen mezak. Galparsorok, aldiz, Garagartzan eta Santa Agedan; eta, horrez gain, Fagorren ere lan egiten zuen", gogorarazi du Garagartzako auzotar batek.

Gizon eskuzabala zela nabarmentzen dute ezagutu zutenek. "Bataioak edo entierroak egiteagatik sekula ez zuen dirurik eskatzen, bere jornalaren barruan zegoen zerbait zela ulertzen zuelako. Gainera, euskaraz egiten zituen, oso euskalduna zen eta. Horrez gain, urtean hiruzpalau aldiz, auzotarrentzako otorduak prestatzen zituen: urtebetetze egunean, San Inazio patrioiaren egunean, auzoko jaietan, koruari laguntza emateko ekitaldietan...".

Laguntzeko borondatea

Hori da Galparsororen nor-tasunari buruz Garagartzako eta Santa Agedako auzotarrek nabarmentzen duten beste al-

"BETI ZEGOEN JENDEA ARRASATERA EDO BESTE EDOZEIN TOKITARA ERAMATEKO GERTU"

derdi bat. "Gogoratzen dut, behin, Debaraino etorri zela nire bila, gaixorik nuen familiako kide bat ikus nezan. Bere kontaktuei esker nengoen bertan, udalekuetan, eta 600 autoa hartu eta nire bila etorri zen. Garai haietan, Debara joatea gaur egun Madrilera joatea bezala zen, baina hori ez zen traba harentzako".

Domekan, meza

Gaixotasun luze baten ondorioz hil zen, 84 urterekin, pasa den uztailaren 13an. Ataunen, bere jaioterrian, egin dituzte hileta elizkizunak, baina domeka honetan haren omenezko elizkizuna egingo dute San Migel parrokian, 10:45ean.

Garagartzako eta Santa Agedako lagunek antolatu dute, eta parte hartze berezia egingo du bertan Garagartzako eta Gesalibarko Abesbatzak. Horrenbestez, ahalik eta jende gehien bertaratzeko dei egin dute antolatzaileek.



Antoñanako presa. BASOINSA

Bioaniztasuna babesteko, presa naturalak Antoñanan

Bertako espezieak zaintzeko sei putzu eta presa natural eratuko dira Antoñanako hezegunean

Jone Olabarria ARRASATE

Antoñanan hezegune bat eratzea onartu du udalbatzak. Guztira, gehienez, 50 zentimetroko sakonera izango duten sei putzu sortu nahi dira, presa naturalen bitartez. Horretarako, pinuak eta akaziak bota, eta bertako zuhaitz eta landareak landatuko dituzte gune osoan; haltzak, batez ere. Botatuko pinuak presa naturalak egiteko erabiliko dira.

Egitasmoa Arrasate Zientzia Elkarteak proposatu zuen Udaleko Ingurumen Mahaian, eta hark ontzat eman zuen. Inguru-

men ingeniari-tza jorratzen duen Leioako Basosainsa enpresa aritu da proiektua garatzen. 2018ko aurrekontuaren barne dauden lanek 90.000 euroko gastua izatea espero da.

Bertako karramarroa helburu

Hezegunearen helburuetako bat bioaniztasuna zaintzea dela kontuan hartuta, AZE bertako karramarroa berreskuratzeko asmotan dabil. Izan ere, azken urteetan gero eta ugariagoa den karramarro amerikar inbaditzailea ez da, oraingoz, Antoñanara iritsi.

GORA ETA BEHERA




IMANOL SORIANO

Atletismo pistako lurra, hondatuta

Mojategiko atletismo pistako lurra kaltetuta dagoela adierazi dute erabiltzaileek: leku batzuetan, eguzkiak gogortuta; eta beste batzuetan, puztuta.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

ZINEMASTE *eskuratu* CARREFOUR GORBEIAN



zure
Zinemako sarrera

3€
-an

UZTAILAREN

30-ETIK

ABUZTUAREN

04-RA

Bi egunak barre

EGIN 40€ EDO GEHIAGOKO
EROSKETA CARREFOUR GORBEIAN
ETA ESKURATU

GEHIENEZ 2 ZINEMA-SARRERA, BAKOITZA 3€-AN,
GORBEIAKO ZINEMETAN PROGRAMATUTA DAGOEN
EDOZEIN FILM IKUSTEKO.

2018KO ABUZTUAREN 19RA ARTE.

EZ DA BESTELAKO ESKAINTZA EDOTA PROMOZIOREKIN PILATUKO.
KONTSULTATU OINARRIAK:

centrocomercialgorbeia.com

Carrefour

CINES
GORBEIA
ZINEMAK

GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com


Carrefour

UZTAILAREN 26TIK ABUZTUAREN 9RA ARTE

3x2

5.000 produktutan
baino gehiagotan



Birjina estra

DCOOP oliba-olio
birjina estra
1l
1 ale
5,25€

3x2

3 ale erosiz gero,
ale bakoitza
3,50€
3 ale 10,50€

LA VUELTA 

ZURE EROSKETARAKO ETA
ASKOZ GEHIAGOTARAKO
Carrefour.es



Aitor Fernandez aurkezpena Levanten. LEVANTE UD

Aitor Fernandezek Levanten jokatu du

Azken bi denboraldietan Numantzian aritu ostean, Lehen Mailara salto egin, eta lau urtez Levanteren atea defendatuko du Aitor Fernandez Abarisketak. Soriako taldeari milioi bat euro ordainduko dizkio Levantek arrasatearraren truke

Jone Olabarria ARRASATE

Aitor Fernandez Abarisketak (Arrasate, 1991) Lehen Mailan jokatu du datorren denboraldian. Valentziako Levante taldearekin lau urterako kontratua sinatu berri du, bi denboraldiz Soriako Numantzia taldeko atezain izan eta gero.

Azken unera arte ez zegoen batere argi jokariaren etorkizuna, eta beste talde batzuek ere Fernandez atezaina fitxatzeko interesa erakutsi duten arren, azkenean, Levantek emango dio Lehen Mailara jauzia egiteko aukera.

Taldeak milioi bat euro ordaindu dizkio Numantziari arrasatearraren truke. Soriarrekin 76 partidu jokatu ditu aurreko denboraldian Aitor Fernandezek; 29 alditan ez diote golik sartu.

Martitzenean, hilak 22, aurkeztu zuen Levantek Aitor Fernandez. Jokalaria ilusioz agertu zen erronka berriarekin: "Jokalaria guztion ametsa da, txiki-txikitatik, Lehen Mailan joka-

tzera iristea. Esker hitzak baino ez ditut Levanterentzat; amets hau egia bihurtzen lagundu didan taldea izan da".

Talde berriaren inguruan galdetuta, Levanten nabari den "giro ona" gailendu du, lehen momentutik "familiar" sentiarazi dutela dio. Fernandezek argi ditu helburuak: "Talde honek konfiantza handia eman dit lehen unetik; orain, klubaren erronkei aurre egiteko lan egitea tokatzen da".

Klub valentziarrak apustu irmoa egin du Mondragoeko atezainaren alde eta hala azaleratu du bere presidente Quico Catalanek: "Levantek lan handia egin du Aitor gure artean egon zedin; gure helburuetako bat zen, eta, azkenean, lortu dugu". Atezainak erakutsitako jarrera ona goraiatu du Catalanek: "Hasieratik kamiseta hau jantzi nahi izana erakutsi duzu, ez dizu inork ezer oparitu. Gure klubaren balioekin bat zator gutziz".

Ibilbide oparoa

Maila apalenetatik hasita Lehen Mailara iristea lortu du Fernandezek, baina ez da lan erraza izan. Athleticen hasi zenetik gaur egun arte hainbat taldetan ibilia da arrasatearra.

Izan ere, oraindik haurra zela, 11 urterekin, hasi zen Fernandez Lezamako harrobian eta bertatik Baskoniara salto egin zuen, gazte mailan. Orduan, gazte mailako Errege Kopa jokatu zuen; bigarren postua eskuratu zuten. Urtebete geroago, 19 urte azpiko Eurokopako txapeldu-norde izan zen.

Bigarren B mailan Barakaldo eta Vila-realen aritu ostean, Numantziak eman zion Bigarren Mailan jokatzeko aukera.

"TXIKI-TXIKITATIK, FUTBOLARI GUZTION AMETSA DA LEHENENGO MAILAN JOKATZEA"

Lehen mailarako bidea

Athleticen harrobia

- Alebin eta Infantil mailak.

Baskonia

- Gazte maila.
- 2008-2009.

Bilbao Athletic

- Bigarren B maila.
- 2010-2012.

Barakaldo

- Bigarren B maila, II. taldea.
- 2012.

Vila-real B

- Bigarren B maila.
- 2013-2016.

Numantzia

- Bigarren Maila.
- 2016-2018.

Reala ere, atezainaren atzetik

Hainbat taldek erakutsi dute azken hilabeteen arrasatearra fitxatzeko interesa; haien artean, Realak. Hasiera batean, talde txuri-urdinak ez zuen inolako arazorik, diru aldetik behintzat, Aitor Fernandezek Numantziarekin zuen kontratua hausteko, Soriarrek milioi bat euro eskatzen zuten arren. Azken unean, ordea, donostiarrek hobeto pentsatu eta atzera egitea erabaki zuten. Asier Garitanoren taldeak bazituen, jada, bere atea defendatzeko hiru izen: Moya, Rulli eta Toño Ramirez. Horietaz gain, Sanseko atezain den Zubiaurreren kontratua berritu egin zuen hurrengo denboraldiari begira.

Iturripeko zorua aldatzeko lanak hasi dituzte

Umeltasun arazoak direla eta, Udalak Iturripeko kiroldegiko zorua aldatzeko lanak hasi ditu, hainbat kirol elkarteren eskareren ostean. Obra egiteko aurkeztu ziren zazpi enpresen artean, Udalak Mondo Iberica enpresari esleitu dizkio lanak, 75.867 euroren truke. Astelehenean hasi ziren, eta abuztuaren 10era-ko bukatzea espero dute.

Datorren denboraldirako, lau baja Ointxen

Arrasateko taldea EBA mailan lehiatuko da 2018/2019an, eta, denboraldiari begira, Gorka Arejolaleibak, Andoni Aranzabalek, Mikel Basterrak eta Jordan Rutherford-ek agur esan diote taldeari. Jokalariak utzitako hutsuneak betetzeko, zuzendaritzak fitxaketak egiten dihardu, baita harrobiko jokalariekin kontaktatua jartzen.

Cazorla CB taldeak Iker Barbero jokalaria fitxatu du

Jaengo Cazorla CB saskibaloitaldearekin arituko da Iker Barbero datorren denboraldian. 26 urteko arrasatearra Globalcaja Quintanar taldeko jokalaria izan da aurreko denboraldian eta Jaenera gogotsu doala adierazi du: "Jokalaria zein pertsona moduan hazteko aukera paregabea da, ilusioz arituko naiz talde honetan lanean".

Haurrak gustura ibili dira Mondrateren campusean

Uztailaren 2tik 20a bitartean, 90 bat umek futbolaz gozatzeko aukera izan dute Mondrate kirol elkarteak antolatutako udako campusean. Oinarrizko teknikak ikasteaz gain, hainbat tailer, eskulan eta irteera egin dituzte txikienean. Nagusiagoak, osterata, teknifikazioan oinarritu dira, eta taktika desberdinak ezagutzeko aukera izan dute.

"Jarrera eta soinua", beste edozeren gaineratik

'Estetikak agintzen du, baina guk nahiago ditugu jarrera eta soinua'. Legez Kanpo hirukotearen abesti baten hitzak dira. Aggressive Combat eta Hawkins Thugs taldeetako partaide ohiak dira, baina musikalki proposamen ezberdina dakarte orain

Xabi Gorostidi ARRASATE

Bizitza erdi baino gehiago daramate musika taldeak aurrera eramaten, baina badirudi ez zaiela gasolina agortu. Aritz Mauri, Jon Nevado eta Harri Anzizar arrasatearrek rock-and-rolla daramate zainetan, eta odola borborka duten artean ez dute etsitzeko asmorik.

Bi talderen errautsetatik

Aggressive Combat eta Hawkins Thugs taldeetako partaideek osatzen dute Legez Kanpo. Biak ala biak hiltzorian zeuden, baina, horiek hiltzen ikusi ordez, proiektu berri bati ekitea erabaki zuten. "Hawkins Thugs taldea bertan behera geratu zen, besteak beste, Aritz Unamuno abeslaria atzerrira joan zelako. Hala ere, abesti berri batzuk genituen esku artean. Ez ziren Aggressive-entzako kantuak, beste ukitu bat zuten. Aggressive Combat ere erdi hilik zegoen, eta gu hirurok bakarrik ginen lokale-



Legez kanpo taldearen zuzeneko bateko irudia. LEGEZ KANPO

ra joaten ginenak", azaldu du taldeko baxu-jole eta abeslari Aritz Maurik.

Musikalki aldaketa

Etiketetik gertu kontzertu sorta bat egin eta Internetera lau kan-

ta igo ostean, argi ikus daiteke Legez Kanpo ez dela orain arte egindakoaren errepikapen bat. Kantak laburragoak dira, bizkorragoak, aldi berean, eta Anzizarren gitarra efektuak eta punteatze indartsuak ditu.

"Cro-mags bezalako taldeen soinuaren bila abiatu ginen. Euskaraz eta gazteleraz abestu nahi genuen, eta *Kaleak* izeneko lehen kanta igo genuen Youtubera. Ostean, geldialdi txiki bat izan genuen, eta berriro hastera-koan, Harri efektuak eta pedalak erabiltzen hasi zen. Bera da benetan hiruron artean hobekien jotzen dakiena".

Lehen pauso horiek ematen ari zirela, Never Surrender taldeko abeslari *Pottoko* aritu zen abeslari lanetan, baina, azkenean, hirukote gisa finkatu ziren. "Hasi eta gutxira, *Pottoko*-ri abestea proposatu genion. Berak idatzi zuen, adibidez, *Ez nator bat* abestia. Baina bizkarreko arazo batzuegatik, ezin izan zuen jarraitu, eta hirurok jarraitu genuen aurrera".

Hitzak, ukitu kritikorekin

Bandcamp webgunean zintzilikatu dituzten lau abestietan, argi geratzen da gogoko ez dituzten gauzetara zuzentzen dituztela kantuen hitzak. Besteak beste, ignorantzia, legeen diktadura, itxurakeria eta halako gaiak jorratu dituzte. "Orain arte idatzi ditugun abestietan, nahiko presentzia du kritikak. Ez dira laguntasunari edo mozkorraldiei buruzko hitz mitikoak. Abestearen ardura Harrik eta biok hartu dugu, eta letrak idaztearena ere bai. Erdi bana egiten dugun lana da, baina norik bere abestiak ekartzen ditu".

Zazpi kantako LPa, irailerako

Momentu honetan taldearen erronka nagusia zein den galdetuta, zera erantzun du Maurik: "Laster, *Bandcamp*-eko lau abestiak Youtubera igoko ditugu, eta, irailerako, zazpi kantako LP bat aterako dugu. Kantak Legazpiko gazte lokal batean grabatu ditugu orain dela gutxi, eta orain, zigiluekin hitz egiten ari gara. Bosten artean egingo dugu banaketa: Galiziako bat, hemengo hiru eta Frantziako bat. Zuri-beltzezko portada izango du, lagun batek egin digu".

Underground eszenaren egoera

"Nahiko baxu dago, eta ez du zerikusirik gu hasi ginen garaiekin. Kaleko Urdangak eta Perlata bezalako taldeak hor daude, baina beti hor egon diren pertsonak dira. Ez dut mugimendurik ikusten belaunaldi berriengan. Faltan igartzen dut 20 urteko gazte batzuk ikusi eta harrituta geratzea. Nire ustez, ez dute kontzientziarik *Do It Yourself* filosofiarekin: ez dira gaztetxeetan sartzen, ezta politikan ere. Ez dute ezer antolatzen, eta indibidualismo gehiegi ikusten dut haiengan".

IRAILLEAN, ZAZPI KANTAZ OSATUTAKO LP BAT ATERAKO DUTE BOST ZIGILUREN LAGUNTZAREKIN

Kontzertuz jositako uda dute aurretik Perlata taldekoek

Abuztutik irailera bitartean bederatzi zuzeneko eskainiko dituzte Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan zehar

X.G. ARRASATE

Duela bi aste egindako elkarrizketan, udan ahalik eta kontzertu gehien jotzeko asmoa zutela esan zuten Perlatako kideek, eta, aste honetan iragarri duten kontzertu sortarekin, badirudi helburua majo beteko dutela. Abuztuaren 4tik irailaren 29ra bitartean bederatzi kontzertu lotu dituzte, eta ia zortzi aste-buruz jarraian emango dituzte kontzertuak Euskal Herrian barrena. Lehen geldialdia Getariako jaietan egingo dute –abuztuaren 4an– eta jarraian beste

bi kontzertu egingo dituzte Gipuzkoatik irten gabe: Añorgako gaztetxean –abuztuaren 11n– eta Aretxabaletako andramaixetan –abuztuaren 14an–.

Jarraian, Bizkaia eta Nafarroa aldean arituko dira: Tafallako festetan –hilaren 17an–, Bilboko jaietan –21ean–, Iruñean –31n– eta Lekeitioko jaietan –irailaren 8an–. Kontzertu birako azken bi emanaldiak etxetik gertu egingo dituzte: Arrasateko Elkartasun Egunean –irailaren 15ean– eta Oñatiko San Migel jaietan –irailaren 29an–.

Woodstrings taldearen zuzeneko, Udazabal programa agurtzeko

Hamaika talderen proposamen kulturalak gozatu ondoren, gaur arratsaldean Woodstring taldeak egingo duen zuzenekoarekin agurtuko da Udazabal programa, datorren urtera arte.

Askotariko espresio artistikoez izan dute lekua aurtengo egitarauan –musika, antzerkia, zirkua edo dantza– eta herritarren artean harrera ona izan dute.

Aretxabaletako eta Arrasateko partaideez osatuta dagoen Woodstrings taldearen kontzertua izango da aurtengo azken kartuxoa. Gelmako etxeetan dagoen Euskal Herria plazan arituko dira –kokapen hori da aurtengo berritasunetako bat– eta doinu akustiko landuak joko dituzte.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

Zita prebia

Komisariatoko funtzionarioak. Inoiz eguzkia ikusten ez duten bizidunak bailiran; bertan lo egin eta goizetan jende aurrera ateratzen direnak. NAN eta pasaporteak egiten dabiltzan makinak. Halako batean, "Gasteiz" irakurri du funtzionarioak nik betetako paperean, eta esan du: "Ah, euskaldunass!", bat-batean ulertuko balu bezala. Noski, euskaraz hasi zaigu; beno, saiakera egin du, eta ostean, erdarara pasatuko dela abisatu digu. Txalaparta doinuak entzun ditugu nonbait. Orduan esan diogu: "Ez dizugu eskatu egiterik ere". Eta berak: "Aizu, ni ere euskalduna naiz gero, e!". Aibalaostia, eta harro gaude!

Ze demontre gertatzen zaie polizia administratiboei... edozein komisariatuan aurpegi bertsuak ikusten dira. Badirudi ez direla oso kontent haien lanekin, edo herritarrekin. Eta hala esan zigun: "Jakizue pasaporteak egiteaz gain, NAN egiteak lanetik 15' beranduago ateratzea suposatzen didala". Gu mutu. Eta jarraitu zuten: "Baina horrek zuei ez dizue axola, noski". Gu orduan ere ixo! Barrunbetik aterako lirakeen orroek ez lukete lekurik haren ulermenean, gure denbora ez baitu inoiz aintzat hartuko.



Solobarri baserria, Barajuenen, bidearen amaieran. JULEN IRIONDO

Solobarrira doan bidea konpondu egingo dute

Barajuengo horretaz gain, beste hainbat obra ere egingo dituzte udalerrian, aurreko osoko bilkuran udalbatzak onartutako kreditu gehikuntzan jasotako baliabide ekonomikoak erabiliz. Ibarako ikerketa hidraulikoa ere egingo dute, esate baterako

Julen Iriondo ARAMAIO

Aurtengo likidazioa ere positiboa irten dela-eta, soberakineko zenbait mila euro hainbat obra egitera bideratzea erabaki zuen udalbatzak aho batez ekaineko osoko bilkuran.

Udalak eskaria egin zuen Barajuengo azpiegitura eta zolaketan lanak Foru Planaren bitartez finantzatzeko, baina ezezkoa erantzun diote. Obra handia da, eta dena batera egiteko dirua noiz lortuko duten jakin ezin denez, auzoan behin-behineko zenbait konponketa egitea eta Solobarri baserrira eta ondoko gaztandegira doan bidea konpontzea erabaki dute. Udalaren baliabideak erabilita, egoera gero eta okerragoa delako.

Solobarrirako bideak denbora luze darama egoera txarrean: "Lehen sektoreko enpresa bat dago hor, eta herri honetan garrantzitsuak dira horrelako enpresak ere. Eta, gainera, bide horretan sarri egin ditugu par-teak, eta berriz hondatzen da",

zioen osoko bilkuran Lierni Altuna alkateak.

Solobarriko bizilagun Pedro Ruiz de Azuak pozik hartu du bidea konponduko dutenaren berria; zorua berritzeaz gain, arekak egin beharko dituzte. Inguruko egurra bide nagusira zuzenean jaisteko beste pista bat izan arren, hura erabili beharrean kamioiak euren etxe aurretik ibiltzen direla-eta, bidearen egoera okertu egin dela dio Solobarrikoak: "Bide honek ez du oinarri sendorik, lehen gurdi bidea izandakoa da-eta". 85.600 euro aurreikusi dituzte lanotarako.

Beste lan batzuk: 14.800 euro bideratuko dituzte Ibarako ikerketa hidraulikoa egitera –

LEHEN SEKTOREKO ENPRESA BAT DAGO INGURU HARTAN, ETA EGOKI IKUSI DA BIDEA KONPONTZEA

Foru Aldundiak eskatu du egiteko, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrearekin lotuta. Honekin batera, beste 14.300 euro bideratuko dituzte Zabola eta Untzilla arteko errepide azpiko Aldapa pista konpontzera. Goiko errepidearen ur arazoak tarteko, zati batzuetan itxita dago pista; ondorioz, inguruko pinudiak irteerarik gabe daude.

Zabolako saneamendukoak dira egingo dituzten beste lan batzuk, 7.000 euro inguruko aurrekontuarekin. AHTaren lanek sortutako eragozpenak dira, eta ADIFI behin eta berriz eskatu dio Udalak konpontzeko, baina, egiten ez dutenez, Udalak berak egitea erabaki du.

Kreditu gehikuntzako diruarekin egingo dituzten beste lan batzuk dira: babes kopien sistema hobetzea eta zerbitzari berria jartzea (4.700 euro); Azkoagan bideko kutxatila eta arekak ondo jartzea (3.900); botatzekoak diren basoen tasazioa (3.000); Matxain kaleko arekak (2.200).



Aurreko urte bateko jaiak. GOIENA

San Esteban jaiak izango dira Uribarrin asteburuan

Auzolanarekin hasi, eta kantu eta bertso afaria, umeentzako jolasak eta kontzertua izango dira

J.I. ARAMAIO

Gaur –barikua– 16:00etan hasiko dira Uribarrin San Esteban jaiak; auzolana deitu dute ordu horretarako. 19:30ean, berriz, txupinazoa eta kanpai jotzea izango dira. 21:30ean, kantu eta bertso afaria egingo dute –aurretik, auzokoen argazkia aterako dute–: Manex Agirre eta Peru Abarrategi ariko dira bertsoetan.

Bihar, 12:00etan, meza izango da, abesbatzak lagunduta; trikitilarien txanda izango da ondoren. 13:30ean, bolo txapelketa egingo dute, eta bazkalostean, 17:30ean, briska eta mus txapelketa.

Umeentzako zer eginik izango da aurtengo jaietan ere; horrela, jolasak edukiko dituzte, 18:00etan. 20:00etan, berriz, Maria eta Manexekin kontzertua, eta afaria ondoren –norberak eramandakoarekin–. *Berbapasa* eta diskoteka izango dira afalostean.

Domeka, azken eguna

Domeka izango da jaietako azken eguna. 12:00etan, hildakoen aldeko meza egingo dute; eta 13:00etan emango diete jarraipena bezperan hasitako mus eta briska txapelketei; finalak izango dira orduan. Sariak banatu eta 14:30ean amaituko dira jaiak.

NIRE USTEZ



JOKIN LARRAÑAGA

Kate ikusezinak

Goizeko bostak. Zerua ilun eta isilpean. Beste egun luze bat aurretik, beste irribarrerik gabeko lan egun luze bat aurretik. Buzoa eta botak jarri eta tailerrera, edo erratza bizkarrean hartuz kalea garbitzera, edo belarra moztera, edo tabernako barraren atzean mozkorrak aguantatzera.

Zazpi egunetik bost, kateatuta; asteburuko bi egun izugarri labor horien zain, eta zertarako? Egongelan 60 hazbeteko telebista izateko, eta bertako iragarkietan saltzen dizkiguten produktu guztiak erosteko, ala parrandara irten eta gure existentzia eta arazoak ahazteko, edo astean zehar ikusi ez ditugun lagunekin edo bikotekidearekin egoteko.

Egunak dituen 24 orduetara kendu lanean igarotako zortzi, lanera joateko behar diren beste pare bat ordu, lotarako beharrezkoak diren beste sei, sukaldean, jaten eta garbitzen erabiltzen ditugun beste ordu pare bat, eta horrela etengabe.

20 urterekin lanean hasi eta, erritmo honetan, 70ekin jubilatuko arteko 104.000 lanorduak eta asteburuko aisialdian disfrutatutako 41.000 orduak konparatu besterik ez dago konturatzeko ez garelako bizi uste dugun bezain ondo.

Sua egiteko debekua ezarri du Arabako Foru Aldundiak

Ezingo da surik egin irailaren 23a artean: landa eremuetan; baso publiko zein pribatuatan; parke naturalatan; aisiarako parkeetan –barbakoa finko zein norberarenetan; Aramaion, Andramari eta Marixeka dira salbuespenak, espresuki ez badira ixten–; errepideetako atsedenguneetan. Askotariko zigorrak izan ditzake araua-haustek.

Andramaixak pasatakoan botako dute Azbe eraikina

Lantegiaren bulegoak kokatuta egon ziren eraikina aste honetan eraistea zen asmoa, baina, azkenean, abuztuko bigarren hamabostaldira atzeratu dituzte lanok; Urkulura doan bidea itxi egingo dute orduan eta astebetean bukatuko dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Azbe lantegia zenaren bulegoak astean botako zirela iragarri zuen Udalak, baina azkenean, haren jabe den Aretxabaleta Navas enpresako ordezkariekin adostu dute andramaixak bukatutakoan heltzea lanei. Honela adierazi du Unai Elkoro alkateak: "Andramaixetako txosnagunea bertan egoten da; hortaz, segurtasuna bermatze aldera, lanok atzeratzea erabaki dugu. Ez da hainbesteko atzerapena, eta lanak lasai egingo dituzte gero".

Bulegoak eta argindar dorrea

Josu eta Unai Arrizabalaga dira eraikinaren jabeak eta adierazi dute eraiste lanetarako gertu dagoela eraikina: "Hormigoia eta burdina kentzea bakarrik geratzen da, baita leihotako kristala ere, baina hori azken uneko kontua da", dio Unaik, eta gaineratu du: "Gero, Eusko Jaurlaritzako ikuskaritza pasatuko da benetan gertu dagoela ziurtatzeko, eta baimena emateko". Eraikinaren atzeko partean dagoen argindar dorrea ere kenduko dute, eta, horretarako, Urkulu aldera doan errepidea itxi beharra dago: "Errepide hori ixteko baimena ere eskatuta diogu Eusko Jaurlaritzari, eta jasotzear izango dugu".



Abuztuan botako duten eraikinaren zatia. MIRARI ALTUBE

Behin eraiste lanak hasita astebete baino gehiago ez dute iraungo uste dute.


Biribilgunea, urte bukaeran

Eraikina bota ostean, biribilgunea eraikitzekeo prozesua jarriko dute abian: "Garbitutako lursaila Udalaren izenean erregistratuko da, eta gero, desafektazio izeneko prozesua egin behar da Aldundiari eman ahal izateko. Kontu bat dela, beste bat dela, hilabeteak pasatuko dira, seguru asko. Hortaz, biribilgunearen lanak esleitzerako, urte

bukaera izan daiteke", jakinarazi du alkateak.

Zerradun eraikinean denda

Zerradun teilatua duen eraikina, ostera, mantendu egingo da, eta komertziora bideratu. Eraikin horren teilatua, hain zuzen ere, eraberritu egingo du Aretxabaleta Navas enpresak, baina, horretarako, Jaurlaritzako Ingurumen Sailak eman beharreko baimen baten zain daude: "Lur kutsatuak daude hor, eta baimena behar dute mugitzeko", dio Elkorkok.



Aretxabaletako sarreran egingo duten biribilgunea. FORU ALDUNDIA

Behar bezalako biribilgunea

Behin eraikina botata, biribilgunea egin ahal izango da. "Kamioiak eta autobusak oztopo barik pasatuko diren sarrera bat behar dugu", dio alkateak. Foru Aldundiaren ardura izango dira lanok, baina urtea bukatu aurretik esleitzea zaila izango dela adierazi du.



Eroskik berriak izango duen itxura. EROSKI

1.600 metro koadroko Eroski berria

Eroskik interesa agertu zuen bertan denda jartzeko, eta planoak aurkeztuta ditu. "Zati bat denda izango da, beste bat aparkalekuak, eta biltegiak goiko solairuan. Sarrera atzeko partetik izango du dendak", jakinarazi du Elkoro alkateak.

Gas hodiak sartzeko lantxo batzuk egingo dituzte bidegorrian

Aretxabaletatik Eskoriatzara doan bidegorrian hainbat seinaleztapen egin dituzte lurrean. Horren arrazoia da gas hodiak sartzeko lan batzuk egin beharra: "Eskoriatzatik datorren gas hodia bikoizteko lanak izango dira; horrela, eraztun bat egingo da, konponketak egin behar izanez gero mozketak ekiditeko", argi du Elkoro alkateak.

Nortegas enpresak izango du lanen ardura eta abuztuan egingo ditu; lanok iraun bitartean, bidegorria itxi egin behar izango dute, seguru asko.

Deba ibaiaren alboko pasealekuko lanak ere lehenbailehen hasi gura ditu Udalak. Dagoeneko esleitu dizkiote Construcciones Legasko SL enpresari, eta pasealeku hori Ibarra kiroldegiraino iristeko geratzen diren 62 metroak egin beharko dituzte. Lau hilabeteren buruan bukatuta izango da.

Gurditik Urkulu ezagutzen

Urkulu trotian-en sortzaile den Amaia Otadui gurdi-ibilaldiak egiten ditu urtegiaren inguruan: "Urkulurekin beste era batera gozatzeko aukera eskaintzen dugu", dio. Bost lagunendako lekua du gurdian eta hiru eratako ibilaldiak eskaintzen ditu: Urbaltzera; presara; eta urtegiari itzulia. Txanda aurrez hartu behar da: izaditamaia@gmail.com eta 943 58 10 74.



IMANOL BELOKI

Musikaz eta ikuskizunez gainezka datoz jaiak

Andramaixetako txupinazoa botako dute Loramendi ikastolaren lekuko batzuek, haren 50. urteurrenean; jaiak girotzeko, osterara, En Tol Sarmiento, Ebri Knight eta Anita Parker izango dira, besteak beste, baita Perlata eta La Furia ere txosnagunean

Mirari Altube ARETXABALETA

Abuztuaren 13tik 17ra bitartean ospatuko diren andramaixetako egitaraua egunotan jasoko dute herritarrek etxean. 85.595 euroko aurrekontua duten jaiak gertatu dituzte, hainbat berrikuntzarekin, eta ondo pasatzeko dei egin dute: "Gurera datozenak jaiak ondo pasatzera etor daitezela. Eta, noski, eraso sexistek ez dute lekurik", adierazi du Joxe Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak.

Malen Antxia eta Unax Urkia

Loramendi ikastolaren 50. urteurrena beteko da aurten, eta, hori gogoan, haren ordezkariak izango dute pregoia eta txupinazoa botatzeko ohorea.


Ohikoa den legez, ikuskizunik ez da faltako: Galiziako Troula taldeak argiarekin eta suarekin egindako *Draco* saioa eskainiko du eta Afro Sound System-ek eta Kiliklon-ek kaleak girotuko dituzte. Musikari dagokionez, hainbat DJ izango dira, baita musika estilo ezberdinak lantzen dituzten taldeak ere; besteak beste, Ebri Knight kataluniarrak, Anita Parker, En Tol Sarmiento eta Golden Apple Quartet.

Ohikoak diren ekitaldiak ere izango dira, hala nola 39. mus txapelketa, Milagroko bandaren emanaldia, 80. txirringululari lasterketa, pilota partiduak eta sokamuturra. Aurten, gainera, zezentxoak irten baino lehen, animaliekin jolas egiteko aukera izango dute neska-mutikoen.

Abuztuaren 16a, beste behin, Haurren Eguna izango da; alkate txiki Malen Antxia izendatuko dute eta alkateorde txiki, Unax Urkia. Ekitaldi mordoa izango dituzte egunean zehar: Potxin eta Patxin pailazoan emanaldia, jolas parkea, opariak... Eta abuztuaren 17an, kuadrillak izango dira protagonista, 600 lagunetik gorakoendako herri bazkariarekin eta jokoekin.



Anita Parker talde arrasatearra. IMANOL SORIANO



Flashmob-aren une bat. PIKARRAITUZ

Abuztuaren 14a, Gazte Egun Morea

Egitarau ofiziala txosnaguneko ekitaldiekin borobilduko dute. Gazte mugimenduak datorren astean aurkeztuko ditu horiek, baina etxeetara iritsiko den egitarauan ere jasota daude ekitaldiak. *Mozkorra* tomatearen igoerarekin eta herriko taldeen kontzertuekin hasiko dituzte jaiak, hilaren 13an; gazte bazkaria egingo dute 14an; eta elkartasun bazkaria, urtero legez, 16an. Musikari dagokionez, The Big Mac, Perlata, La Furia eta Bad Sound taldeak izango dira, besteak beste.

Aurtengo nobedadea Gazte Egun Morea da. Abuztuaren 14an izango da, eta *flashmob*-a da ekitaldietako bat. Dantza ikasteko, bideoa gertatu dute, eta hori zabaldu: "Animatu guztiok parte hartzera!". Gauean, osterara, Perlata taldearen kontzertua eta Pikarraituz *DJ set*-a egongo dira.

Jarduera berriak irailetik aurrera Ibarra kiroldegian

Hiit & Pilatesa, Piloxinga eta Core & Stretchinga eskainiko dituzte, eta izena emateko epea zabalik dago

M.A. ARETXABALETA

Abuztuko oporrak hartu aurretik, iraileko jardueren berri eman du Ibarra kiroldegia; izan ere, nobedadez beteta dator. Hiru jarduera berri eskainiko dituztela iragarri dute: Hiit & Pilatesa –intentsitate handiko ariketak eta pilatesa–, Piloxinga –pilatesa eta boxeoa– eta Core & Stretchinga –gorputzaren erdigunea indartzea eta luzaketak–. Horiez gain, aurreko urteetatik abian daudenak ere izango dira; besteak beste, multifitnesa, yoga, xunba eta gimnasia abdo-

minal hipopresiboa. Atxabalta Mugiko erabiltzaileendako antolatutako yoga, eta koordinazioa, oreka eta indar jarduerak ere itzuliko dira.

Izena emateko epea zabalik dago uztailearen 20az geroztik; interesatuek kiroldegira jo dezatela (943 03 98 42).

Abuztuko ordutegia

Abuztuan zabalik izango da goizez (09:00-14:00) eta arratsaldez (16:00-20:00) astelehenetik zapatuta; domeketan, goizez bakarrik. Abuztuaren 13tik 19ra, itxita.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

400 litro pintura Deba ibaira isurita



Ibaiko ura zuri-zuri eginda eta bitsarekin zihola ikusi zuten hainbat herritarrek martitzenean, eta kezka agertu zuten. 400 litro pintura isuri zituzten lantegi batetik, "istripu" baten ondorioz.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

OHARRAK

Liburutegia, goizez

Goizez bakarrik zabalduko dute liburutegia abuztuan (10:00-13:00). Eta 13tik 18ra bitartean itxita egongo da.

Magia tailerra

Magia Astearen barruan, magia tailerrak izango dira Arkupen; irailaren 6an (6-10 urte artekoak) eta 7an (11-14 urte artekoak). Izena aurrez eman behar da (943 08 10 01).

Virgin Soul taldearen doinu goxoak irailaren 2an

Soula eta musika beltza nagusi izango diren kontzertua eskainiko du Virgin Soul talde kataluniarrak irailaren 2an, domeka, Arkupen (20:00). Goi mailako musikariek osatutako taldea da: Carlos Pascual (pianoa), Enric Fuster (bateria), Aleix Triado (gitarra), Rossend Pujolar (baxua) eta Miren Zulaika (ahotsa).



Martitzenean, uztailako osoko bilkuran. IMANOL BELOKI

Kaleak garbitzeko zerbitzuan aldaketak

Uztailako osoko bilkuran, kaleak garbitzeko zerbitzuan, arlo teknikoan eta puntuazioan, aldaketa ugari egin dituzte. Bestetik, San Pedro jaietan izandako Espiel herriko alkatearen bisita eta Nestor Arana zinegotziaren kargu-uztea izan zituzten hizpide

Imanol Beloki ESKORIATZA

Oporren aurretiko azken osoko bilkura izan zuten martitzenean Eskoriatzako udalbatzako kideek, eta hainbat gai landu zituzten.

Kaleak garbitzeko zerbitzua kontratatatzeko espedientea eta lehiaketarako deialdia egitea onartu zituzten atzoko osoko bilkuran. Hala ere, batzordean erabakitako hainbat aldaketa izango ditu kontratazioak: arlo teknikoan, lehiaketara aurkezten diren enpresen puntuazioan, eta neurri berriak jarriko dituzte, kontrol handiagoa izateko. Hala, orain arte, horrelako kontratazioen esleipena bi urterako izan bada ere, urtebeterako soilik izatea erabaki zuten udalbatzako kideek.

Horrekin batera, sentsibilizazio kanpainarik egingo ote den galdetu zuten EH Bildukoek. Horren harira, *Eskoriatzak merezi du* kanpaina martxan jarriko dutela adierazi zuen Josu Ezkurdiak, Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak.

Irabaziko Rafa Bernal bozera-mailleak, bestalde, gaineratu zuen egindako aldaketetan inurumeneko klausula asko sartu dituztela, eta kanpaina egitea ere positibotzat hartu zuen.

Espieleko alkatea jaietan

Galde-eskeen tartean, San Pedro jaien gaineko hainbat galdera atera zituen mahai gainera Aitor Zubizarretak, EH Bilduko bozeramaileak. Jaietan, Espieleko (Kordoba) alkatea herrian izan zen, eta, elizbiran parte hartu zuenez, hainbat argibide eskatu zituen Aitor Zubizarretak: "nork" gonbidatu zuen, "aurrekontua zenbatekoa" izan zen eta "nolabaiteko senidetze konpromisorik badagoen" galdetu

'ESKORIATZAK MEREZI DU' SENSIBILIZAZIO KANPAINA, IRAILETIK AURRERA, HERRIA GARBI IZATEKO

zuen. Eta hau erantzun zuen alkateak: "Espielan izan ginen apiril bukaeran; Eskoriatzatik bi autobus joan ziren bidaia batera. Bertan, lagun egin ginen, eta aprobetxatu genuen bertako alkatea Gasteizera zetorrela, jaietara gonbidatzeko. Aurrekontua, bestalde, 40 eurora ez da iristen... Beraz, norbaitek uste badu dena ordaindu diogula, ez da horrela izan...".

Nestor Aranaren kargu-uztea

Bilduko zinegotziak legealdi honetako bere azken bilkura izango zela adierazi zuen. "Lan kontuengatik Danimarkara noa, eta, oposizioak bere mugak dituen arren, egindako lanarekin gertzen naiz, esperientzia positiboa izan da. Behinola bati entzun nion moduan: herritar guztiok bertatik pasatzeko moduko esperientzia da, bertatik ikusteko nola hartzen diren erabakiak, nola egiten den lana... eta hor badaukagu erreperatu beharra konfiantza gure instituzioengan".



Iaz, San Bartolome egunean batu zirenak. I.B

Auzo-bazkaria egingo dute sanbartolometan, Mazmelan

Abuztuaren 25ean, Basauria elkartearen bazkaria egingo dute auzotarrek, eta dagoeneko eman daiteke izena

I.B ESKORIATZA

San Bartolome eguna ospatzeko Eskoriatzako Mazmela auzoan. Eguna 24an bada ere, abuztuaren 25ean, zapatuan, auzo-bazkaria eginaz ospatzeko dute Mazmelako auzokideek.

Azken urteetan egin ohi duten moduan, Basauria auzo-elkartean bazkaria izango dute, 14:30ean. Hala, auzokoekin momentu atsegina pasatzeko aprobetxatzeko dute bertaratu-takoek, eta beste hainbat ekintza ere izango dituzte. Goizean, eliza azpiko frontoian pilota partiduak jokatzeko dituzte, ur-

tero moduan. Gainera, eguna girotzeko, Eskoriatzako Imanol eta Egoitz trikitilariak ere bertan izango dira, iaz bezala.

Auzotarrak batzeko eguna

Iaz, 40 lagun inguru batu ziren bertan, eta, San Bartolome eguna ospatzeaz gain, auzotarrek elkartu eta egun ederra pasatzeko helburua du egun horrek. Hain zuzen ere, bazkarira joan nahi duten auzotarrek elkarteko kortxoan dagoen zerrendan jarri beharko dute izena. Horretarako azken eguna abuztuaren 5a izango da.

San Inazio bezperan, su artifizialak jaurtiko dituzte

Azken urteotan bezala, su artifizialak izango dira ikusgai Eskoriatzan. Gipuzkoako patroia San Inazio egunaren bueltan, bezperan, uztailaren 30ean bertako dituzte suak.

Gernika plazatik –plaza txikiabotako dituzte, 22:45ean, eta kolore eta forma askotariko su ikuskizunak hamalau minutu iraungo du. Eskoriatzako Udalak adierazi du suak ikusteko lekurik aproposena Olazar auzoa dela, erreka ingurutik. Hala, ekintza horrekin, uztailan Eskoriatzan izan diren ekintza guztiei amaiera emango diete, alde batetik. Eta, bestetik, abuztuko oporrei ongietorria emateko aprobetxatzeko dute.

Portugalera bidaia antolatu du Olazar elkarteak

Urriaren 2tik 9ra bitartean, Portugal iparraldera joateko bidaia antolatu dute Olazar Erretiratu Elkartekoek. Hainbat bidaia egin dituzte aurten ere, eta azkenengoetan aurreikusitako baiden jende gutxiagok eman duenez izena, Portugalera antolatu dute oraingoan, jende gehiagok izena emango duelakoan.

Oraindik goiz den arren, hiru zatitan egingo dituzte ordainketak bertara joan nahi dutenek. Guztira, bazkideek, 560 euro ordainduko dituzte eta bazkide ez direnek, berriz, 580 euro. Porto, Santa Maria da Feira, Aveiro, Viana do Castelo, Braga, Guimaraes... hiriak bisitatuko dituzte, besteak beste.

Izaroren ahots goxoaz gozatzeko emanaldia

Izaro Andres musikari mallabitarrek kontzertua eskainiko du, gaur, Zaldibar antzoki kanpoaldean. Uztaileko egitaraua ixteko, Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako Errekan Gora musika jaialdiaren barruko laugarren ekitaldia 22:30ean hasiko da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Doinu goxoez betetako kantuekin etorriko da gaur Izaro Andres musikari mallabitarra Eskoriatzara. Musika intimoa eskainiko du, bere ahots bereziarekin; zalantza barik, bertaratzen diren entzuleak harrapatuko ditu. Emanaldia 22:30ean izango da, Zaldibar antzokiaren kanpoaldean.

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako Errekan Gora musika jaialdiko laugarren emanaldia izango da Izarorena, eta hala emango diote aurtengo edizioari amaiera. Orain arte, Willis Drummond, The Farra Marching Band eta Alai abesbatza izan dira, eta uztaileko egitaraua mallabitarren kontzertuarekin itxiko da. Hala ere, irailaren 15ean, Atxorrotx mendian festa egingo dute. Zopilotes Txirriaus taldea, umeentzako gunea eta beste hainbat musikari izango dira bertan, besteak beste.



Izaro kontzertuan. INFOCOM

Hutsik egin gabe

Ez da lehenengo aldia Izaro Andres musikaria Eskoriatzara datorrena. Izan ere, duela bi urte Inkernu tabernan eskaini zuen emanaldia, eta, izan zuen arrakastarengatik, aurtengo

Errekan Gora egitarauan ezin zuela hutsik egin erabaki zuten antolatzaileek. Hala, gaurko saioan, Izaro bere bandarekin batera izango da oholtza gainean. "Emanaldi ederra aurreikusten dugu, gainera, Zaldibar antzoki kanpoko eremuak oso ondo funtzionatzen duelako. Iaz, El trio de Medianoche taldea izan zen, eta duela bi urte, Maialen Errotabehere, eta bi kontzertuak oso ondo egon ziren. Gainera, eguraldi txarra badugu, antzokia ere bertan izango dugu, aterpea behar izanez gero".

Bi diskoetako kantak eskainiz

Om eta Eason diskoetako kantuak eskainiko ditu Izarok, eta, harekin batera, Oriol Flores, Iker Lauroba, Julen Barandiaran eta Garazi Esnaola musikariak igoko dira oholtzara. *Eider*, *Tu escala de grises*, *La Felicidad*, *Koilarak*, *Paradise*, *Honey* eta halako kantu bikainak eskainiko ditu Izarok.



JULEN FORNIES

Aresko udako campusa

Aresko saskibaloia taldeak antolatuta, udako campusean izan dira astebetez hainbat gaztetxo. Astelehenean hasi ziren, eta, saskibaloia oinarri izanda, joko, irteera, eta jolas ezberdinak egiten aritu dira 9 eta 13 urte bitarteko haurrak. Hala, guztira, 20 haur izan dira campusean, Gasteizko bi entrenatzailearen eta Eskoriatzako beste biren gidaritzapean.

'Paper margotuak' erakusketa zabalik izango da abuztuan

Ibarraundin dagoen *Paper margotuak*. Ganuza etxeke ezkutuko altxorra izeneko erakusketa ikusteko aukera izango da abuztuan. 10:00etatik 13:00etara bitartean, 13tik 17rako astean izan ezik, itxita egongo baita museoa.

Ganuza etxeke bi gelatako hormetan XIX. mendeko paper margotuak daude, Napoleonen garaian Frantzia sortutakoak (1812-1814) eta munduan bakar egiten dituzten ezaugarriak dituztenak. Ezaugarriak azaltzeko eta paper horien garrantzia ezagutzera emateko antolatu dute erakusketa, paperen zaharberitze prozesua adierazten duena, besteak beste.



Iaz, Gatzagako jaietan egindako herri bazkaria. GOIENA

Andramari jaietarako prestakizun lanetan ari dira

Otxandiokoei ongietorria herrian egingo diete, eta bolo txapelketan emakume gehiago batzea nahi dute

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatzagako jai batzordea burubelari ari da irailaren 7tik 9ra bitartean ospatuko dituzten Leintz Gatzagako Andramari jaiak antolatzen. Dagoeneko azken ukituak ematen ari dira jaien egitarauari udal ordezkari eta herritar talde bat, eta aurten ere ekintza ugari izango dituzte Debagoieneko herri garaieneko jaietan.

Adin guztiei zuzendutako orotariko ekintzak izango dituzte; ez dira faltako urteroko rock kontzertuak, ezta herri kirolak ere, eta Otxandiokoak ere etorriko dira, oinez, Gatz Bidea eginez. Honez gain, aspaldiko ohitura den bolo txapelketa izango da, eta, haurrentzako ekintza ezberdinez gainera, iaz arrakasta handia izan zuten kintoen arteko jolasak ere izango dira; aurten hirugarren aldiz egingo dituzte horiek.

Abuztuan ere egongo da aukera Gatz Museoa bisitatzeko

Leintz Gatzagako udal bulegoak itxita egongo dira abuztuaren 13tik 17ra bitartean. Hala ere, abuztuko beste egunetan, ohiko ordutegian egongo dira zabalik. Hau da, 09:00etatik 14:00ak arte. Gizarte zerbitzuak, aldiz, martitzenetan egongo dira zabalik, 09:00etaik 14:00etara bitartean.

Gatz Museoa, bestalde, zabalik egongo da abuztuan zehar, eta

Antolaketa lan ona

Juanito Bengoa Gatzagako alkateak adierazi duenez, ez da herritar askorik gerturatu jaien antolaketara, baina izandakoek oso lan ona egin dute: "Uste baino parte-hartze txikiagoa izan da jaiak antolatzeko garaian. Hala ere, etorri direnak ideiekin eta gogoz etorri dira. Datorren urtera begira, parte-hartzea handiago izatea nahiko genuke, aurtengo ilusioaz... baina pozik gaude egindako lanarekin".

Urterokoari jarraituz

Berritasun batzuk ere izango dituzte jaietan: "Bolo-jokoan emakumezko gehiago izatea nahiko genuke, eta, herriko hainbat emakumek eskatuta, ikastaroa emango diegu animatzen direnei. Bestalde, Otxandiokoeren etorreran, ongietorria Dorletan egin beharrean, herriko sarreran egingo diegu aurten".

bisita gidatuak jaso nahi dituenak erreserba egin beharko du. Horretarako, 943 71 47 92 telefonora deitu beharko da edo mezu bat bidali beharko da reservas@gatzmuseoa.com helbidera. Bisita martitzenetik domekara arte izango dira; 12:00etan gazteleraz eta 13:00etan gazteleraz. Dorleta Sattutegia bisitatzeko, bestalde, alde zuzenean egin beharko da erreserba, eta hamar pertsonatik gorako taldea osatu beharko da -kasu honetan ere, martitzenetik domekara arte-.

Galbidean zegoen eremua abian jartzeko adostasuna

Udalbatzak aho batez onartu zuen, asteleheneko osoko bilkuran, Gureak taldeak Candy zeneko eremu osoa jabetzan hartzeko hirigintza hitzarmena; jarduera industrialaz gain, erabilera komertziala ere izan dezan plan berezi bat garatuko du Udalak aurrerago

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako eremu industrial garrantzitsuenetako bat izan da urteetan zehar Candy zena, eta Italiako enpresak porrot egin zuenetik galbidean zegoen eremua berreskuratzeko urrats "oso garrantzitsua" egin zen asteleheneko osoko bilkuran. Izan ere, udalbatzak aho batez onartu zuen Gureak taldea eremu horretan kokatu ahal izateko hirigintza hitzarmena.

20.000 metro koadroko eremua

Udal Gobernuarendako, inportantea zen jabe bakar bati bideratzea 20.000 metro koadro inguru hartzen duen gunehori, eta pozik azaldu dira, jabe hori Gureak izango delako. "Poligono osoko urbanizazioa eta kudeaketa hartuko du bere gain Gureak-ek, gizarteratze prozesuetan garrantzi handikoa den enpresa. Hitzarmen honi esker ahalbideratuko dugu galbidean zegoen herriko enpresa sare oso garrantzitsu bat berreskuratzea. Kopapen onena duen gure gunehori industrial onena martxan jarriko dugu horrela", dio Elena Lete alkateak. Hitzarmenari esker, Udalak erabilera publikorako eremu bat berreskuratuko du, eta bertan, besteak beste, apartakaleku batzuk jartzea da asmoa.



Gureak taldea Candy zenaren eremu osoaren kudeaketaz arduratuko da. ENEKO AZKARATE

Erabilera komertziala mugatzea

EH Bilduk uste du Gureak etortzea positiboa dela, baina, osoko bilkuraren aurretik, Gobernuarekin erabilera komertziala mugatzeko aldaketa bat adostu zuen. "Erabilera komertzial hori gauzatzen den moduaren arabera, herriko komertzio txikian eta ertainean eragin negatiboa izan dezake eta hori ekiditeko konpromisoa eskatu diogu Gobernuari plan berezia garatzen duenean", esan zuen EH Bilduko Gorka Artolak. Gureak-ek egungo espazio faltari aurre egitea

eta jarduera ekonomikoa handitzea du helburu Bergaran egonkortzearekin, eta lehen faseko lanak amaitzeaz dituzte 5.130 metro koadroko pabiloian; 70 bat langile arituko dira lanean bertan irail erdialderako, eta 2020rako pabiloi berri bat eraiki gura dute, "egoera txarrean" dagoen gaur egungoa bota ostean. 2020ra arte, ekipamendu eta makineria berrietan 1,8 milioi euroko inbertsioa egingo dute. "Etorkizunarako pauso oso garrantzitsu bat da guretzat", dio Gureak-eko Jose Ignacio Galarragak.



Uztailko osoko bilkuraren une bat. JOKIN BEREZIARTUA

Azterketa sozioekonomikoa berritzera

750. urteurrenaren bueltako sustapen mahaiak proposatuta, azterketa sozioekonomikoa egingo du Udalak. Azken azterketa Siadeco enpresak egin zuen, 70eko hamarkadan, adituek goraiatu izan dutena. Bada, azterketa horrek eguneraketa bat behar duela deritza Elena Letek: "Sumatzen ari gara gauzak aldatzen ari direla. Enpresak inbertsionetan daude, azkenaldian ez bezala. Guk lagundu egingo diegu tramite guztietan". Irabazik atera zuen gaia osoko bilkuran, pleguetan ingurumen ikuspegia txertatzeko eskatuz, baina Gobernuak ez du irizpideen artean sartu. "Gure ustez, oso herren geratuko da azterketa hori", esan zuen Aiert Lizarralde. EH Bilduk ere uste du pleguetan gero eta ezaugarri gehiago sartuz gero azterketa osatuago geratuko dela; horren harira, alkateak esan zuen "adostasunaren bidetik" joateko asmoa dutela eta gai hori batzordean landu behar dela.

Euskararen gaineko kezka

Bestalde, osoko bilkuran EH Bilduk kezka azaldu zuen Udaleko kanpo zein barne komunikazioan azkenaldian euskarari eman zaion tratamenduagatik: "Agorrosinen arkeologia ikastaro bat gaztelaniaz egin da eta umeei diploma bat gaztelania hutsean banatu zitzaizen, adibidez. Halako input batzuk jaso ditugu azkenaldian, eta, horregatik, komeni da Udalean hizkuntza politikaren gaineko hausnarke-ta bat egitea", dio Agurne Barrusok. Amaitzeko, Irabazik herri-

ko bi familia etxetik kaleratuak izateko arriskuan daudela jakinarazi zion udalbatzari, eta gobernuari eskatu zion epaiketaren aurretik gaiari heltzeko: "Larri gaude eta Gobernuari eskatzen diogu etxe kaleratzeen protokoloa behin betiko onartu dezala".

IRAIL ERDIALDERAKO, PABILOI BERRIAN 70 BAT LANGILE MARTXAN IZANGO DITU GUREAK-EK

Irailaren 28an egingo da 750. urteurrenako kontzertu berezia

Ekainaren 29rako gonbidapenek ez dute baliorik izango eta berriak irailaren 20an banatuko dira, Seminarixoan

J.B. BERGARA

Ekainaren 29an ekaitz arriskuegatik atzeratu behar izan zuten "kontzertu errepikaezina" irailaren 28an egingo da. San Martin plazan izango da; euria egingo balu, irailaren 29ra atzera-

tuko litzateke eta egun horretan eguraldi onarekin plazan egingo litzateke kontzertua eta euria egingo balu, berriz, frontoian.

Ekainaren 29rako eskuratutako gonbidapenek ez dute baliorik izango, arrazoi bategatik:

Udal Pilotalekuan ezin dira sartu San Martin plazan beste pertsona, eta banatutako sarrerak San Martin plazaren eserleku kopuruaren arabera izango ziren. Hortaz, iraileko ikuskizunarako, gonbidapen berriak hartu beharko dira hilaren 20an, eguena, Seminarixoko txarteldegian, 18:00etatik 20:00etara. Pertsona bakoitzak, gehienez, sei gonbidapen eskuratu ahal izango ditu. Gonbidapenak zenbakituak izango dira. Ordurako, Udalak eta eragileak kalkula-



Ekaineko entsegetako bat. GOIENA

tuta izango dute zenbat eserleku jarri ahal izango diren ikuskizun horretan Udal Pilotalekuan. Eta gonbidapenen kopuru hori banatuko da egun horretan. Aldiz, eguraldiak lagunduko balu eta ikuskizuna San Martin plazan egingo balitz, bezperan gonbidapen gehiago banatuko lirateke, San Martin plazako edukiera bete arte. San Martin plazan 800 aulki jarriko lirateke, sarrerak berberak izanda, baina eserlekuak ez lirateke zenbakituak izango.



Seminarioko patioko karpan puzgarriak eta askotariko jolasak izan zituzten udalekuetako hirugarren astearen barruan. JARDUN

"Izugarri" gozatu duten ume gehiago udalekuetan

Udako eskaintzaren barruan, aurten 830 ume eta gaztetxok hartu dute parte: 507 udaleku irekietan, 302 kirol ekintzetan eta 22 kanpamentu teknologikoetan; Udalak 51.031 euro gastatu ditu "aisialdi hezitzailean" oinarritutako ekimenok antolatzen

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergaran ere ezin daiteke uztaile udaleku eta udako eskaintza barik ulertu eta Udalak dagoeneko egin du aurtengoak eman duenaren gaineko balorazioa. Aurten ere "aisialdi hezitzailean" berrantolatuko eta lanaren eta familiaren arteko kontziliazioa errazteko helburua zehaztu du Udalak aurten. Udako eskaintzaren bueltan antolatutako ekintzetan 830 ume eta gaztetxo aritu dira, iaz baino bost gehiago, hain zuzen ere: 507 udaleku irekietan, 302 kirol ekintzetan eta 22 kanpamentu teknologikoan. Umeak zein gaztetxoak "izugarri" gozaten aritu direla nabarmendu dute Udaleko ordezkariak.

51.000 euroko gastua aurten

Umeek eta gaztetxoek orokorrean gozatu ederra hartu dutenez, Udalak, begiraleek esandakoetan oinarrituta, balorazio positiboa egin du aurtengo udako eskaintzaren gainean. Ekitaldi horiek guztiek Udalari ekarri dioten

Bisita gidatuak turistendako

Abuztura begira, turismo eskaintzarik ez da faltako aurten ere. Abuztuaren 31ra bitartean egunero bisita gidatuak izango dira 11:00etan eta 12:30ean. Bi motatako bisitak izango dira: herri monumentala bisitatzeko bisita erdigunean barrena eta Laboratorium museoan zehar antolatzen direnak. Euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez egin daitezke bisitok eta komeni da alde zuzeneko abuztuaren zabalik egongo den Laboratoriumean izena ematea: 943 76 90 03 edo turismoa@bergara.eus.

gastuari dagokionez, honako kopuru hauek zehaztu dituzte: gastua, guztira, 112.328 euro izan da eta sarrerak, berriz, 61.297 euro. Horrenbestez, Udalarentzat 51.031 euroko gastua ekarri du udako eskaintzak. Iazko datuekin alderatuta, gastua jaitsi egin du Udalak; izan ere, 2017ko udalekuen gastua 114.958 euro izan zen eta sarrerak, 44.673 euro.

Ur jolasen proiektuan eragiten

Udaleku irekietan 507 ume hartu dute parte aurten eta hirugarren astean hiru taldek aukera izan zuten Udalaren proiektuetako batean zuzenean eragiteko. Izan ere, Udalak 2019ko udarako martxan izatea aurreikusita duen Agorrosingo igerilekuetako ur jolasen guneko txorrotu gustukoak aukeratu ahal izan zituzten umeek. Udalak irailerako proiektu osoa idatzita izango du eta lanei udazkenean ekitea dago aurreikusita. Aurrekontua osoa 160.000 euro da.

GORA ETA BEHERA



B.U.

Taxi-telefonoa lapurtu eta apurketak eragin



Ezezagun batzuek taxi geltokiko telefonoa lapurtu eta bertako kristala, ateko sarraila eta txirrina apurtu zituzten. Udalak azpimarratu du halako jokabideek ez dutela lekurik Bergaran.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

1.000 bat lagun espero dituzte bihar Real-Osasuna partidurako

Asier Garitanok eta lagoba Arrasatek zuzentzen duten taldeen arteko lagunarteko partidua 18:00etan hasiko da

J.B. BERGARA

Bergarak hiri-gutuna jaso zuela 750 urte bete direla gogoratzeko ekitaldien barruan, Realak eta Osasunak lagunarteko partidua jokatu dute bihar, uztailak 28, Agorrosin futbol zelaian (18:00). Futbolzaleek aukera ederra izango dute 2018-2019 denboraldia prestatzen hasi berri diren bi taldeak bertatik bertara ikusteko. "Herrian bertan Realak ikusteko aukera izatea ez da gauza erraza eta zale askorengan ilusioa piztu duen partidua da. Are gehiago, aulkian

entrenatzailea [Asier Garitano] eta analisi teknikorako ardura-duna [Beñat Labaien] bergararrak izanda; egun berezia izango da eurentzat ere, ziur", adierazi dute BKEko ordezkariak.

Aste barruko sarreraren salmenta ondo joan dela adierazi dute antolatzaileek eta bihar Agorrosin 1.000 bat lagun elkartuko direla espero dute; partidu aurretik leihatilan erosi ahalko dira sarrerak. Nagusiek 20 euro ordaindu beharko dute, gazteek 15 euro eta umeek zein klubeko jokalariek 10 euro.

OHARRAK

Udal zerbitzuen abuztuko ordutegiak

Udaltzaingoa egunero egongo da zabalik 06:00etatik 22:00etara; gizarte zerbitzuak astelehenean egubakoitzera (08:30-13:30) egongo dira zabalik; udal txerretako harrera, astelehenean egubakoitzera (08:30-13:30); hirigintzako zerbitzua, astelehenean egubakoitzera (08:00-14:00); Agorrosin egunero egongo da zabalik (09:00-20:55); Labegaraieta itxita egongo da abuztuaren 6tik 19ra eta gainontzeko egunetan 09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 22:30era egongo da zabalik; Udal Pilotalekua itxita egongo da abuztuaren 6tik 31ra eta hilaren 6ra arte 10:30etik 22:30era egongo da zabalik; Udal Artxiboa astelehenean egubakoitzera egongo da zabalik 08:30etik 15:00etara eta Udal Liburutegia abuztuaren 1ean, 2an eta 3an (08:30-13:30) eta 27tik 31ra (08:30-13:30) egongo da zabalik.



Realarekin lankidetzan, Izaskun Larzabal arkitekto taldearen Agorrosin berrirako aurre-proiektuaren ilustrazioetako bat. IZASKUN LARZABAL



Agorrosin futbol zelaia –lehen planoan– eta Ipintzako zelai artifiziala, zerutik ikusita. I.L.

Mahoa berritzeko behar gorria dute

Agorrosin berritzeko proiektuak ez du oraindik finantziarako konpromiso ofizialik, baina BKEren eta Udalaren arteko jabetza aldaketarako akordioa "inoiz baino gertuago" dago, bi aldeen arabera; aurre-proiektuko hiru faseetarako aurrekontu osoa 1.670.069 euro da



1920ko hamarkadarako egun Agorrosin dagoen lekuan bazegoen futbol zelai bat. BKE

Jokin Bereziartua BERGARA

Aspaldikoa da Bergara Kirol Elkartek jabetzan duen Agorrosin futbol zelaia Udalarik laga eta bertan Bergararendako "beharezkoa" den proiektu integral bat egitearen ideia. Azken 30 urteetako alkateen edota udal gobernuen eta BKEren artean ez da adostasunik lortu bereziki jabetza aldaketaren baldintzen inguruan, eta horregatik ez da proiekturik burutu.

Hala ere, esan daiteke lehen aldiz bi aldeak Agorrosin berria egiteko sintonia berean daudela, eta halaxe kontrastatu ahal izan du azken egunotan GOIENAK, proiektuaren bueltako protagonista esanguratsu batzuekin egon ostean. Hortaz, esan daiteke gaur egun inoiz baino gertuago dagoela jabetza aldaketa hori eta, beraz, Agorrosin berria martxan jartzeko prozesua.

Baldintzak eta finantziak

Agorrosin berriak jabetza aldaketarako adostasuna inoiz baino gertuago egonda, finantziak izango da erronka nagusia Agorrosin berria errealitate izan dadin. Izan ere, Anoeta berrirako proiektua diseinatu zuen Izaskun Larzabal arkitekto taldearen aurrekontu estimazioa 1.670.069 euro da –BEZa barne–.

Udalak oraindik ez du zehazterik izan noraino lagundu ahal duen ekonomikoki proiektu horretan eta Diputazioak urtero kirolaren arloan izan ohi du diru-poltsa bat kirol instalazioak berritzeko, baina ezin da ahaztu Labegaraieta 2019an eta 2020an zehar berritzeko ia 600.000 euro bideratuko dituela Aldundiak. Gipuzkoako Federazioan galdetuta, diote gaur-gaurkoz ez dagoela dirurik, baina Espainiako Federazioaren

bitartez "aukera ona" izango litzateke, hilabete batzuek bertako presidente izan den Juan Luis Larrearen arabera, kiniekin zergetatik datorren diru kopuru bat aprobetxatzea. Aukera hori hor dago, zortzi urtez BKEko presidente izan den Iñaki San Josek erraza izango ez dela aurreratzen duen arren.

Zelai artifiziala jartzeko joera

Finantziak lortzea lan zaila izango bada ere, gaur egungo BKEko zuzendaritzak argi duena da futbol sailean duten jokalarikopurua ikusita –2017-2018 den-

TOKI FALTA ETA MANTENTZE KOSTU HANDIA DIRA ARRAZOI NAGUSIAK AGORROSIN BERRIA EGITEKO

boraldian 325 mutil eta 105 neska aritu dira BKEko futbol sailean barruan– ez dutela lekurik harrobia behar den moduan lantzeko: "Leku falta handia dugu eta behar horrek eraman gintuen irtenbideak bilatzera; horren erabilera txikia duen eta klubarendako horren gastu handia dakarren zelai bat mantentzeak ez du zentzurik", dio Iosu Elorza presidentek.


Ondorio horretara heldu dira Gipuzkoako futbol klub gehienak eta belar naturala artifizialarekin aldatzearena joera nabarmena izan da Gipuzkoan azken urteetan. Izan ere, gaur egun, oso gutxi dira martxan dauden belar naturaleko zelaiak. Zarautz, Azpeitia, Azkoitia, Tolosa, Irun, Hondarribia eta Bergara dira, gaur-gaurkoz, Realaren eta Eibarren futbol zelaiak harago, belar naturalekoa mantentzen

dutenak, eta Bergara da kasu bakarra zelaia osorik dela klubaren jabetzakoa.

Zelaiaren hondoratzea


Jokalarik guztiei behar den moduko entrenamendu saioak eskaini ahal izateko leku faltaz harago, Agorrosin futbol zelaiak beste arazo bat dauka lur azpian. Garai bateko igeltsu-meatzak daude bertan eta ondotik pasatzen den Deba ibaiak eragindako filtrazioek –urak lurra mugitzen du– hondoratzeak eragin dituzte futbol zelaietan. Azken adibide aipagarria 2015eko abuztuko da; zelaietan zulo handiak egin zen eta futbol talde nagusiak Ipintzan jokatu behar izan zuen zenbait jardunalditan. Hori baino larriagoa izan zen BKEk 3.000 euro inguru gastatu behar izan zituela zelaia berriro ere erabilgarri jartzeko. Zelaiko ipar-ekial-

Agorrosin berriaren zirriborroa



Aurre-proiektuaren plano honetan kolorez berezituta ageri dira hiru faseak. I.L.

Hiru fase Lehen fasean –gorriz–, belar naturaleko zelaia artifizialarekin aldatuko litzateke, 693.232 euroko aurrekontuarekin. Bigarren fasean –laranjaz–, harmaila berriak eta azpian aldagelak eraikiko lirateke, eta aurre-proiektuaren estimazioa 401.088 euro da. Hirugarren fasean –berdez–, BKEren egoitza berria eta kantina joango lirateke, eta 285.902 euro bideratzea aurreikusten da. Hiru faseak gauzatzeko izaskun Larzabalen aurrekontu estimazio osoa 1.670.069 euro da, BEZa barne.



Goian, harmailak, egoitza eta kantina; behean, harmailak alde batetik ikusita. I.L.


Harmaila eta aldagela berriak Bigarren fasearen barruan dago aurreikusita egungo harmailak bota eta berriak eraikitzea. Goiko irudian ikusten denez –Agorrosindik begiratuta–, harmaila berriak, BKEren egoitza berria eta kantina elkarren ondoan daude kokatuta. Beheko ilustrazioan, berriz, ikusten da aldagela berriak harmailen azpian joango liratekeela, gaur egun erabiltzen diren aurrefabrikatutako aldagela horiei behin betiko izaera emateko.

deko zatia da kaltetuena eta aurre-proiektuan jasotzen da azterketa geotekniko bat egin beharko litzatekeela arazoari soluzio bat emateko.

Horrez gain, instalazioek ere berritzeko beharra dutela dio BKEk; aldagela aurrefabrikatuak dituzte eta gaur egun Agorrosin ez dago argindarrik. Beraz, ezin da entrenamenduetarako erabili eta partiduak ere egun argiz jokatu behar izaten dira; horregatik negu partean partiduak oso goiz jokatu behar izaten dituzte nahitaez.

Realaren aholkularitza teknikoa BKEk hasieratik izan du ondoan Realaren aholkularitza teknikoa. Finantziarioarena da inkognita nagusia, baina BKEko presidentek Iosu Elorza sinistuta dago proiektuak aurrera egingo duela: "Oraingoz, ez dugu ezer ofizialik, eta eragile inplikatuak konpromiso maila norainokoa izango den jakiteko zain gaude. Hala ere, espero dugu 2022ra arteko epealdian proiektua ia amaituta uztea. Gure helburua da Agorrosin berrirako obrak lehenbailehen hastea".

Proiektuaren bueltako sei ikuspegi



ELENA LETE
BERGARAKO ALKATEA

"Zailtasunak aztertzeo elkarrekin ari gara lanean"

Proiektuaren zehaztasunen gainean aurrerago egin behar da berba, alkatearen arabera: "Orain zabaldu beharreko mezua da Udalak eta BKEk asmo zintzo eta zuzena dutela jabetza aldaketaren baldintzen inguruan ados jartzeko. Urteetan heldu nahi izan dute Udalak eta BKEko futbol sailak adostasun batera, baina ez da posible izan. Orain, mahai baten bueltan gaude elkarrekin lan egiteko prestutasunez. Agorrosin Berrirako bidean aurkitu ahal izango ditugun zailtasun juridikoak eta ekonomikoak zeintzuk izango diren aztertzeo lanean ari gara. Enpresa baten laguntza ari gara jasotzen".



IOSU ELORZA BERGARA KIROL ELKARTEKO PRESIDENTEA

"Kirol jardueretarako 4.000 m2 irabaziko lirateke"

2022ra arte BKEko presidente izango den Iosu Elorzaren taldeak Agorrosin berria du begiz jota: "Ez du zentzurik 15 egunean behin partidu bat jokatzeko belar naturala mantentzea, klubarentzat gastu handia dakarrela jakinda. Gainera, behin-behineko aldagelak kentzea eta finkoak ipintzea komeni da, eta baita eremu osoa txukun jartzea ere. Herriak eremu ezin hobean kirol ekipamendurako ia 4.000 metro koadro irabaziko ditu, eta, futbolaz gain, beste kirol jarduerak askok izango dute lekua bertan. Finantziariorako, Udalarekin, Aldundiarekin eta Federazioarekin ari gara lanean".



IÑAKI SAN JOSE BERGARA KIROL ELKARTEKO PRESIDENTE OHIA

"Partxeak jarri ordez, ordua da gune osoa txukun uzteko"

Zortzi urtez BKEko presidente izan zen eta azken 30 urteetan Federazioko zuzendaritzan ari da Iñaki San Jose: "Dirua, jabetza aldaketaren baldintzak eta faseak ondo lotuta uztea dira erronkak. Azpeitian belar naturala kendu beharrean beste artifizial bat egin zuten ondoan. Lekua badago Agorrosin, baina akordioak behar dira; baserriarekin, esaterako. Inbertsioa handiagoa da, baina beti partxeak jartzen aritu gara, eta ordua da gune osoa txukun uzteko. Lehenengo, zelaia aldatu, eta gero, beste guztia... ez dut ikusten. Askotan saiatu da BKE Udalarekin akordio batera heltzen, baina orain arte ez da lortu".



IZASKUN LARZABAL ARKITEKTOA (AURRE-PROIEKTUAREN EGILEA)

"Bideari ekiten hasteko lehen urratsak egiten hasi dira"


Anoeta berriarekin buru-belarri ibiltzeaz gain, Agorrosinerako aurre-proiektu bat prestatu zuen Izaskun Larzabalen taldeak. "Gaur egungo instalazioak Bergarako futbol eszenak dituen beharretara egokitzeaz gain –ezin da ahaztu gero eta talde gehiago daudela, besteak beste, nesken futbolaren bultzadagatik–, onura handiak ekarriko dizkio herriari. Urteetan zehar egingarria izan dadin hiru fase proposatu ditugu. 1,7 milioi euroko aurrekontu-estimazioa dugu eta eskuduntza duten administrazio publikoetan eta Federazioan aurkeztuta dago; bideari ekiten hasteko lehen urratsak egiten hasi dira".



JOSEBA IBARBURU REALEKO ZUZENDARITZA TALDEKO KIDEA

"Proiektu handia da, baina erabaki zuzena hartu dute"

Harrobia ondo landu ahal izateko "ezinbestekoa" dela sinetsita, Reala Agorrosin berriaren bigarren mailako sustatzailea da. "Aholkularitza teknikoa eskaini diogu BKEri, Izaskun Larzabalen aurreproiektuaren bidez. Esango nuke zehaztasun maila itzela duela". Finantziarioarena Realaren ardura ez dela dioen arren, BKEri harremanak egiten lagundu dio Reala: "Arlo ekonomikoa udalen, Federazioaren eta Diputazioaren artean landu izan da halakoetan, eta Madrildik etorri izan da dirua kinieletako poltsatik. Hau proiektu handia da eta hiru fasetan dago planteatuta horregatik; baina erabaki zuzena da", gaineratu du.



JUAN LUIS LARREA GIPUZKOAKO FEDERAZIOKO PRESIDENTEA

"Kinieletako diru-poltsan egon daiteke aukera on bat"

1987tik Gipuzkoako Federazioko presidente denak begi onez ikusten du Agorrosin berria: "Horrenbeste neska-mutikorekin beharrezkoa da zelai artifiziala jartzea. Gipuzkoako Federazioak ez du dirurik egun, baina Espainiakoan egon daiteke. Kinieletako apustuaren portzentaje bat futbol zelaietarako bideratu izan da –Gipuzkoara diru askotxo ekarri izan dugu hortik– eta hor aukera on bat dago. Baina eskatu egin behar da, eta Federazioa gertu dago BKEri hori nola egin azaltzeko. Horrez gain, Realak eta Eibarrek diru asko ordaintzen dute zergetan, eta, beraz, Diputazioak ere dirua bideratu beharko luke".

"Niretzako, bizi izateko modu bat da musika"

ANDONI MOÑUX MUSIKARIA

Amsterdameko kontserbatorioan dabil goi mailako tuba ikasketak egiten bergararra. Abuztua partitura artean pasako du, bi orkestrarekin jotzeko hautatua izan da eta

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA

Andoni Moñux gazteak kontzertuz kontzertu pasako du abuztua. Izan ere, "esperientzia aberasgarria" bizi izango du: Herbehereetako National Jeugd Orkestrarekin eta Lucernako jaialdiko akademiaren orkestrarekin (Suitza) ibiliko da biran.

Bi orkestrarekin parte hartzeko aukeratua izan zara. Nolatan?

Bai; egiten nabilen ikasketetan, ohikoa da orkestrerarako audiozioak egitea. Egin nituen orkestra hauetan parte hartzeko probak, eta aukeratua izan naiz.

Nolakoa izango da zure uda?

Orain, Florentzian nago, nazioarteko ikastaro bat egiten. Amaitutakoan, Amsterdamera itzuliko naiz eta hango orkestrarekin kontzentrazio estiloko bat egingo dugu. Astebetez eguneroko entseatuko dugu eta ondoren hainbat kontzertu eskainiko ditugu. Abuztuaren 15etik irailaren 15era bitartean Suitzan izango naiz. Lucernakoan proiektu ezberdinak izango dira: proiektu bakoitzak bere zuzendaria izango du eta proiektu bakoitzarekin kontzertuak eskainiko ditugu. Lucernako orkestrarekin egongo gara Hanburgon, Parisen eta Berlinen.

Esan behar da musika estilo ezberdinak direla bi orkestra horienak.

Bai; Herbehereetako orkestraren errepertorioa tradizionala dela esan daiteke. Jotzen dugu XIX. eta XX. mende hasierako errepertorio erromantikoa. Lucernako orkestra, berriz, errepertorio modernoan espezializatuta dago: XX. mendeko piezak eta gaur egun sortzen direnak jotzen ditugu.

Nolakoak dira entseguak, kontuan hartuta bi zuzendari ezberdin direla?

Lan egiteko modu ezberdinak dituzte. Herbehereetan zuzendari bakarra dugu, eta errepertorio tradizionala entseatuko dugu. Lucernan, aldiz, hiru



Andoni Moñux, tubarekin. FACEBOOK

"HANBURGON, PARISEN ETA BERLINEN ESKAINIKO DITUGU KONTZERTUAK ORKESTRAREKIN"

zuzendari izango ditugu, proiektu bakoitzean bat. Horrez gain, Londresko Orkestra Sinfoniko zuzendaria ere etorriko da, eurekin batera eskainiko dugu eta kontzertu bat. Lan egiteko metodo ezberdinak dira, eta, gainera, Herbehereetako orkestran, batez ere, Europako musikariak daude eta Lucernakoan, mundu osokoak.

Amsterdamen diharduzu; goi mailako ikasketak egiten?

Donostiako Kontserbatorioan erdi mailako ikasketak egin ondoren, 2015ean hainbat proba egin nituen eta Amsterdameko kontserbatorioan ikasteko aukeratua izan nintzen. Goi mailako gradua egiten nabil, hiru ikasturte egin ditut eta azkena geratzen zait.

Ondoren, zer?

Master bat egin gurako nuke. Gustatuko litzaidake Suitzara

joatea, Zurichera. Hortaz, datorekin ikasturtean tokatuko zait helburu hori lortzeko lan egitea.

Zer da musika, zuretzako?

Bakoitzak bere kontzeptua izan dezake, baina, niretzako, musika da bizitza ikusteko modu bat eta bizi izateko modu bat.

Zuen ama zein den kontuan hartuta, ezinbestekoa zen musikaria izatea?

Bai; ama musikara dedikatzen da eta beti izan dugu hor, txikitatik ibili da guri musika potentziatzen. Gainera, beti ikusi izan dugu etxean kantuan edo instrumenturen bat jotzen. Animatu egin gaitu musika ikastera. Beti egon izan da gure etxean musika.

Biolina, gitarra, tuba... zenbat instrumentu jotzen dituzu?

Musikaria izanda, ez da zaila beste instrumentu batzuk jotzea. 3 urterekin biolina ikasten hasi nintzen, 7rekin tuba, pianoa eta gitarra ikasi nuen... eta abestu ere egiten dut.

Andoni does Rock n' Roll atalean dituzu zure bideoak.

Bai, abesten edo gitarra jotzen egiten ditudan bideoak igotzen ditut Youtuberan. Pop eta rock abestiak izaten dira.



Ikusgai egongo den argazkietako bat. JAVIER ORTIZ

'A rapa das bestas' erakusketa zabalduko dute abuztuaren 31n

Javier Ortizen erakusketaren aurretik, Bergarako kirolaren historia ikusteko aukera egongo da

A.E. BERGARA

Abuztuaren 31n, Javier Ortiz argazkilari tolosarraren *A rapa das bestas* argazki erakusketa jarriko dute ikusgai Aroztegi aretoan.

Sabucedon (Pontevedra), La Estrada udalerrian, uztaileko hiru egunez urtero ospatzen den festaren izena da *A rapa das bestas*. XVIII. mende hasieran jaso ziren festaren gaineko lehen datuak; zaldiak, behorrak eta moxalak menditik jaitsi eta markatu egiten zituzten.

Ospakizuna

Ospakizuna ere hori bera izaten da: mendian libre bizi diren zaldiak, behorrak eta moxalak elkartu, menditik jaitsi, *curro* izeneko itxitura batean sartu, zurdak moztu eta markatzea. Aldi berean, festa hori haur izatetik gazte izaterako lehen pausoa izaten da; izan ere, na-

gusien laguntzarekin, lehen aldiz obatu dute moxal bat haur horiek.

Bada, erakusketak aipatutako jaiaren hartutako argazkiak erautsiko ditu; guztira, 60. Abuztuaren 31tik irailaren 16ra egongo da zabalik.

Bergarako kirolaren historia

Ortizen erakusketaren aurretik, Bergarako kirolaren historia jasotzen duen erakusketa egongo da ikusgai Aroztegin. Ekainean eta uztailean zehar Agorrosinen egon dena, hain zuzen.

Abuztuaren 3tik abuztuaren 26ra bitartean egongo da erakusketa zabalik. Iñigo Zaitegi eta Pili Arin buru-belarri ibili dira erretratuak aukeratzeko eta identifikatzeko lanean. Erakusketak 62 argazki jasotzen ditu, iraganaren lekukotza ederra eskaintzen dutenak; betiere, kirolaren ikuspegitik.

Welma Powell & Bluedays bandaren emanaldia, Espoioan

Ameriketako Estatu Batuetako artistak Bluedays taldearekin batera jardungo du, Berumuga zirkularen barruan. Gaur izango da, Espoioan, 22:00etan. Bi LP ateratu dituzte: *Step into the blues* (2015) eta *Blues to the bone* berria. Bigarren lanean, Chicagoko blues elektrikoa da nagusi. Abesti hunkigarriak eta esanahi handikoak eskainiko ditu.

'Babo Royal' kale antzerkia abuztuaren 2an, Santa Anan

Ganso & Cia taldeak *Babo Royal* kale antzerkia eskainiko du hurrengo egunean, abuztuaren 2an. Errotalde jauregian, Santa Ana parkean izango da emanaldia, 19:00etan. 50 metro koadroko inperio bat izango da agertokia, eta han, errege aldartetsu bat eta koblakari berezi bat izango dira protagonistak. Ikusleen parte-hartzea egongo da.

Uda osterako iragarri dute zuntz optikoa

Telefonicak dihardu zerbitzu berria hedatzen Elgetan. Lanak amaitzear dituztela eta egungo hamar megako konexioa gutxienez ehun megakoa izango dela esan dute. Txanponaren beste aldean, Goiena ez dela Movistarren telebista eskaintzan sartzen

Larraitz Zeberio ELGETA

Telefonicak badihardu lanean eta zonako arduradunek jakinarazi dute amaitzear dituztela egokitzapen lanak. Zuntz optikoa sartu dute herriko kaleetan eta kaxa nagusiak instalatu dituzte erdiguneko etxebizitza atarrietan. Adierazi dute gauzak ondo bidean herritarrek hila-bete barru izango dutela zerbitzu berria kontratatzeke aukera. "Gaur egun, 10-20 bat megako abiadura dago Elgetan, eta, zuntz optikoarekin gutxienez, 100 megakoa izatera helduko da", azaldu dute. Industrialdean 300 megako gutxieneko konexioa emateko konpromisoa hartu du Telefonicak.

Zuntz optikoa 2016ko ekainean heldu zen herrira Eusko Jaurlaritzaren ekimenez; izan ere, eskumeneoak dituen herri eskolara, osasun etxera eta KZ-gunera ekarri zuen. Telefonicaren egitekoa izan da zerbitzua industrialdera zein erdiguneko



Langile bat zuntz optikoa sartzan San Roke kalean. I.A.

TELEFONICA JARRIKO DA ERABILTZAILEEKIN HARREMANETAN EGOKITZAPEN LANAK AMAITUTAKOAN

eraikinetara zabaltzea, eta, horretarako, hainbat erakunderen diru laguntzak jaso ditu. Lanak amaitzerakoan, Telefonica jarriko da elgetarrekin harremanetan eskaintzaren berri emateko eta bezeroak egiteko.

"Ezingo da Goiena ikusi Movistarren telebista eskaintzarekin"

OIHANE AGIRRE GOIENAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN ARDURADUNA

Zuntz optikoaren hedapenak aldaketa nabarmenak ekarriko ditu Elgetara. Goienatik ohartarazten dute Movistarren eskaintzak ez dituela tokiko telebistak aintzat hartzen.

Zein da Movistarren kable bidezko telebista eskaintzan Goiena ez sartzearren arrazoia?

Elgetarrekin Goienatik jakinarazi nahi diegu Movistarreko telebistako eskaintzaren bitartez ezin izango dutela Goiena ikusi. Goiena jarri zen harremanetan Movistarrekin, egiten duten telebista eskaintza horretan



GOIENA

Goiena ere sartzeko, baina erantzuna ezezkoa izan da. Ematen duten arrazoia da Espainiako Estatuko tokiko telebista bat bera ere ez dutela eskaintzan sartzen.

Horrek zer esan nahi du? Aurrerantzean ezingo da Elgetan Goiena ikusi?

Kable bidezko telebista eskaintzan, behintzat, ez. Orain arte bezala LTD edo antena bidez ikusi ahal izango da, noski. Seinalea nondik jaso nahi dugun esan beharko diogu, aldiro, telebistari; Movistarreko eskaintza ikusteko kable bidez eta Goiena edo gainerako tokiko telebistak ikusteko LTD bidez. Horrek eskatuko du aldiro iturri modua aldatzea.

Euskaltelen eskaintzan badago Goiena, ezta?

Bai. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Euskaltelek oinarriko eskaintzan sartzen ditu euskarazko tokiko telebistak; tartean, Goiena.

Goibekok irailaren 15erako iragarri du Euskaltzaleen Eguna

Euskaraldia izango dugu gaitzat eta 'ahobizi'-ak eta 'belarriprest'-ak gura ditugu plazaren erdigunean

Goiena komunitatea

Goibeko / ELGETA

Orain bi urte moduan, Euskararen Soka egingo dugu herri-tarren parte hartzearekin eta Arrasateko gaiteroek lagunduta. Oraingoan ere ez dira faltako neska-mutikoendako puzgarriak, Goibeko Euskaltzaleen Topaguneko txosna eta jai giroa.

Euskararen Soka izango da eguneko ekitaldi nagusia. Hala, nahiko genuke euskararen uztaia eskutik eskura iristea plazara. Euskaltzaleen Eguna bat egingo du, gainera, Euskaraldiarekin.

Iaz eskolatik ekarri zen euskararen ardura plazaraino eta aurten Euskaraldia izango dugu gaitzat. *Ahobizi*-ak eta *belarriprest*-ak gura ditugu plazaren erdigunean eta horixe izango da erronka. Euskaraldiaren materiala erosteko aukera izango da, eta izen-ematearen inguruko informazioa banatuko dugu. Bazkaltzeko brasan erretako hegazuza gertatuko digute Kalitatea-ko ordezkariak, eta erromeria, aurten, Drindots taldeak egingo du. Bazkarirako txartelak irailean jarriko ditugu salgai".

Euskara hutsetik ikasteko dinamika, irailetik aurrera

Elgetako Udalak, bestalde, berriro egingo du Herrixa Dantzan egitasmoarekin duen lankidetzaz hitzarmena

L.Z. ELGETA

Elgetan Berbetan dinamika erantzun ona du herrian, eta euskaraz ez dakiten horien gaitasuna ere iristeko egitasmo berria jarriko du martxan Udalak. Mintzalagun taldeak koordinatzen dituen liburutegiko arduradunak egingo du dinamizazio lana, eta, horretarako, igo egingo diote lan jarduna: bost ordu astean.

Erabaki horrekin batera beste hainbat hartu zituen udalbatzak martitzenean egindako osoko bilkuran. Udalak berriro egingo du Herrixa Dantza eki-

menarekin duen hitzarmena. Eta desfibriladore bat erosiko du; 2.000 euroko inbertsioa izango da.

Bolatoki tabernan egindako lanak ere izan ziren hizpide. "Hiru mila euroko aurrekontua genuen, baina osasun inspektzio baten ondorioz egin beharreko lanak handiagoak izan dira. Ia beste horrenbeste jarri beharko da. Sei mila euro, guztira", esan zuen alkateak. Lazkanok jakinarazi du sukaldean aluminiozko plakak ipini direla, eta tabernan lau ganberako barra bat.

Zabalik da irailaren 22ko azokarako izen-ematea

Aurten ere, herrian ekoiztutako produktuen erakusleihu izango da baserriarren azoka, eta interesatuek irailaren 17ra arte dute udaletxean izena emateko. Telefonoz deitu behar dute, 943 76 80 22 zenbakira, edo posta elektronikoa idatzi udala@elgeta.eus helbidera. Barazkiak, edariak, artisau lanak... izango dira azokan.

OHARRAK

Azken barikua

Presoen eskubideak aldarrikatzeke hileroko elkarretaratzea, gaur, 20:00eatn, plazan.

San Roke jaiak

Abuztuaren 16an ospatuko dituzte. Egitaraua prest dute.

Zabaletako jaiak

Abuztuaren 24rako iragarri dituzte sanbartolomeak.



Udal zinegotziak, osoko bilkuran, botatzen. MAIDER ARREGI

Elkarbizitza sustatzeko ekimena, prest udazkenerako

Ohiko osoko bilkuran, Bizikidetzaren batzordea eratzea onartu dute eta 'Elkarbizitza eta memoria partekatu baterantz' proiektuari babesa berretsi diote EH Bilduk eta EAJK. Uholdeek eragindako kalteei aurre egiteko kreditu gehigarria ere onartu dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Uztaileko ohiko osoko bilkuran, dagoeneko abian eta martxa onean doan bizikidetzaren egitasmoari babesa berretsi dio Udal Gobernuak. Hala, EH Bilduren eta EAJKren botoei esker, Bizikidetzaren batzordea eratuta geratu da Udalean. Alderdi Sozialista aurka azaldu da, Jaurilaritzaren horrelako batzorde bat eratuta dagoela argudiatuta.

Aurrera doan proiektua da elkarbizitza eta memoria partekatuarena. Beñardo Kortabarria

Antzuolako alkateak azaldu du ia lanaren erdia eginda dagoela: "Atzera begiratzea, zer gertatu zen eta zergatik aztertzea eta gertatutakoa herritarrek nola bizi izan duten jakitea garrantzitsua da. Izan ere, aurrera

**BIZIKIDETZA
BATZORDEA ERATU
DUTE ANTZUOLAKO
UDALEAN EH BILDUK
ETA EAJK**

begira zer egin erabakitzeke, positiboa da zer gertatu den jakitea. Herritar askorekin berba egin dute proiektua daramaten teknikariek jada".

Txostena, udazkenerako

Ane Alberdi eta Onintza Legorburu ikerlariak daude proiektuaren atzean. Batutako informazio guztia idazten eta hari forma ematen dihardute orain. Lanaren erdia eginda dago eta euren asmoa da urri eta azaro bitartean, udazkenean, emaitza



Liburutegiak izan ditu kalterik larrienak Torresoroako eraikinean. M.A.

Torresoroako kalteen kostua

Torresoroan ere zenbait lan egin dituzte aurrez eta 58.432 euro pasatxoko kostua izan dute premiazko lan horiek. "Liburutegia, eguneko zentroko igogailua, material elektrikoa, telefoniako linea, arotz lanak, liburutegiko eta beheko solairuko garbiketa lan sakonak, behin-behineko liburutegia Eguzki auzoko Udal Gimnasioan jartzea... Gura izan dugu herritarrek ere jakitea Torresoroan aurrez egindako lanek zein kostu izan duten", azaldu du Antzuolako alkateak.

Torresoroa eraikineko lanek, baina, 552.365 euroko kostua izango dute, guztira. Hala ere, Espainiako Ekonomia Ministerioko aseguruaren kontsurtzioak %93 ordainduko duela argitu du Beñardo Kortabarria alkateak. Hau da, 513.699 euro aseguru kontsurtzioak ordainduko du.

antzuolarrei aurkeztea. "Baiezkoak eta ezezkoak" jaso dituzten arren, lan osoa eta plurala izango da. "Gertatutakoaren diagnostika egitea interesgarria da bizikidetzaren bultzatzeko".

Hain zuzen ere, euskal gatazka armatuak herrian nola eragin duen ikertzen dihardute. Zehazki, 1958tik 2011ra bitartean gatazkak Antzuolan izan duen eragina. "Kasu honetan, tarte bat soilik aztertuko da; agian, lehenago hasi beharko luke ikerketak. Baina lan hori egiteko beharra ere egongo da, ziurrenik, eta aukera egongo da", argitu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Kreditu gehigarria

Bestetik, uztaileko ohiko osoko bilkuran, uholdeek eragindako kalteei aurre egiteko kreditu gehigarria onartu dute udal zinegotziek, aho batez. Ia 200.000 euroko kreditua da.

**IA 200.000 EUROKO
KREDITU GEHIGARRIA
UHOLDEEN KALTEAK
AURREZ KONPONTZEN
JOATEKO**

Izan ere, uholdeek bi motatako ondasunak kaltetu dituzte. "Batetik, Torresoroako kalteak daude; bestetik, herri ondasunak -hoditeria, mendi bideak, parkeak...-. Eta hor, hainbat lan egin dira jada: harriak kendu, hoditeria garbitu, mangerak jarri, mendi zatiak konpondu, pistak garbitu... hori eginda dago eta fakturak ordaindu behar ditugu orain. Horrelako lanetan ia 200.000 euro joango zaizkigu", argitu du alkateak.

Baserri bideek, lehentasuna

Kaltetutako baserri bideek konpontzeko lehentasuna dutela dio alkateak. Hala, Arraindaiko, Arluztzikiko, Untzarriko eta Aitzako bideak konpontzeko ia 96.000 euro bideratuko dituzte. Antiguako presa ere konponduko dute. "Aurrekontuan bage-neukan baserri bide batzuk konpontzeko diru partida bat; baina, uholdeen ondorioz, kaltetu diren baserri bideak ez daude aurreko zerrenda horretan jasota. Beraz, erabaki dugu hondatutako baserri bide berri horiek konpontzeko dirua jartzea; hau da, onartu dugun kreditu gehigarri hau erabiltzea".



Iaz egin zen lehen Trekutz eguna, arrakastaz. IMANOL SORIANO

Trekutz egunean, 300 lagunendako bazkaria

Bigarren Trekutz eguna ospatuko da irailean, eta bazkarira joateko txartelak salgai daude jada. Eguen eta egubakoitzetan Arin tabernaren aurrean postua jarriko dute antolatzaileek. Bizikleta igoeran parte hartu gura dutenek ere eman dezakete izena

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aurten ere mendizaletasuna eta festa eskutik datoz. Iazko arrakasta ikusita, bigarren Trekutz eguna ospatuko da irailaren 8an, zapatua. Antzuolan aspaldiko ohitura zena berreskuratzea eta jarraipena ematea izan duela helburu festa honek dio antolatzaile lanetan dabilen Amaia Ramirez de Okarizek: "Trekutz eguna, historikoki, gure nagusienek urteetan ospatu izan dute. Baina momentu batetik aurrera desagertu egin zen eta guk berreskuratu egin gura izan genuen iaz. Besteak beste, Trekutzen Finalista Eguna egiten zen, Arro-la Mendizale Elkartek antolatuta. Gainera, antzuolar guztiak elkartzeko aukera aparta dela ueste dugu".

Eta, iazko arrakasta ikusita, aurten ere herritar orori gonbidapena eta parte hartzeko dei egin diete: "Iaz, herritarren erantzuna sekulakoa izan zen, jende pila bat elkartu ginen Trekutzen. Giro paregabea izan

genuen. Hori dela eta, aurten berriz animatu da gazte talde bat eguna antolatzea. Gainera, bazkarirako 300 txartel jarri dituzte salgai".

Izena eman daiteke

Trekutz eguneko bizikleta igoeran parte hartzeko nahiz bazkarira joateko, aurrez eman beharko da izena. Hala, antolatzaileek egunetan eta egubakoitz iluntzetan, 19:00etatik 21:00etara bitartean, postua jarriko dute Arin taberna aurrean, Kalebarrenean, txartelak saltzeko. "Bazkariko txartelak erosteko eta bizikleta igoeran izena emateko postua jarri dugu Kalebarrenean. 10 euroren truke –heldu zein ume–, bazkariko txar-

TREKUTZERA IGOERA EGINGO DUTE AURTEN ERE OINEZKOEK ETA BIZIKLETAZALEEK, GOIZEAN GOIZETIK

tela eskuratu dezakete antzuolarrek. Aurrez komeni da izena ematea, baita bizikleta igoeran parte hartu nahi dutenek. Izan ere, antolaketa lanak errazteko, komenigarria da. Hala ere, irailaren 8an, egunean bertan, egongo da aukera bizikleta igoeran izena emateko", argitu dute antolatzaileek.

Egitaraua

Egitaraua ez dela askorik aldatu iazko urtetik gaineratu dute antolatzaileek. "Lehenengo eta behin, bizikleta igoera egingo da. Baina, aurretik, oinezkoak irtengo dira Trekutzerantz. Goian, salda, pintxoak... eta bolotan eta tokan aritzeko aukera egongo da".

Bazkaria egingo dute ondoren eta bazkalosteko erromeriaz gozatzeko aukera ere egongo da. "Gauza batzuk oraindik zehaztu gabe daude, baina egunari bukaera emateko ekintzaren bat antolatzeke asmoa ere badaukagu. Lotzen dugunean aurreratu dugu".

Kongo eta Senegalgo hezkuntza bultzatzeko ekimenak abuztuan

Abuztuaren 24an, sardina-jan solidarioa egingo dute Herriko Plazako errekaaren alboan, 12:00etan hasita

Maidar Arregi ANTZUOLA

Abuztuan herrian geratzen diren antzuolarrendako ezinbesteko festa bilakatu da San Bartolome eguneko. Aurten ere, abuztuaren 24an, sardina-jan solidarioa egingo dute, Anelkarren eskutik. "Antzuolan geratzen diren herritarrek apuntatuta duten eguna izan ohi da. Errotuta dagoen festa bilakatu da, gainera. Urteik urtera gora egin duen jaia da. Orain dela bi urte, 13 kilo sardina erre genituen; iaz, 17,5 kilo; eta aurten, 18 kilo sardina enkargatu ditugu. Herritarren elkartasunak ez du hutsik egiten", azaldu du Anelkarreko kide Jabi Etxanizek.

Herritarren borondatez batzen den dirua Anelkarrek Kongon eta Senegalaren dituen hezkuntza proiektuak bultzatzen jarraitzeko izango da. "6 eta 18 urte arteko 2.200 ikasle daude eskoletan;



Iazko sardina-jana. GOIENA

gure asmoa da irakasleek baldintza eta soldata onetan edukitzeko lanean segitzea".

Hala, abuztuaren 31n, helburu berak lortzeko eta sustatzeko asmoz, elkartasun festa egingo du Anelkarrek –Zurrategi plazan, 19:30ean hasita–.

Bidegurutzea zabalduko dute

Lizarragako bidegurutzea hobetzeko lanak asteon hasi dira. Lanak azkar egitea da Udalaren asmoa, eta datorren asterako egokitzapenak amaituta egotea espero dute. Lizarragako bidegurutzea oso estua da, batez ere, kamioiendako eta ibilgailu handiendako. Errepidea zabaldu egingo dute eta bidegurutzetik igarotzea erosoagoa izango da.



ANTZUOLAKO UDALA

Udal zerbitzuek ordutegi berezia izango dute abuztuan

Opor sasoian ere zenbait aldaketa izango dituzte udal zerbitzuen ordutegiek. Hala, udal txeko bulegoak irekita egongo dira astelehenetik ostiralera goizeko zortzietatik eguerdiko ordu bietara bitartean herritarren zerbitzura.

Liburutegia, aldiz, opor ostera arte ez dute zabalduko. Izan ere, Udal Gimnasioan liburutegia

jartzeko egokitzapen lanak amaitu gabe daude. Horren harira, azaldu dute asmoa dela oporren bueltan liburutegia herritarrei zabaltzea.

Kirol instalazioei eta aisialdi-guneei dagokienez, eskolako patioa eta Udal Pilotalekua zabalik egongo dira ohiko ordutegiarekin abuztuan.

Eta, nola ez, Sagasti auzoko ur jolas parkea ere irekita egongo da egunero-egunero, neska-mutikoek abuztuan ere gozatu dezaten.



Kale Zaharrean eguzten arratsaldean ateratako argazkia. M.A.

Zehaztapenik ikusten ez dioten ordenantza berria

Ostalaritzako ordenantza berria ari da lantzen Udal Gobernu eta atzoko osoko bilkurako zerrendako gaien artean sartu zuten behin-behineko onarpena jasotzeko. Zarataren kontrola nork egingo duen kezkatzen ditu auzotarrak eta tabernariak

Oihana Elortza OÑATI

Atzo, eguena, uztaileko osoko bilkura ziren egitekoak Oñatin, eta Udal Gobernu lantzen ari den ostalaritzako ordenantza berriaren proposamena eztabaidatu behar zuten udalbatza osatzen duten zinegotziek. Besteak beste, tabernen zarata mailaren eta ordutegiaren inguruko neurriak jasoko ditu horrek.

Herritarrek

Tabernen inguruan egon diren arazo gehienak plazatik behar gunean sortu dira. Hango herritar talde batek ere behin baino gehiagotan adierazi du kexa sortzen den zaratagatik, eta irtenbidea eskatu. Ordenantza berri honen inguruan galduetuta, diote "berandu etorrita" ere, ondo ikusten dutela orde-

nantzari heltzea eta antolatzea. Baieztatu dute taldeak berak ordenantza jaso ez badu ere, herritar batzuek indibidualki jaso dutela eta talde moduan egin dizkiotela ekarpenak horretarako zabalik egon den epe barruan. "Ordenantzaren jarraipena nork eta nola egingo den ez dugu garbi ikusten dokumentu horretan. Detaille gutxi ikus-

ten ditugu. Eguzten zarata neurtzeko tabernetan dagoen sistema hori kendu egingo dutela ulertzen dugu guk ordenantza irakurrita, baina ez dugu aurkitzen hori nola ordezkaturiko den. Hori izan da gure ekarpenetako bat, kontrol hori nork egingo duen zehaztea. Beste herri batzuetan, asteburuetako udaltzain zerbitzuak egiten ditu atestatu lanak, baina Oñatin ez dago zerbitzu hori eta iruditzen zaigu ordenantza honetan herritarrengan kontentatzen dela zeregin hori. Beste ekarpen bat izan da taberna bakoitzari txeko moduko bat egitea, ikusteko zein gabezia dituen ordenantzak jasotzen dituen eskaerak betetzeko, eta epe bat jartzea horiek betetzeko. Ekarpenekin batera bilera egiteko eskaera ere idatzi genuen, denbora luzea da eta ez gara Udal Gobernuarekin batu. Gobernu Taldeak erantzun digu bilera aste honetan bertan egiteko proposatuz, baina, opor garaian egonda, bakoitza bere planekin, irailean egitea adostu dugu", dio herritar talde horretako kide batek.

Tabernariak

GOIENAK hitz egin duen gune horretako tabernariak ez dute ordenantza ikusi. Berba egin gura izan dutenen artean, batek erantzun du ez duela ekarpenik egin horregatik, ez duelako ikusi zer jasotzen duen. "Kontrola egon behar da, bai, baina hori zeinek egin behar duen jakin behar da", gaineratu du. Beste batek, aldiz, ekarpena egin duela aitortu du. "Ez dugu ordenantza ikusi eta ez dakigu zer jasotzen duen, baina guk proposatu dugu ordutegia adostu egin behar dela tabernarien eta herritarren artean. Eurek deskantsatu egin

behar dute, baina guk lan egin gura dugu, eta, horregatik, alde bien artean jarritako ordutegia izan behar dugula uste dugu. Eta ordutegi hori berdina izan beharko litzateke guztiondako, ezberdintasunik egin barik. Zarata, askotan, kanpoan dagoen jendeak ateratzen du. Tabernak ateak itxita baditu eta musika egon beharreko mailan badago, kanpotik ez da zaratarik entzuten. Dena dela, zeinen ardura da kanpoko zarata hori zaintzea? Egin dugun beste proposamen bat izan da jaietan tabernak zabalik izateko dugun baimen berezi hori mantentzea".

Desadostasuna

Ordenantza horri ekarpenak egiteko epean bi proposamen jaso dituztela baieztatu du Mikel Biain alkateak. Ekarpene horiek batzorde berezi batean aztertu dituztela esan du eta "bat edo beste behin betiko ordenantza onarpenari begira kontuan hartzeko modukoak" direla baloratu dutela bilera horretan.

Mikel Biain alkatearen esanetan, orain arteko ordenantza egungo legedira moldatuko dute, eta arau-hausteen zigorrak eguneratuko. Zarata maila kontrolatzeko sistema aldatzea ere proposatzen du, eta "ikuskaritzak" egongo direla gaineratu. Lourdes Idoigaren ustez, ordenantza berriak, zigortzailea beharrean, prebentiboa izan beharko luke. Ordenantza egiteko moduan ere ez datoz bat bi alderdiak.

ORDENANTZARI EKARPENAK EGITEKO ZABALIK EGON DEN EPEAN, BI JASO DITUZTE

San Lorentzoko eta Urrexolako jaiak abuztuaren izango dira

San Lorentzoko jaiak abuztuaren lehen bi asteburuetan ospatuko dituzte aurten. Abuztuaren 3tik 5era, San Lorentzoko ermitaren inguruan egingo dituzte ospakizunak. Mendiko bizikletako zeharkaldia, pilota txapelketa, marrazki lehiaketa, kontzertuak, txorimaloak eta mus txapelketa egongo dira, besteak beste. Abuztuaren 10ean, berriz, bolo jokoak

eta bertsolariak egongo dira Larrain Gain elkartean eta 11n, Amaia Condek erakustaldia egingo du, toki berean, motozerrarekin eskulturak eginez.

Lezesarrin

Urrexolako jaiak abuztuaren 15ean eta 16an ospatuko dituzte eta Lezesarrin, berriz, asteburu honetan hasiko dira. Bihar, herri kirolak egongo dira goizean Artzainaren Monumentuaren ondoan eta auzo bazkariaren ostean, Potx magoa etorriko da.

Aloñara ilunabarrean joateko irteera, eguraldiaren menpe

Aloñara Ilunabarrean izeneko irteera joan den zapatuan ziren egitekoak baina eguraldiagatik hilaren 28ra atzeratu zuten. Zapatuko ere euria iragarrita dagoela ikusita, Arantzazuko Parketxeko arduradunek azken momentura arte itxaron gura dute irteera egin edo ez erabakitzeke. "Iragarpena aldatzen bada, zapatuan egingo da".

Abuztuaren ordutegi berezia izango dute udal zerbitzuak

Abuztuaren 1etik 31ra ordutegi berezia izango dute kiroldegia, udaletxeak, Turismo Bulegoak eta kultura etxeak, adibidez. Udaletxea eta helduen liburutegia goizez bakarrik egingo dira zabalik; zapatuetan, itxita. Zubikoa, berriz, domeketan egongo da itxita. Turismo Bulegoa eta Arrikruz Kobak egunero egingo dira zabalik.

Argia kenduko dute hainbat auzotan abuztuaren 13an

Erdi tentsioko lineetan zuhaiztiak moztu behar dituzte, eta, lan horiek egiteko, argia kenduko dute hainbat gunetan abuztuaren 13an, lau orduz. 15:00etatik 19:00etara egingo dira argi barik auzo hauetako hainbat atari: Berezaio, Garagaltza, Murgia, Olabarrieta, Urrexola eta Olate, Lamiategi eta Tokilloko zentralak.



Joan den udan Oñatira etorritako turista talde bat, unibertsitatearen gaineko azalpenak entzuten. GOIENA

Behar guztietako turistei erantzuteko moduan

Bisita gidatuak egingo dira Oñatin, Arantzazun eta Arrikruzten, egunero, abuztuan. Ostatu hartzeko tokiak ere prest daude turistei arreta eskaintzeko, eta bertako produktuen gaineko interesa duten bisitariak asebeteta bueltatuko dira etxera

Oihana Elortza OÑATI

Oñati ezagutzeko bisita gidatuak, ostatu hartzeko tokiak, bazkaltzeko menuak, naturaz gozatzeko eskaintzak... dena prest dute abuztuan herrira etorriko diren bisitariak hartzeko. "Guztion arteko elkarlan bat da. Oñati, Arantzazu eta Arrikruz lotuta daude eta batera zein bestera datorrenak informazio osoa hartu ahal izango du. Ostatu ematen duten herriko etxeekin harremanetan gaude eta bisitariak informazio hori ere eskatu dezakete turismo bulegoetan". dio Ikerne Altubek, Turismo eta Garapen Agentziako arduradunak.

Urteko lehen sei hilabeteetan, iaz epe berean baino bisitari gehiagori eman zieten arreta Oñatiko Turismo Bulegoan, Arrikruz Kobetan eta Txokolateixian, eta orain arteko zerbitzua eskainiko dute urteko bigarren erdian ere. Abuzturako ere era guztietako bisitak dituzte antolatuta. "Unibertsitatea eta pa-

rrokia erakusteko bisita monumentalak, adibidez, egunero egingo dira, Turismo Bulegotik abiatuta. Arantzazun, berriz, egunean hirutan egingo dira santutegia eta harekin lotuta dauden altxorrek ezagutzeko bisitak", dio Altubek.

Atsedeen hartu

Arrikruzten hiru bisita ezberdin dituzte aukeran: bata ohikoa da, 53 galeria bisitatzeko egiten dena. Beste biek abentura kutsu handiagoa dute, eta, kaskoa buruan jantzita, espeleoabentura irteerak dira, umeendako zein nagusiendako. Zaldian ibili gura dutenak Pottokalekura joan daitezke eta geologian interesa dutenek abuztuaren 26an egingo

ABUZTUAN ETA IRAILEAN DONOSTIAKO AUTOBUS TURISTIKOA IRITSIKO DA OÑATIRA, ZAPATURO

den geoturismo irteerarako eman dezakete izena; Araotz bailara, Sandaili eta Aitzulo barne, ezagutuko dituzte.

Egun-pasa doazenendako ez ezik, opor egun batzuk Oñatin egin gura dituztenendako aukerak ere eskura dituzte bisitariak. "Herriko ostatuak prest daude, baita bizikletan datozenendako ere. Ostatuak, aterpetxea eta autokarabanen gunea ditugu, gainera, kategoria ezberdinetako atsedeen tokiak. Iaz, esaterako, turistek %70ek ostatuak aukeratu zituzten eta ia %20k, autokarabanen gunea", zehaztu du Altubek.

Bertako produktuak

Hala ere, eraikinak eta paisaiak ikusteaz gain, gero eta gehiago dira bertako produktuak ezagutu gura dituzten turistak eta gazta, txakolina eta txokolata probatu gura dutenak. Eskaintza hori emateko ere prest daude Oñatiko eta Arantzazuko turismo bulegoak eta Txokolateixia.


Gizarteratzeko eta laneratzeko hiru hankadun programa

Oñatin gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen laneratzeko sustatzeko elkarlan programa bat garatu dute Oñatiko Udalaren, Bidebarri laneratzeko enpresaren eta Ulma Fundazioaren artean. Laneratzeko da programaren izena.

Lankidetzaren programa horrek bi ardatz nagusi izango ditu: bat da Bidebarri enpresaren laneratzeko

prozesua amaitzen duten pertsonak aldi baterako kontratatuzko Ulma Taldearen konpromisoa. Eta bestea da Oñatiko 50 langile baino gutxiago dituzten enpresa txikiei zuzendutako diru laguntza bat, laneratzeko prozesua amaitzen duten pertsonak aldi baterako kontratatuzko. Diru laguntza horretarako baliabide ekonomikoak Udalak eta Ulma fundazioak jarriko ditu.

Laneratzeko programaren hiztarmena gaur goizean sinatuko dute hiru aldeek, Olaburun.



NIRE USTEZ

MAIALEN SANTOS

Badatozela, badatozela

Ez dira gutxi urte osoa garai honen zain egon direnak, inoiz erlojuko orratzak aurreratzeko tentazioa izan dutenak. Beraien zorionerako, baina, garaia iristear da. Opor garaia badator!

Gabonekin hasten dugu urtea, oporren dosi txiki batekin. Egunak joan eta egunak etorri iristen zaigu Aste Santua, eta lehen baino opor dosi handitxoagoa izan ohi dugu zortedunok. Orduan bai, maiatza eta ekaina heltzean hasten dugu hain luze egiten zaigun azken txanpa, eta, azkenik, uztaila. Azken hau beste kontu bat da, ordea; opor usaina, egun eguzkitsiak –zorte apur batekin–, parrandak... Konturatu orduko, abuztua ate joka dugu, eta berak dakar hainbeste desio dugun opor dosi handia.

Hausnartzen jarrita pentsatu dut agian ez legokeela gaizki eguneroko bizitzaz gozaten ikastea, urte guztia oporren zain egon ordez. Zereginik badugu, hortaz; baina orain opor garaia da, eta egitekoak itzarongo du irailera arte. Hala ere, abuztuan oporrik ez dutenak has daitezke zeregina betetzen; egunerokoaz gozaten –beraien onerako–. Eta bide batez, animoak, nire partetik, oporretatik.

GORA ETA BEHERA



ILL

Ziburuak goian, baloiaren mesedetan

"Udan gauero jolasten dira baloiarekin parke honetan, eta, zarata ateratzeaz gain, ziburuak goian uzten dituzte. Baxuak garenok ezin jaitsi, gero, umeak ibiltzeko", dio auzokide batek.



Lizargarateko Egunean, jendea giroaz eta erromeriaz gozaten. LIZARGARATE TRIKITIZALE ELKARTEA

Erromeria eta jaia Lizargarateko Egunean

Abuztuaren 17ra arte egongo da txartelak erosteko aukera; aurten, Arrano tabernan bakarrik. Azkeneko urteetako ohiturari eutsita, bolo txapelketa eta irrintzi txapelketa egingo dute. Laja eta Lutxurdio ibiliko dira soinua eta panderoa astintzen

Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI
Abuztuaren 26an, domeka, ospatuko dute Lizargarateko Eguna. Azken urteetako ohiturari eustea da Lizargarate trikitizale elkartearen asmoa.

Aurtengo berrikuntza da txartelak Arrano tabernan bakarrik egongo direla salgai. 22 eurotan salduko dituzte; txartel horrekin, hamaiketako, bazkaria eta afori merienda izango dute. Txartelak erosteko azkeneko eguna abuztuaren 17a izango da.

Laja eta Lutxurdioaren erromeria
Eguna hamaiketakoarekin hasiko dute eta ondoren herri kirol erakustaldia izango dute. Azkeneko urteetan egin duten moduan, bolo txapelketa egingo dute bazkal aurretik.

14:00etan, bazkaria egingo dute: piperrak mariskoz beteta, penka beteak, bakailaoa bizkaitar era, oilasko-izterra eta goxua. Bazkalondoren, irrintzi txapelketa izango dute: iaz Eñaut Uribealgok irabazitako titulua ea

aurten nork eskuratzen duen izango dute lehian. Musika jarriko dute Laja eta Lutxurdio trikitilariak –Azpeitiko eta Elosukoa, hurrenez hurren–.

Sustraiak, Asaldittan

Migel Angel Kortabarria Sarra mendik azaldu du Lizargarateko erromeriak sustraia Asalditta Egunean duela: "Lizargarate inguruan dago Asalditta, Bergara aldera. Beti ezagutu izan dugun erromeria da, baita gure gurasoek ere. Egundoko erromeria izaten zen", gogorarazi du, eta gaineratu: "Antzuolarrek antolatzen zuten, eta inguruko jende asko joaten zen: Bergarakoak, Elorregikoak, Zubillagakoak, Oñatikoak... baita Legaz-

**LAJA ETA LUTXURDIO
TRIKITILARIEK
GIROTUKO DUTE
BAZKALOSTEA ETA
AFALOSTEA**

pikoak ere". Janari postuak egoten zirela dio: "Errokillak, madariak... saltzen zituzten. Bolatokia ere bazegoen. Jendea goizetik joaten zen, eta han bazkaltzen zuten". Antzuolarrek erromeria antolatzeari utzi zioten, eta ondoren hasi ziren Lizargarate gastronomia elkarteak "antzerako zerbait" egiten Lizargaraten. "Esan behar da uda garaian Lizargarate beti izan dela erromeria lekua, asteroko ohiko erromeria". Gastronomia elkarteak, baina, Asaldittaren ordezkari bat egiten saiatu ziren. Urte batzuetan jendea ibili zela dio *Sarramendi*-k baina urteekin "txingarra" besterik ez zela geratu dio.

Lizargarate trikitizale elkarteak orain dela bederatzita urte hartu zuen erromeria antolatze-ko ardura, Lizargarate elkartearekin batera.

Gaur egun jende gehiena autoz igotzen da Lizargaratera, baina oraindik ere badira goizean goiz oinez joaten direnak.

Oñatiko dantzak egingo dituzte Donostian eta Arantzazun

Abuztuaren 11n izango da lehenengo ekitaldia; Arantzazuko ikuskizunerako sarrerak agortu egin dira

A.E. OÑATI

Oñatiko Dantza Taldekoak Oñatiko dantzak erakusten ibili dira hainbat lekutan. Corpus egunean Oñatin datza egiteaz gain, Hondarribian eta Errenterian ere egin dute dantza.

Hurrengo hitzordua Donostian izango dute. Abuztuaren 11n, Aste Nagusiaren barruan, Konstituzio plazan egingo dute dantza: "Txistulari alardearen barruan izango da. Gainera, berezia izango da ekitaldia, oholtzaren tamainara egokitu behar izan dugu-eta dantza bera. Ohi-

tuta gaude plaza handietan dantza egiten, eta, oraingoan, askoz ere leku txikiagoa izango dugu", azaldu du Julen Agirre dantzariak.

Abuztuaren 23an, Arantzazun izango dute ekitaldia. "Donostiako Musika Hamabostaldiaren barruan, Kukai dantza taldeak gonbidatu gaitu. Ohorea da, gurekin batera dantza egitea", azaldu du Mikel Biain dantzariak. Nabarmendu behar da Arantzazun izango den ekitaldirako sarrera guztiak agortu direla dagoeneko.

'Artza' omenduko dute igerilari ohiek irailaren 15ean

Aloña Mendiko igerilari ohien ekimenez, Xabier Infante *Artza* omenduko dute irailaren 15ean –16 urtetik gorakoendako omenaldi-bazkaria izango da–. Zubikoa kiroldegian egingo dute bazkaria. Izena eman gura duenak Amaia Anduezarekin, Iñaki Guridirekin edo Xabier Gordoarekin jarri beharko du harremanetan.



Artza, Zubikoan. GOIENA

Erregional Preferenteak hainbat lagunarteko izango ditu abuztuan

Abuztuaren 14an hasiko dituzte entrenamenduak, eta hil amaieran lagunarteko partiduak jokatuko dituzte

A.E. OÑATI

Futboleko talde nagusiak abuztuaren 14an hasiko ditu entrenamenduak Endika Ruiz entrenatzailearen aginduetara. Abuztuan bertan, hil amaieran, gainera, lehenengo lagunartekoa jokatuko dute. Abuztuaren 25ean Donezteben izango dute lagunartekoa: "Hango bi jokalarirekin ibili izan dira entrenatzen azkeneko urteetan; iaz eurak etorri ziren Azkoagainera lagunartekoa jokatzerara eta aurten hara joateko gonbidapena jaso dugu", azaldu du Ruizek.

Abuztuko azkeneko astean –eguna zehaztu barik dago–, Bergararen aurka jokatuko dute, Azkoagainen. Irailaren 1ean, berriz, Arrasate Hiria txapelketan parte hartuko du Aloña Mendik; eta irailaren 8an, Jose Luis Agirrerren omenezkoa jokatuko dute, Azkoagainen.

Ruizek esan du "oraindik zehaztu barik" dutela nor izango duen ondoan laguntzaile lanetan. Koordinatzaile nagusi lanetan Julen Barrena eta Aritz Garmendia ibiliko dira. Denboraldia hasteko "ilusioz" daude.



14. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA

egin klik!



KOSSEGORREKO ZUBITIK EGUNERO AZKEN JAUZIA | Argazki: Anartz Eraso (Aretxabaletta)
SARIA: Tableta Arrasateko Eroski Hipermerkatuaren eskutik



GOIENA IRABAZITZEN SANTA CRUZ DE CUERPOGOSÉN | Argazki: Jose (Iñaki) Ibarra (Aretxabaletta)
SARIA: Bi pertsonarendako bazkaria edo afarria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatebtxean.



GARAZI NEAK PEAN TENPLUAREN SARRERAN | Argazki: Ibai Mariñe Fernandez de Luco (Arrasate)
SARIA: Zumaiako Zelai Talasoterapiari bi pertsonarendako zirkuitu termala + Zelai menua



Argazki guztiak eta lege oharra hemen:
goiena.eus/bereziak/14-udako-argazkien-lehiaketa

MARTXAN DA!

Egin klik eta bidali **poltsikoko telefonoarekin, argazki kamerarekin edo tabletarekin** ateratako udako argazkiak!

Posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu argazkiak!

Sariak

- **LEHEN SARIA:** Redmi 5 plus smartphonea, **Eroski Arrasateri esker.**
- **BIGARREN SARIA:** **Gure Ametsa** jatebtxean bi lagunendako afarria edo bazkaria.
- **PUBLIKOAREN SARIA:** Zumaiako Zelai Talasoterapiari bi pertsonarendako zirkuitu termala eta Zelai menua, **Arrasate bidaiei esker.**

Lehen bi sariak aukeratzeko epaimahala Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.

Hirugarrena publikoaren saria izango da eta bozketa bidez hautatuko da. Irailaren 24tik 30era zabalduko da Publikoaren Saria aukeratzeko epea.

Hiru argazki irabazleak zeintzuk diren urriaren 5ean jakinaraziko da, Goiena paperean.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, bost argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi behar dira:
 - Egilearen izen-abizenak.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia non ateratakoa den.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 20tik irailaren 16ra arte –biak bame–.
- Bidali argazkiak eta datu guztiak posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07).
- Argazkiak, gehienez, 5 MB izan behar dute.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar.
- Debagoienean jalo edo bizi den orok parte hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoek parte har dezakete.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak koloretan zein zuri-beltzean aurkez daitezke.
- Argazkiak originalak izan behar dute.
- Udako argazkiak izango dira: aurtengo udan ateratakoak edo beste uda batekoak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 5ean jakingo dugu, Goiena aldizkarian.
- Lehen bi sariak aukeratzeko epaimahala Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.
- Irailaren 24tik 30era izango da Publikoaren Saria aukeratzeko epea.
- Argazkiak Goienaren euskarrietan argitaratuko dira: *Goiena.eus* atarian, Goiena aldizkarian, *Puntua* aldizkarian, telebistan eta sare sozialetan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du, egokien irudiltzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienaren arbuoan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adieraziko da.
- Lehiaketan parte hartzeko ezinbestekoa da oinarriak betetzea eta lege oharra onartzea.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
JATETXEA

ARRASATE BIDAIAK



"Norberarengan sinistea ezinbestekoa da"

MAIALEN AXPE PERTIKA-JAUZILARIA

ATLETISMOA Espainiako txapelketan 4,45 eginda, arrasatearra Berlinen izango da abuztuan; Malen Ruiz de Azuak osatu zuen podiuma, brontzezko domina eskuratuta

Xabier Urzelai ARRASATE

Ikasturteko azken hitzorduan, Espainiako Txapelketan, lortu du denboraldi hasieratik amestu duen hori Maialen Axpek (Arrasate, 1993): abuztuaren 6tik 12ra bitartean Berlinen jokatu-ko duten Europako Txapelketarako sailkatzea. Arrasateko atletak joan den domekan 4,45 metroko saltoa egin zuen Getafen; txapelketan urrea lortu zuen Monica Clementek eta berak lortu zuten gutxieneko marka egitea, eta balio gabeko saltoen aldeagatik zilarra jantzi zuen Axpek. Malen Ruiz de Azuak osatu zuen podiuma, 4,35 metroko saltoarekin.

Berlinerako gutxieneko marka egin zenuen unean, esanguratsua izan zen Monica Clementerekin emandako besarkada.

Bai, oso momentu berezia izan zen. Lau atleta iritsi ginen 4,35eko markara, eta egia da azkenera arte borrokan geratu ginen atleta horien artean giro polita sortu zela. Bada, 4,45eko egindakoan, besarkada hura berezia izan zen, biok lortu genuelako gutxieneko marka gainditzea. Azken batean, atleten artean badakigu iritsi garen lekura iristeko zein lan dagoen atzean, eta urte askotako harremana dugu, txapelketetakoak, kon-



Maialen Axpe, aste barruan, Arrasaten. X.U.

"EZ DA TXAPELKETA ERRAZA IZAN, BALIO GABEKO SALTO ASKO EGIN DITUT ETA; BAINA LORTU DUT"

tzentrazioetakoak... Polita izan zen, bai.

Jakinekoa zen Getafen zenutela Berlinerako azken geltokia.

Eta azken geltokiko azken saikeran lortu nuen 4,45eko marka egitea [Barre], hirugarren sal-

toan. Ez zen txapelketa erraza izan, balio gabeko salto asko egin nituen, eta aurrera egitea asko kostatu zitzaidan.

Kontziente zara abuztuko oporraldi barik geratu zarela?

[Barre] Abuztu erdira arte bai, behintzat. Uste dut merezitako saria dela Berlinera joatea, eta ondoren entrenatzailearekin erabaki behar dut zer egin. Abuztu amaieran Iberoamerikako txapelketa dago, baina horra dominengatik borrokan ibil daitezkeenak joango dira, eta oso zaila izango da horien artean

egotea. Dena dela, Berlinera joatearren ez daukat opor barik geratzeko arazorik.

Izan ere, neurri handian, sorpresa izan da marka on hori egin ahal izatea.

Bai; urte osoan helburu horren bila ibili eta gero, eta azken txapelketa izanda, asunituta nuen Espainiako Txapelketaren ondoren denboraldia amaitu zitekeela.

Gizonezkoekin alderatuta, emakumezkoek zortea izan zenuten aldeko.

Bai. Gizonezkoen txapelketa zapatuan izan zen, eta horiek haize zakarra izan zuten kontrari. Domekara begira, berriz, etengabe eguraldi iragarpena begiratzen ibili ginen; guk zortea izan genuen, kondizio oso onetan egin genuelako txapelketa.

Batek baino gehiagok galdetuko zizun: non dago sekretua?

Ez dago sekreturik: lana, lana, lana eta lana. Urte osoa egin dut Europako Txapelketan egoteko gogor entrenatzen. Egia da txapelketa hasten dugun momentutik amaierara arte hainbat orduz kontzentratuta egon behar izaten dugula, eta hori ez dela erraza. Alde horretatik, norberarengan sinistea ezinbestekoa da, eta urtean zehar egindako lanaren gainean konfiantza izatea.

Txapelketan zer da erabakigarria? Arlo fisikoa, teknikoa ala egun horretan burua erabat motibatuta eta zentratuta izatea?

Dena multzo bat da. Txarto entrenatu bazara, zalantza handiak dituzu, ez dakizu zelan egongo zaren... Eta, aldi berean, aurretik lan galanta egin baduzu, presioa ere handiagoa izaten da; izan ere, badakizu hanka sartzen baduzu ondorengo kolpea handiagoa izango dela. Baina lana ondo egiteak ere konfiantza ematen du, eta hori oso lagungarria izaten da.

Berlin. Europako maila absolutuko Europako Txapelketak. Zein da helburua?

Helburu nagusia nire marken bueltan ibiltzea izango da, eta, noski, horiek hobetzen ahaleginduko naiz. Garbi daukat finalerako sailkatzea oso zaila izango dela, oso maila handiko atletak egongo direlako bertan. Ez dakit finalerako sailkatzeko gutxieneko saltoak zenbatekoa izan beharko duen, baina nire marka pertsonala ondu beharko dudala, seguru.



Eibar eta Real, 2016an. GOIENA

FUTBOLA Real eta Osasuna aurrez aurre bihar Bergaran

Denboraldi-aurrea prestatzeko lanetan murgilduta daude Asier Garitanoren Real eta Jagoba Arrasateren Osasuna. Eta bihar, zapatua, Bergarako Agorrosin futbol zelaian lagunarteko partidua jokatu dute, 18:00etan (ikus 19. orria). Sarreraren salmentak martxa onean doaz; egunean bertan leihatilan ere jarriko dituzte salgai -20 euro-.




lazko lasterketaren une bat. GOIENA

ENDUROA Arrasateko lasterketa irailaren 30ean egingo dute

Arrasateko Enduro Txapelketako beste edizio bat egingo dute irailaren 30ean. Antolatzaileek aurreratu dute aurten ere Arruena parkean izango dela irteera puntua (08:00), eta ibilbide berrietan lanean dabilta dagoeneko. Abuztuaren 15ean zabalduko dute izen-emate epea eta aurten aldaketak izango dira denborak hartzeko sisteman. Informazio gehiago, Facebooken.

Akats administratiboa gaindituta

Maialen Axpek 2018an birritan lortu du Europako Txapelketarako sailkatzea. Birritan, pista estalian 4,40ko marka egiteko kapaz izan zelako neguan, eta hasiera batean gutxieneko marka hor zegoela uste zutelako. Federazioko ordezkariak segituan egin zuten zuzenketa; Bedoñakoa lehenbailehen errekuperatu zen kolpetik, eta lanean jarraitu zuen.



Axpe, domekako salto erabakigarrian. RFEA / MIGUELEZ TEAM

Etapa garaipena eta anbulantzia, dena batera

TXIRRINDULARITZA Euskadi Murias taldeko Julen Irizarrek profesional mailako lehenengo garaipena eskuratu zuen joan den egunean, baina, bi etapa geroago, anbulantzia esan behar izan zion agur Portugalgo Sari Nagusiari

Xabier Urzelai BERGARA

"Etxera iritsi berri gara, eta bi-zikletan buelta bat ematera joan naiz, gorputzak zelan erantzuten duen ikusteko". Julen Irizarren berbak dira (Bergara, 1995), aste barruan, taldeak azken astean Portugalgo Sari Nagusian lan txukuna egin eta gero. Azken astean, taldeko beterranoenak Sierra Nevada Espainiako Itzulia prestatzen dabiltzan bitartean, Euskadi-Muriasko gazteak protagonista izan dira Portugalen. Bergarakoak, baina, 48 orduan txirrindularitzaren bi aurpegiak bizi behar izan ditu, onerako eta txarrerako.

Irizar eta Barthe

Antzuola Saria eta Uzarragako Igoera irabazi dituen Cyril Barthe taldekidea podiumaren bueltan ibili da Portugalgo Sari Nagusiko hainbat etapatan, eta Irizarrek profesional mailako lehen garaipena eskuratu ahal izan du.

Bigarren etapen izan zen, Castro Daire eta Pedrogao Grande artean egindako lasterketan. Bergarakoak eguneko ihesaldian sartu, eta atzetik jarraika zetorkion tropelari hainbat segundoko aldearekin irabazi ahal izan zion zeingehiagoka: "Hiru txirrindulari gindoazen ihes egin da, abantaila politarekin. Zoritxarrez, ezbehar baten ondorioz, gutako bat, Txomin Juaristi, lurrera erori zen [ura emateko ziklistengana gerturatu zen Muriasen autoak Txomin Juaristiren gurpila ukitu eta lurrera bota zuen]. Haren zain geratu ginen, eta tropelak tarte handia jan zigun. Zorionez, baina, indartsu sentitzen nintzen, aurrera egin nuen, eta helmugara arte iritsi".

Lehen garaipena

"Poztasun handia sentitu nuen, baina ez beste aparteko ezer", dio, erabateko naturaltasunarekin: "Bi urte daramatzat Euska-



Julen Irizar, Portugalgo Sari Nagusiko bigarren etapen, helmugan. JOAO FONSECA

"SEKULA EZ DUT HARTU BURUAN HALAKO KOLPERIK, BELDURTU EGIN NINTZEN HASIERAN"

di Muriasen, eta banuen profesional mailan garaipen bat eskuratzeko gogo, baina obsesio-natu barik. Bada, oso pozik nago lortutakoarekin, baina egia da lorpena bere mailan jarri behar dugula, lasterketan World Tourreko taldeak falta ziren eta", dio, umiltasunez.

Izan ere, maila goreneko taldeak beste borroka batzuetan dabiltza: "Kontinental profesional izateak aukera ematen digu World Tourrekoak diren taldeekin lehiatzeko lasterketa batzuetan. Beste itzuli batzuetan, berriz, gure kategoriako taldeen eta kontinental mailakoen kontra borrokatzen gara, eta Portugalgo Sari Nagusia halakoxea izan da. Dena dela, ez pentsa garaipenari meritua kentzen diodanik, gaur egun edozein lekutan da-eta zaila besoak altxatzea", dio bergararrak, umorez.

Laugarren etapen, lurrera

Garaipenaz gozatzeko tarte handi barik, baina, laugarren etapen ziklismoaren beste aurpegia bizi izan zuen, asfaltoaren gogortasuna sufritzearena: "Erorikoak izan ditut lehen ere, eta min hartu izan dut, baina uste dut sekula ere ez dudala buruan halako kolpe handirik hartu". Bergarakoak konortea galdu zuen, eta konturatu zenerako anbulantzia zegoen, lasterketatik kanpo: "Momentuan, larritu egin nintzen, zelan erori nintzen, bi egun lehenago etapa bat irabazi izana... ez nintzen ezertaz akordutzen. Zorionez, minutu gutxi batzuetako kontua izan zen".

Bosgarren garaipena

Erorikoaren ondorioz, kolpatuta du gorputza: "Pena handia dut, sasoi puntu onean nengolako eta ez dakidalako gorputzak zelan erantzuten duen". Atzo, eguna, Ordizian jokatuako Klasikoan parte hartzeko asmoa zuen: "Ea sentsazio onak ditudan, nahiz eta gorputza handituta daukadan. Datorren astean dugu Getxon lasterketa, eta hor ondo egon nahiko nuke".



Linazisoro, podiumean. ESPAINIAKO ESKALADA FEDERAZIOA

Mikel Linazisoro, Olinpiar Jokoetarako bide onean

ESKALADA Urrian gazteen Olinpiar Jokoak ditu helburu; baina datozen hilabeteak txapelketaz beteta ditu

X.U. BERGARA

Mikel Linazisoro urrian izango du orain artean izan duen kirol hitzordurik handiena eskalada barruan: gazteen Olinpiar Jokoetan izango da, Buenos Airesen (Argentina). Hitzordura, baina, bide onetik doa. Besteak beste, bergararrak München urrezko domina jantzi zuen uztaileko lehen asteburuan, Eurokopan Kopan.

Bergarako eskalatzailea zailtasun modalitatean izan zen onena. Hala, azken lan-saio horretan batutako puntuei esker, Linazisorok hirugarren postuan amaitu du txapelketa, eta merituzko postua da; izan ere, bergararrak 18 urte bete berri ditu eta lehiakideen artean gazteena da.

Hilabete gogorak aurretik

Bergarakoak urte hasiera ezkerro dihardu Olinpiar Jokoak

prestatzen, udaberrian *Barru* erreportaje saioan adierazi zuen moduan, eta, hitzordua gerturatzeko dabilen neurrian, haren egutegia gogortzen dabil.

Abuztuaren 9tik 16ra bitartean gazteen Munduko Txapelketan izango da, Moskun. Eta bertan, boulder eta abiadura modalitateetan lehiatuko da. Abuztuaren 21etik irailaren 2ra bitartean, berriz, Europako gazte mailako txapelketan lehiatuko da, Bruselan. Eta, txapelketa handiak amaitzeko, irailaren 6tik 16ra Munduko Txapelketa absolutuan hartuko du esku, Innsbrucken. Txapelketa handiak izanagatik, gorri markatuta daukan hitzordua urriaren 6tik 13ra bitartean jokatu du, gazteen Olinpiar Jokoak izango ditu-eta hor. Urte garrantzitsua, zalantza barik, hurrengo geltoki nagusia Tokion izango du eta: 2020ko Olinpiar Jokoak.

IGERIKETA Ur sorosle ikastaroa egingo dute irailean Oñatin

Irailaren 8an egingo dute, goiz eta arratsalde, ur sorosle ikastaroa Oñatin. Birziklatze ikastaroa izango da; horrenbestez, izena emateko baldintza da aurretik ur sorosle titulua izatea. Izena emateko azken eguna irailaren 5a da -943 71 63 75, zubikoa@onati.eus- eta, gehienez, hoguei lagunendako tokia izango da -120 euro-.

TXIRRINDULARITZA Leintz Balarari Itzulia, abuztuaren 16an

Urtero moduan, Aretxabaletako jaien barruan, Leintz Balarari Itzulia antolatuko dute, Euskalduna Torneorako puntuagarria izango den lasterketa. Txirrindulariek 115 kilometro izango dituzte aurretik, eta 10:00etan abiatuko dira, Durana kaletik. Birritan igoko dute Gatzagako mendatea, eta 13:00 aldera iritsiko dira helmugara.



Erlauntza antzezlanean lantaldea Donostiako Antzoki Zaharreko dekoratuetan. KEPA ERRASTI

'Erlauntza' antzezlana, bide onetik abiatuta

Kepa Errasti aretxabaletarrak idatzi du gidoia, Mireia Gabilondo bergararrak zuzendu du eta Donostiako Victoria Eugenia Antzokiak, Gasteizko Antzoki Zaharrak eta Bilboko Arriaga antzokiak Vaiven Producciones konpainiarekin elkarlanean ekoiztu dute

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Oporrak hartu ditu dagoeneko Kepa Errastik, eta "sentsazio onekin" hartu dituela dio, aurreko astean Donostian *Erlauntza* antzezlana arrakastarekin estreinatuta. Urte emankorra izan du Aretxabaletakoak, proiektu ugari gauzatu ditu –pertsonalak eta taldean egindakoak–, eta hainbat sari lortu ere bai.

Bergarakoa ere gustura da antzezlana berriarekin. Urte "betea" eta "emankorra" izan du Gabilondok ere; ezin, baina, oraindik oporrik hartu esku artean dituen proiektuei azken ukituak eman barik: "Fernando Bernuesek zuzenduko duen lan berriarekin ari naiz, batetik, eta udazkenean zuzenduko dudana ikuskizuna prestatzen ere bai".

'Dramaturgia berria' laborategia Donostia 2016 ekimenaren barruan sortutako egitasmoa da *Dramaturgia berria*, eta *Erlauntza* antzezlana haren baitan abiatu zutela azaldu du Errastik: "Aurkeztutako proiektuen artean hiru aukeratu zituzten horien gidoia garatzeko, eta horietatik bi aukeratu zituzten gero, Donostiako Victoria Eugenia An-

tzokiak, Gasteizko Antzoki Zaharrak eta Bilboko Arriaga antzokiak ekoizteko: nik idatzitako *Erlauntza* da bat, eta Tamara Gutierrezek idatzitako *Galerna* da bestea; hain justu, urtarrilean estreinatuko dutena".

Bergarakoak laborategi horretan jardun du, Patxo Telleriarekin batera, tutore lanetan. "Keparen testua eta antzezlaren prozesu osoa hasieratik jarraitu dugu Telleriak eta biok, haren alboan izan gara gomen-dioak ematen eta lana bideratzen. Ondoren, *Galerna* eta *Erlauntza* ekoiztea erabaki zutenean, Errastirena zuzentzeko proposatu zidaten, eta Errasti izan dut zuzendari-laguntzaile".

Aurrez ere elkarrekin lan egindakoak dira *Treblinkara azken trena lanean*, adibidez–, eta oraingoan ere ondo moldatu direla diote: "Lantalde polita sortu da; orokorrean, modu naturalean, erraz, egin dugu elkarrekin lan, eta esango genuke energia hori nabaritzen dela taularen gainean".

Hiru euskal antzokik Vaiven Producciones konpainiarekin batera ekoiztutakoa bada ere, lanerako askatasun osoa izan dutela diote biek ala biek, eta txalotu eta eskertu egin dute *Dramaturgia berria* moduko proiektuak bultzatzea. "Interesgarriak eta beharrezkoak iruditzen zaizkit horrelako ekimenak, euskarazko testuak idaztera bultzatzen dutelako, batetik, eta, era berean, idatzitakoak kaxoian ahaztuta gera ez daitezela".

Komedia bai, baina garrantza

Txikitatik elkar ezagutzen duen neska kuadrilla bat da istorioko protagonista; landetxe batera joango da asteburu pasa, horietako baten ezkontza aurreko

agurra ospatzeko, eta, nesken arteko harremana ona den arren, urteetan elkarri esan bakoek eta esandakoek, alkoholak, drogek eta bestelakoek asteburu zoro bihurtuko dute. "Gidoia idazterakoan, hori zen premisa nagusia; hau da, zer gertatuko litzatekeen betiko lagun-kuadrilla batean elkarri sekula esan bakoak esaten hasiz gero. Ikusleak identifikatzen den istorioa da, halaxe esan ziguten aurreko asteko emanaldietan izan zirenek. Norbanakoari edo albokoari gertatutakoak bizi zituztela esan ziguten", dio Errastik, eta zera gaineratu du Gabilondok: "Komedia garrantza da, barruko gauzen inguruan hitz egiten da, tonua aldatuz. Negar malkoren bat edo beste ere ateratzen da. Nik bota ditut batzuk, baina, aldi berean, barre batzuk ere bai".

Aspaldiko lagunak dituzten sei emakume-aktore aukeratu zituzten istorioko kuadrilla osatzeko: Itziar Atienza, Aitziber Garmendia, Sara Cozar, Getari Etxegarai, Leire Ruiz eta Naiara Arnedo. "Izen batzuk oso garbi genituen; zorionez, Euskal Herrian adin horretako aktore asko daude, euskaraz eta gaztelaraz ondo moldatzen direnak".

Irailean, gaztelarazkoa

Donostiako Antzoki Zaharrean eskainiko dute, irailaren 7tik 9ra bitartean; azaroan Gasteizen izango dira bi bertsiorekin eta urtarrilean, Bilbon.

**KUADRILLA BATEN
ISTORIOA OINARRI
DUEN KOMEDIA
GARRANTZA DA
'ERLAUNTZA'**

ABUZTUAN ZABALIK

Abuztuko oporretan ere, gertuko informazioa eskainiko dizuegu:

Goiena telebista
Goiena.eus
Goiena Nahieran

goiena
Zu hemen zaude.

KUP taldea, Nazioarteko Abesbatzen Jaialdian

Debagoieneko zazpi kide dituen KUP taldea Taiwanera abiatuko da bihar, zapatua; Asiako abesbatzen topaketa garrantzitsuenean, munduko abesbatza onenen artean izango da bost kontzertu eskaintzeko eta bi musika tailerretan parte hartzeko

A. Aranburuzabala ARRASATE

Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Topaketan ezagutu zituzten KUP taldekoek Taipeiko Nazioarteko Abesbatzen Jaialdiko ardura-dunak, eta Taiwango topaketan parte hartzeko gogoia adierazi zien talde euskaldunak. Antolatzaileek eskaintza onartu zuten; hori horrela, aurten hamazortzigarren aldia izango duen Asiako abesbatzen jaialdi garrantzitsuenean, Esloveniako, Alemaniako, Letoniako eta Austriako goi mailako abesbatzekin batera izango da KUP taldea.

Arrasateko Rakel Murgiondok, Oñatiko Aitor Biainek, Gorka Aranburuk eta Amaia Igartuak eta Bergarako Karlos Etxanizek, Marije Ugaldek eta Aitor Gariñanok mailetak prest dituzte bihar, zapatua, Taiwanerako bidea hartzeko. Abuztuaren 7an itzuliko dira Euskal Herrira; bien bitartean, kontzertuak eskainiko dituzte, bi musika tailerretan parte hartuko dute eta, era berean, turismo apur bat egiteko ere aprobeztatuko dute.

Kontzertuak eta tailerrak

Bi kontzertu mota prestatu dituzte KUP taldekoek, luzea eta motza; luzean, askotariko konpositoreen obrak abestuko dituzte lehenengo zatian, eta bi-



KUP taldea, Bartzelonako Abesbatzen Munduko Sinposioan, iaz, uztailean. K. E.

garrena, berriz, euskal folklo-reaken erakusle izatea nahi dute.

Bidaiaren eraginak arintzeko asti handirik barik, astelehen arratsaldean eskainiko dute lehenengo emanaldia. "Haurrentzako kontzertua izango da, laburra, lau euskal kanta ezagun abestuko ditugu; iluntzean, Taipei-tik ordubetara dagoen Chungli City Performance Hall aretoan izango gara, eta han, bertako abesbatzaren saioaren ostean, erreperitorio luzea eskainiko dugu. Hurrengo egunean, martitzena, Taipei-tik ordubetara

dagoen Taoyuan County herrian izango gara; egunean, hiru orduko bidaia eginda, Tainan Unibertsitatean; eta azkena, Taipeiko areto handi batean, abuztuaren 4an", azaldu du KUP taldeko kide Karlos Etxanizek.

Jaialdiaren baitan, baina, bestelako ekitaldiak ere izango dira; adibidez, tailerrak. Eta horietako bitan izango direla dio Etxanizek: "Gabriel Baltes gure zuzendariak emango du tailer bat eta Javier Busto euskal konpositoreak bestea, eta abesbatza-koak ere han izango gara".

Kulturate Akustikoak musika zikloa: eserita eta lasai entzuteko

Iraileko lehenengo bi asteburuetan izango dira kontzertuak, Kulturateko areto nagusian, 20:00etan

A. A. ARRASATE

Sarritan eskaintzen ez diren musika estiloekin gozatzeko aukera ematea da Arrasateko Udaleko Kultura Sailak antolatzen duen Kulturate Akustikoak musika zikloaren helburua.

Hamargarrena da aurtengoa, eta, orain artekoetan moduan, askotariko estiloetako musikariak gonbidatu dituzte. Herrialde Katalanetako hiru emakumek osatzen duten Marala Trio hirukoteak zabalduko du egitaraua,

eta garai bateko Los Enemigos taldeko baxu-jole Fino Oyonartek gidatzen duen hirukoteak hartuko du lekukoa irailaren 8an. Olatz Salvadorrek, hiru lagun alboan dituela, borobilduko du lehen asteburua; *Zintzilik* lan berria aurkeztuko du.

Oñatiko Lenao taldeak *Iparraldeko argiak* bilduma berria aurkeztuko du Kulturaten irailaren 15ean, zapatua; bezperan, Madrilgo Salto taldea izango da eta irailaren 16an, Virginia Maestrosen pop amerikarra.

Goiena Klubaren txokoa

Hauek dira uztaileko irabazleak!

EBOOK READER

Jose Mari Iñarra Kortabarria (Arrasate)

HARREMAN DENDA KO OTARREA

Andoni Azkarate Larrañaga (Antzuola)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO SARRERAK

Xabier Urrutia Molina (Bergara)

Roberto Irizar Auzolai (Oñati)

Edurne Zeziaga Mondragon (Arrasate)

ETXE AUNDI JATETXERAKO

BI PERTSONEN DAKO OTORDUA

Jose Francisco Inza Leturia (Bergara)

GAZTAINUZKETA JATETXERAKO

BI PERTSONEN DAKO OTORDUA

Nekane Madinazkolia Txintxurreta (Oñati)

TABERNA BERRI JATETXERAKO

BI PERTSONEN DAKO OTORDUA

Angel Zabaleta Iturbe (Bergara)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikruzteko sarrerak. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina samera izango dituzue Arrikruzteko txarteldegian. Sarrerek 3 hilabeteko epe muga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Arazotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik igandera 10:00 - 17:00 (Auzotz deltu hitzordua egiteko). Harreman dendako otarrea **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Lehen saria jasotzeko,** zatuz GOIENAREN egoitzara **irailaren 3tik aurrera.** Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA, jakitera eman beharko da. GOIENA Otalora Lizentziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehonetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

Irabazi bi lagunendako otordua

UNZUETA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatebea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2018 (Uztailetik aurrera): 31€
Deitu: 943 25 05 05. kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabaziez, denok irabaziez!

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

OÑATIKO OSOKO BILKURA

'Osoko bilkura' Egubakoitza 22:30/ zapatua 12:30/ domeka: 21:00



GOIENA

BERGARAKO OSOKO BILKURA

'Osoko bilkura' Zapatua 21:00/ domeka 11:00

EGUBAKOITZA, 27

10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Onein
11:30 Hemen Debagoiena
12:30 Sasoi onean: Zaintza
13:00 Kantari 7
13:30 Hemen Debagoiena
14:30 Albisteak
14:45 Hurretik: Imanol Albizu
15:15 Hemen Debagoiena
16:15 Albisteak
16:30 Onein
17:00 Albisteak
17:30 Amaia DJ
18:00 Albisteak
18:30 Elikatu 5
19:00 Kantari 6
19:30 48 ordu
20:00 Albisteak
20:30 Hurretik: Imanol Albizu
21:00 Sasoi onean: Zaintza
21:30 Amaia DJ
22:00 Albisteak
22:30 Osoko bilkura: Oñati
23:30 Galdegazte: Txus Jaio

ZAPATUA, 28

09:00 1 2 3 Hemen da Miru
09:30 Kantari 9
10:00 Kantari 8
10:30 1 2 3 Hemen da Miru
11:00 Hemen Debagoiena
12:00 Galdegazte: Txus Jaio
12:30 Osoko bilkura: Oñati
13:30 48 ordu
14:00 Hurretik: Imanol Albizu
14:30 Elikatu 5
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 48 ordu
16:30 Kantari 9
17:00 Kantari 8
17:30 Amaia DJ
18:00 48 ordu
18:30 Hilabetekaria: uztaila
19:30 Hemen Debagoiena
20:30 Amaia DJ
21:00 Osoko bilkura: Bergara
22:00 Hurretik: Imanol Albizu
22:30 Hemen Debagoiena
23:30 Sasoi onean: Zaintza

DOMEKA, 29

09:00 1 2 3 Hemen da Miru
09:30 Kantari 8
10:00 Kantari 9
10:30 1 2 3 Hemen da Miru
11:00 Osoko bilkura: Bergara
12:00 Hilabetekaria: uztaila
13:00 Hemen Debagoiena
14:00 Hurretik: Imanol Albizu
14:30 48 ordu
15:00 Sasoi onean: Zaintza
15:30 Elikatu 5
16:00 Galdegazte: Txus Jaio
16:30 Amaia DJ
17:00 Hemen Debagoiena
18:00 Hilabetekaria: uztaila
18:30 Hurretik: Imanol Albizu
19:00 Amaia DJ
19:30 Kantari 8
20:00 Kantari 9
20:30 Galdegazte: Txus Jaio
21:00 Osoko bilkura: Oñati
22:00 Hilabetekaria: uztaila
23:00 48 ordu

EGUNERO

EGUNEKO ALBISTEAK

'Gaurkoak'

14:30, 16:15, 17:00, 18:00, 20:00, 22:00

ASTELEHENA ETA MARTITZENA

UZTAILEKO ALBISTE NAGUSIEN ERREPASOA

'Hilabetekaria'

12:00, 18:00, 22:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUENA, 2



GOIENA

GAZTEAK, OIHANA AZKORBEBEITIAREKIN

'Galdegazte'

21:30, 23:30

EGUBAKOITZA, 3

ELIKADURARI BURUZKO AHOLKUAK

'Elikatu'

21:00, 22:30

URTEURRENA



Patxi Arechaga Ecenarro



2017ko abuztuaren 16an hil zen, 84 urte zituela.

Urteurreneko meza abuztuaren 12an izango da, igandea, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Beti izango zara gure oroimen eta bihotzetan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2018ko uztailaren 27an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05 edo eskelak@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

HILDAKOAK

Maite Beitia Alkorta. Arrasaten, uztailaren 18an. 71 urte.
Mari Carmen Celayeta Arano. Bergaran, 18an. 77 urte.
Ana Maria Barcena Ezpeleta. Bergaran, 18an. 86 urte.
Josefina Etxarri Suberbiola. Bergaran, 18an. 98 urte.
Javier Salaberri Telleria. Arrasaten, 19an. 85 urte.
Jesus Agirreurreta Erguin. Arrasaten, 19an. 86 urte.
Juan Tomas Zabalo Azkarate. Antzuolan, 19an. 67 urte.
Araceli Alarcia Eguiluz. Bergaran, 19an. 84 urte.
Txaro Arrieta Uriarte. Bergaran, uztailaren 19an. 66 urte.
Fernando Martinez de Zuazo Unzurrunzaga. Oñatin, 19an. 69 urte.
Arantxa Goitia Goitia. Oñatin, uztailaren 20an. 71 urte.
Eustakio Barandiaran Elorza. Eskoriatzan, 21ean. 85 urte.
Javier Arana Bergaretxe. Arrasaten, 22an. 83 urte.
Jose Julian Urzelai Arregi. Bergaran, 23an. 81 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ
Egubakoitza, 27 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Zapatua, 28 M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Domeka, 29 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Astelehena, 30 SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 7
Martitzena, 31 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguaztana, 1 M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Eguena, 2 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39

BERGARA EGUNEZ
Egubakoitza, 27 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Zapatua, 28 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Domeka, 29 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Astelehena, 30 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Martitzena, 31 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztana, 1 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguena, 2 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK
Egubakoitza, 27 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 28 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 29 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 30 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 31 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztana, 1 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 2 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2018ko abenduaren 31ra arte:
IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39

BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2018 osoan:
MOZOS: Iparragirre 2
943 76 12 15

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoako aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

URTEURRENA

Joseba Arregi Liziaga



2017ko uztailaren 27an hil zen, 89 urte zituela.

Urteurreneko meza uztailaren 29an, domeka, izango da, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Inoiz ahaztuko ez zaitugulako, segi bakean luzarorako.

Emazte, seme eta bilobak.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2018ko uztailaren 27an.

MEZA



Anai Jose Larrañaga Lizarralde

(Arantzazuko fraidea)
Aitza baserrikoa




2018ko uztailaren 11n hil zen, Arantzazun, 98 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza uztailaren 31n, martitzena, izango da, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, anai-arreben eta iloben izenean. Antzuolan, 2018ko uztailaren 27an.

ESKER ONA

Juan Zeziaga Arietaleanizbeaskoa



2018ko uztailaren 13an hil zen, Donostian, 73 urte zituela.

Eskerrik asko egun luze hauek besarkadaz, keinuz eta maitasun hitzez laburtzeagatik. Halako horrenbeste zuei familiaren izenean.

Arrasaten, 2018ko uztailaren 27an.

ESKER ONA



Ana Maria Barcena Ezpeleta

Florencio Yarzaren alarguna



2018ko uztailaren 18an hil zen, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2018ko uztailaren 27an.

OROIGARRIA

**Txaro
Arrieta Uriarte**

2018ko uztailaren 19an zendu zen, Bergaran, 66 urte zituela.

*Beti gure bihotzean.*Rodriguez anai-arrebak eta ilobak.
Bergaran, 2018ko uztailaren 27an.

OROIGARRIA

**Eustakio
Barandiaran Elorza**Edorta Barandiaran gure lagun eta zinegotziaren aita
2018ko uztailaren 21ean hil zen, 85 urte zituela.*Maria Jesus, Edorta, Mikel eta Iñakiri gure doluminak
eta besarkada estu bezain beroa.*Eskoriatzako EH Bildu.
Eskoriatzan, 2018ko uztailaren 27an.

OROIGARRIA

**Iñaki
Ubierna Inmaz**

2003ko uztailaren 29an hil zen, 44 urte zituela.

*Gogo barnekoa izan da gure maitasuna
heriotzak askatuko ez duen lotura
zu baitzinen nire bizitza, nere argia eta poza
zurekin elkartu arte, maitia, behar dut zure laguntza.*Zure Marilu.
Oñatin, 2018ko uztailaren 27an.

OROIGARRIA

**Fernando
Martinez de Zuazo
Unzurrunzaga**

2018ko uztailaren 19an hil zen.

*Besarkada bat familiari, une latz hauetan.*San Lorentzo 61eko bizilagunak.
Oñatin, 2018ko uztailaren 27an.

OROIGARRIA

**Juan Tomas
Zabalo Azkarate**

Uztailaren 19an hil zen, Antzuolan.

*Gure aldetik alde dau
haize leunaren gisa
gu galdezka lagata:
norako hainbeste prisa?**Ez bilatu arrazoia,
hementxe dago giltza:
kanturako deitu ei dotse
ta emonda zeukan hitza.**Musu bat, Juanto.*Narbaiza sendia: Arantzazu eta Pablo (†), Rosa eta Gotzon, Blanca,
Inazio eta Leonor, Paulo eta Lola, Dorleta eta Ioseba, Julio.

Bergaran, 2018ko uztailaren 27an.

OROIGARRIA

**Juan Tomas
Zabalo Azkarate**

Uztailaren 19an hil zen 67 urte zituela, Antzuolan.

*Nahiz hain goxo joan zaren
Bakearen lurraldera
Nik deitzen dotsutenian
Irten zaitte bidera.
Nere onduan nahi zaitut,
Gaur nago sentibera,
Hartu tonua, Juanto,
Kantaidazu "Erribera".*Mariasun, Itziar, Itsaso, Kike eta Jota.
Antzuolan, 2018ko uztailaren 27an.

ESKER ONA

**Fernando
Martinez de Zuazo
Unzurrunzaga**

2018ko uztailaren 19an hil zen, 69 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak
bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.*Ibaiko bainu ta ibilaldi
solasaldi batez osa
gauza askoren beharrik gabe
bazenuen nola goza**Orain ura itsasoratu da
ez zen garai aproposa
korronteak ez du eramango
inoiz zure bizipoza.*Zure familia.
Oñatin, 2018ko uztailaren 27an.

ESKER ONA

**Juan Tomas
Zabalo Azkarate**

Uztailaren 19an hil zen, Antzuolan.

Bihotzeko saminez eta tristuraz, Juan Tomasen sendiak eskerrak
emon nahi dotsuegu, horrenbeste eratan zuen laguntza,
alkartasuna eta maitasuna erakutsi doskuzuen guztioi.

Antzuolan, 2018ko uztailaren 27an.

OROIGARRIA

**Juan Tomas
Zabalo Azkarate**

Uztailaren 19an hil zen, Antzuolan.

*Bizitza-pentagraman
melodi tristea
isiltasunez betez
ta amaitu gabea.**Zure kantak gogoan,
Juanto adiskidea,
lortuko dugu berriz
poza berpiztea.**Eskerrik asko, Juanto, zure topa eta kantuengatik.*Antzuolako lagunak.
Antzuolan, 2018ko uztailaren 27an.

ESKER ONA

**Javier
Salaberri Telleria**

Libe Iñarraren alarguna

2018ko uztailaren 19an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, familiaren izenean,
egun hauetan, horrenbeste eratan
maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Arrasaten, 2018ko uztailaren 27an.

ESKER ONA

**Mari Carmen
Celayeta Arano**

2018ko uztailaren 18an hil zen, 77 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2018ko uztailaren 27an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Jakin ezazue
nahiz eta heriotz
asegurua
izan, zuek
nahi duzuen
hileta-zerbitzua
aukeratzeko
eskubide osoa
duzuela.**Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza
dut beti zuentzako.*


Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA



BERGARA
Danel Goikoetxea Blanco
Abuztuaren 4an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure egunean eta primeran ospatu! Patxo handia, familia osoaren partetik.



BERGARA
Maialen Garcia Urbietia
Abuztuaren 2an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa. Orain arte bezain alaia izaten jarraitu eta ondo ospatu zure urtebetetzea.



BERGARA
Iñaki Osa, Naia Osa eta Inaxi Larranaga
Zorionak Iñaki, Naia eta birramama Inaxi! Aititak 64, neskatilak 3 eta birramamak 91 urte beteko dituzue. Lau sendi ezberdinak, egun berean jaio zineten. Patxo handi bana, etxekoen partetik!



ARRASATE
Marene Galan Uriarte
Uztailaren 29an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Bost urte betetzen dituzu jada, maitia! Asko maite zaitugu! Anerren, aitaoren, amaxoren eta familia osoaren partetik.



OÑATI
Noa Mugarza Urizar
Uztailaren 28an, 7 urte. Hau da argazki polita! Gure kirikixo txikinak zazpi urte bete dittu. Zorionak eta urte askotarako, etxeko danon partetik! Izugarri gura du, infinitura arte.



OÑATI
Nora Kortabarria Sainz
Uztailaren 28an, 3 urte. Zorionak, Nora! Egun ederra izan, gure printzesa. Laztan handi bat.




BERGARA
Naroa Gullon Iñarra
Uztailaren 28an, 9 urte. Zorionak, Naroa! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat, etxekoen partetik.



ARETXABALETA
Lide Urteaga Larrea
Uztailaren 27an, urtebete. Zorionak, Lide! Patxo handi-handi bat!



OÑATI
Peio Axpe Elkoroiribe
Uztailaren 27an, 11 urte. Zorionak eta urte askotarako, mutikote! Ondo pasatu eguna!



OÑATI
Unax Arana Urtzelai
Uztailaren 26an, 6 urte. Zorionak, Unax! Ondo pasatu zure eguna. Patxo bat familiaren eta, bereziki, Beñaten partetik.




ARRASATE
Saioa Coronado Cabrejas
Uztailaren 26an, 14 urte. Zorionak, Saioa. Ondo pasatu! Lararen, Jonen eta Nahiaren partetik. Muxuak.




OÑATI
Aimar Orueta Gonzalez
Uztailaren 26an, urtebete. Zorionak, Aimarxo, zure lehenengo urtebetetze egunean. Gurasoen eta familiaren partetik, muxu handi bat.



ARRASATE
Iker Avila Legorburu
Uztailaren 25ean, 8 urte. Zorionak, Ikertxo! Jarraitu zortzi urte hauetako alaitasunarekin. Muxu pila, zure familiaren eta, bereziki, Anerren partetik.



ANTZUOLA
Unai eta Iñaki Narbaiza
Uztailaren 25an, Unai 6 urte eta Iñakik 42. Zorionak, Unai eta aitaxo! Muxu handi bat familia osoaren, eta bereziki, amaxoren eta Ingeren partetik!



ARRASATE / ESKORIATZA
Soraya Barbero eta Maria Gallego
Sorayak uztailaren 25ean eta Mariak 30ean. Zorionak eta urte askotarako, bikote. Muxu eta besarkada handi bat, familiaren partetik.



ESKORIATZA
Ixaso Lopez Feijoo
Uztailaren 22an, 12 urte. Zorionak familiaren partetik. Egun ona pasa dezazula.



OÑATI
Iban Guridi Diaz
Uztailaren 21ean. Hamar urte bete behar dituzun honetan, lan eta lan, saiatu eta saiatu, nahi dituzun gauzak nahi dituzun bezala atera daitezen... harro gaude!



BERGARA
Nagore Aranda Valor
Uztailaren 21ean, 6 urte. Zorionak, Nagore! Ondo pasatu eguna, aitaren, amaren eta Leiren partetik. Asko maite zaitugu, bihotza! Muxu asko!



OÑATI
Iker Serrano Lopez
Uztailaren 19an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure egunean! Muxu handi-handi bat, etxekoen partetik.


TXUTXU-MUTXUAK




1



2



3



4



5

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa
Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak
Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. Bihar ezkontuko dira, Oñatin
Ione Zubizarretak eta David Alzelaik Gure Ametsa jatetxean ospatuko dute. "Kuadrillakoen partetik, bikain pasatu egun zoragarri hau eta asko disfrutatu Eivissa aldean, Uxurekin".

2. Bihar ezkontuko dira
Jose Rodriguez eta Arantzazu Kortabarria oñatiarrak bihar ezkontuko dira, Arantzazuko basilikan. "Zorionak eta urte askotarako, bikote! Izan zoriontsu!".

3. 50 urte ezkontu zirela
Antzuolako Pablo Hernandok eta Marina Rodriguezek abuztuaren 8an beteko dituzte urrezko ezteiak. "Zorionak, Pablo eta Marina! Oso ondo pasatu eguna! Familia osoaren partetik".

4. Bihar ezkontuko dira, Ibarren
Melodi Zabala eta Xabier Sarrao bihar ezkontuko dira. "Zorionak, bikote! Egun ederra izan! Disfrutatu eta zoriontsu izan! Familiakoen eta kuadrillakoen partetik".

5. Urrezko ezteiak ospatzeko gertu
Juan Sanchezek eta Maria Concepcion Cruzek 50 urte bete dituzte ezkontuta, eta Arrasaten ospatuko dute. "Zorionak, familia osoaren partetik! Merezi duzuen moduan ospatuko dugu eguna!".

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



GOIENA

OÑATI Espeleotxiki abentura

Pasarelatik kanpoko abentura, familia osoarendako. Ohiko bidetik irten, eta Arrikutzen barrunbeetan sartuko dira espeleologo gaztetxoak, euren gurasoen laguntzarekin. Aurrez eman behar da izena: 943-08 20 00. *Bihar, zapatua, Arrikutzen, 15:30ean.*



WOOD STRINGS

ARRASATE Wood String taldea
Arrasateko eta Aretxabaletako bost gaztek sortutako taldea. Pop eta country doinuak nahastuko dituzte, biolontxeloarekin, baxuarekin, bateriarekin eta gitarra akustikoarekin.
Gaur, egubakoitza, Euskal Herria plazan, 20:00etan.

EGUBAKOITZA 27

ARAMAIO Iruñera irteera Alaia elkartearekin

09:00etan, irteera; 11:30ean, bisita gidatua alde zaharrean; 14:30ean, bazkaria San Ignacio jatetxean; eta 18:30ean, itzulera. Autobus geltokian, 09:00etan.

OÑATI Udaleku irekiak eta arte udalekuak: azken eguna

Ospakizun eguna izango dute neska-mutikoei, begiraleen laguntzarekin.

Merkatu plazan, 10:00etan.

ARAMAIO San Esteban jaiak Uribarri auzoan

16:00etan, auzolana; 19:30ean, txupina eta kanpai-jotzea; eta 21:30ean, kantu eta bertso afaria. *Uribarri auzoan.*

ARETXABALETA Pintura ikastarokoan erakusketa: azken eguna

Gaur da Ainhoa Caberoren ikasleen bilduma ikusteko azken eguna. *Arkupen, 17:00etan.*

BERGARA Santa Ana jaiak, Boluan, Arruriagan eta Burdinaten

19:00etan, Bolura goera Sambamaña batukadarekin; 20:00etan, txupina; 21:00etan, sardina-jana; 21:30ean, Azkaiter Pelox taldearen emanaldia; eta 23:00etan, Latino musika taldea. *Boluan.*

BERGARA Velma Powell & Bluedays taldea

John Lee Hooker mitikoaren bilobak blues eta soul doinuetan maisua dela erakutsiko du. *Espoloián, 22:00etan.*

ESKORIATZA Iزارo Andres

Mallabiko bakarlariaren emanaldia, Errekan Gora jaialdiaren barruan. *Zaldibar antzokian, 22:30ean.*

ZAPATUA 28

BERGARA Santa Ana jaiak, Boluan, Arruriagan eta Burdinaten

10:00etan, suziriekin diana eta marrazki lehiaketa; 11:30ean, VI. patata-tortilla lehiaketa; 12:00etan, umeendako jolasak eta tailerrak; 13:00etan, sari banaketak; 14:30ean, bazkaria; 17:30ean, umeendako ikuskizuna; eta 19:00etan, DJ Pinoren emanaldia. *Boluan.*

OÑATI Lezesarriko jaiak

11:50ean, etxafuegoak; 12:00etan, herri kirolen jaialdia; 13:00etan, bertsolarien saioa eta luntxa; 14:30ean, auzo-bazkaria; 17:00etan, Potx magoaren saioa; eta 18:30ean, trikitalarien saioa. *Urrintxo jatetxearen ondoko zelaian.*

ARAMAIO San Esteban jaiak Uribarri auzoan

12:00etan, meza; ostean, trikitalariak; 13:30ean, bolo

txapelketa; 17:30ean, briska eta mus txapelketak; 18:00etan, jolasak; eta 20:00etan, Maria eta Manex bikotearen emanaldia eta ostean, afaria. *Uribarrin.*

OÑATI Bisita gidatuak

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera bikoitza: 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez eman behar da izena, 943-78 34 53 telefonoan. *Turismo Bulegoan.*

OÑATI Duru Eguna

17:00etan, mendiko bizikleta lasterketa; 18:00etan, futbol partidua; eta ostean, txokolate-jana. *Durun.*

OÑATI 'Sentitu ezazu ilunabarra, Aloñatik' irteera

Aurrez eman behar da izena: 943-78 28 94 edo *arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net*. *Parketxean, 18:00etan.*

BERGARA 'Bergarako kirolaren historia' erakusketa: azken eguna

Gaur da bilduma ikusteko azken eguna. Argazkien bidez egin dute errepasoa. *Agorrosinen.*

DOMEKA 29

OÑATI Duru Eguna

11:00etan, meza Aierdiko aterpetxean; ostean, salda beroa

eta pintxoak; 12:00etan, Duruko ardi-gazta dastatzea; 13:00etan, aterpetako kalejira; eta 15:00etan, bazkaria eta bertsolariak. *Durun.*

BERGARA Basalgo auzoko jaiak

11:00etan, meza; 12:00etan, ziklismo igoera; 12:30ean, luntxa; 13:00etan, Peñagarikanorekin eta Colinarekin bertso saioa; eta 14:30ean, bazkaria. *Basalgon.*

ARAMAIO San Esteban jaiak Uribarri auzoan

12:00etan, hildakoan aldeko meza; 13:00etan, mus eta briska txapelketako finalak eta sari banaketak; eta 14:30ean, amaiera. *Uribarrin.*

BERGARA Santa Ana jaiak, Boluan, Arruriagan eta Burdinaten

12:00etan, meza; 12:30ean, puzgarriak eta apar-festa; 13:30ean, txorizo-pintxo dastatzea eta txikiteoa; 16:00etan, mus txapelketa; 17:00etan, Bolu Txiki Master Chef lehiaketa; 18:30ean, txokolate-jana; eta 19:00etan, Jorge Canovasen kontzertua. *Boluan.*

OÑATI Bisita gidatuak

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera bikoitza: 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez eman behar da izena, 943-78 34 53 telefonoan. *Turismo Bulegoan.*

ESKORIATZA Ganuzako paper margotuak ezagutzeko aukera
XIX. mende hasierako paperak ezagutzeko aukera. Halako paper panoramikoak egiteko teknikak eta prozesua ezagutzeko aukera. *Ibarraundin, 18:00etan.*

ASTELEHENA 30

OÑATI Bisita gidatuak

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera bikoitza: 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez eman behar da izena, 943-78 34 53 telefonoan. *Turismo Bulegoan.*

ESKORIATZA Su artifizialak San Inazio bezperan

Gernika plazatik botako dituzte, eta kolore eta forma askotariko ikuskizunak hamalau minutuko iraupena izango du. *Gernika plazan, 22:45ean.*

MARTITZENA 31

OÑATI Arantzazura autobus zerbitzu berezia

San Inazio egunaren harira, autobus gehiago ibiliko da joan-etorrian. *Autobus geltokian, 07:30etik 19:00etara arte.*

OÑATI San Inazio eguna Urbain

11:30ean, meza ermitan; 12:30ean, bertsolarien emanaldia; 13:00etan, aizkolarien saioa; eta bazkariaren aurretik eta ostean, Miren, Agur eta



IMANOL SORIANO

BERGARA Buztinzale elkartekoen erakusketa

Taldearen 40. urteurrena ospatzeko, bilduma ipini dute herritarren eskura. Lan tradizionalak eta modernoak daude ikusgai, ontziak, platerak, eskulturak eta bestelako pieza bitxiak, besteak beste, hilaren 29ra arte. *Aste bukaeran, Aroztegi aretoan.*

Oier hirukotearen erromeria. Urbiako pisten egoera kontuan hartuta, antolatzaileek ibilgailuetan igotzea eskatzen dute. *Urbian.*

OÑATI Bisita gidatuak

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera bikoitza: 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez eman behar da izena, 943-78 34 53 telefonoan. *Turismo Bulegoan.*

EGUENA 2

OÑATI Bisita gidatuak

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera bikoitza: 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez eman behar da izena, 943-78 34 53 telefonoan. *Turismo Bulegoan.*

BERGARA 'Babo Royal' kale antzerkia

Ganso Y Compañía taldearen ikuskizuna. Hierarkiak trukatzeko dituen izen bereko jolasean oinarritutako antzezlan da. Normaltasuna eta zentzutasuna debekatzen duen jolasa. *Santa Ana parkean, 20:00etan.*

EGUBAKOITZA 3

OÑATI Bisita gidatuak

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera bikoitza: 13:00etan eta 17:00etan.

Aurrez eman behar da izena, 943-78 34 53 telefonoan. *Turismo Bulegoan.*

OÑATI San Lorentzoko jaiak

16:00etan, etxafuego jaurtiketa; 16:30ean, Aratz Ugarteren omenezko mendiko bizikleta irteera eta pilota txapelketako kanporaketak; 17:30ean, txorimaloak; 18:30ean, triki-poteoa; eta 23:00etan, Skabidean taldea eta ondoren, Gaitzerdi. *San Lorentzon.*

BERGARA 'Bergarako kirolaren historia' erakusketa

Agorrosinen egon ostean, gaurtik aurrera Aroztegin ikus ahal izango da, abuztuaren 26ra arte. *Aroztegin.*

ZAPATUA 4

OÑATI Bisita gidatuak

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera bikoitza: 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez eman behar da izena, 943-78 34 53 telefonoan. *Turismo Bulegoan.*

OÑATI San Lorentzoko jaiak

16:00etan, mus txapelketa; 18:00etan, Potx eta Lotx marrazki lehiaketa eta pilota txapelketako finalerdiak eta finala; 19:00etan, triki-pintxo-poteoa; eta 22:30ean, Salda Dago, Nafarroa 1512 eta The Guilty Brigade taldeek kontzertua. *San Lorentzon.*

DOMEKA 5

OÑATI Lezesarriko jaiak

12:00etan, meza San Esteban ermitan, auzoan hildakoen omenez; eta ostean, luntxa. *Lezesarrin.*

OÑATI Bisita gidatuak

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera bikoitza: 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez eman behar da izena, 943-78 34 53 telefonoan. *Turismo Bulegoan.*

OÑATI San Lorentzoko jaiak

Jaiak bukatzeko, 22:00etan, Haritz Olaetaren eta Aitor Regueiroren kontzertua. *San Lorentzon.*

ASTELEHENA 6

OÑATI Bisita gidatuak

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera bikoitza: 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez eman behar da izena, 943-78 34 53 telefonoan. *Turismo Bulegoan.*

MARTITZENA 7

BERGARA 'Ballerina' pelikula

Euskarazko bertsioa emango dute, publiko guztiarendako. Euria egiten badu, seminarioko karpan. *San Martin plazan, 22:00etan.*

ZINEMA

GASTEIZ

GORBEIA

Ant-Man y la avispa

Egunero: 17:00.

Domeka: 12:15, 17:00.

El rascacielos

Egunero: 19:45, 22:30.

Campeones

Egunero: 17:00, 19:45.

Domeka: 12:15, 17:00, 19:45.

Hereditary

Egunero: 22:30.

Mision imposible

Egunero: 16:45, 17:30, 19:35, 20:30, 22:20.

Jurassic world

Egunero: 17:20, 22:30.

Domeka: 11:45, 17:20, 22:30.

Ocean's 8

Egunero: 20:00.

Luis y los alienigenas

Egunero: 16:45.

Domeka: 11:45, 16:45.

La primera purga

Egunero: 18:35, 20:35, 22:30.

Hotel Transilvania

Egunero: 16:40, 18:35, 20:30.

Siberia

Egunero: 22:25.

Mamma mia

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Barcos

Egunero: 16:45.

Domeka: 12:00, 16:45.

El mejor verano de mi vida

Egunero: 18:35, 20:35, 22:30.

Vacaciones con mama

Egunero: 16:45, 18:40, 20:35, 22:30.

BOULEVARD

Mision imposible

Egunero: 13:15, 17:30, 19:00, 20:30, 22:00, 23:30.

Mision imposible 3D

Egunero: 12:15, 16:00.

Un mar de enredos

Egunero: 13:10, 15:45, 17:55, 20:10, 22:35.

Hotel Transilvania

Egunero: 12:00, 12:30, 13:00, 14:15, 15:50, 16:00, 16:45, 18:00, 18:30, 19:00, 21:00, 21:30.

Mamma mia! una y otra vez

Egunero, martitzena izan ezik: 12:20, 15:45, 18:05, 20:25, 22:45.

Martitzena: 15:45, 18:05, 22:45.

El rascacielos

Egunero, martitzena izan ezik: 20:00,

22:15, 00:25. Martitzena: 22:15.

La primera purga

Egunero: 23:40.

Martitzena: 16:10, 18:15, 20:20.

Ant-Man y la avispa

Egunero, martitzena izan ezik: 12:45, 17:15.

El mejor verano de mi vida

Egunero: 12:35, 14:35, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:30.

Jurassic world

Egunero: 13:30, 16:05, 18:40, 21:25, 00:00.

Hereditary

Egunero: 00:00.

Ocean's 8

Egunero: 19:45, 22:10, 00:30.

KRITIKA

Happy End ★★★★★

Zuz.: Michael Haneke. **Herr.:** Frantzia (2017). **Aktoreak:** Isabelle Huppert, Jean-Louis Tringnant, Mathieu Kassovitz.

Familia arazoak

ANTONIO ZABALA

Hanekek belaunaldi desberdinetako aktore ospetsu frantziarrak (Tringnant, Huppert eta Kassovitz) zuzentzen ditu dirudun familia baten kideei bizia emateko. Burgesiako familia bat da, eta, gertaera batzuk tarteko, familiak Calaisen duen etxe handi eta eder baten bizitzeko elkartzeko dira. Aita, seme-alabak eta bilobak elkartzeko dira etxean. Pertsonaia askotxo dira eta bakoitzak bere istorio dauka. Hori bai, istorio paraleloak dira; kasu askotan, ez dira elkartzeko. Pertsonaien bakardadea nabarmena da. Pertsonaiek euren arazoak eta kezak dituzte, baina ez dute lortzen elkarrekin konektatzea. Nahiz etxe berean bizi, isolaturik bizi dira. Zailtasun handiak dituzte ondokoarekin

komunikatzeko. Hortaz, familiakoarekin lortzen ez dutena kanpokoekin lortzea askoz zailagoa da. Hanekek kapitalismoari buruz hitz egiten du, etorkinen egoerari buruz, eta komunikatzeko modu berrien alde, exhibizionismoari buruz.

Happy End pelikulan pertsonaia eta gai asko daude. Hori dela eta, ez da erraza dena behar den moduan jorratzea. Isabel Hupperren semearen istorioa eta etorkinekin dituen harremanak, esate baterako, oso azaletik azaltzen dira.

Dena den, zuzendari austriarrak mantendu egiten du beti erakutsi izan duen begirada hotza eta zorrotza gure gizartearen zikoizkeria azaltzerakoan.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Ilusioa

Herri bateko ekitaldien agenda herri horretako bizitzaren adierazlea da. Bi aste dela argitaratutako GOIENAn, uztailearen 13tik 19rako agendan, 61 ekitaldiren berri eman zen. Arrasatekoak bost soilik ziren; horietako lau hitzordu, astebururako. Hala eta guztiz ere, aste bukaera hartan gehiago egon zen. Ondoko jarduerak, behintzat: Zaldibarko hogeita lau orduko futbito txapelketa, erdialdean taberna batek antolatutako jazz kontzertua, Santa Marinako jaiak eta Kanpanzar Eguna. Komunikazio akatsak egon daitezke informazioa bidaltzen duenaren eta jasotzen duenaren artean. Baina iruditzen zait gakoak beste nonbait egon daitezkeela, Arrasateko biztanle kopuruaren eta iragarritako ekitaldi kopuruaren arteko desoreka behin baino gehiagotan suertatzen baita: horrelakoekin lotutako ez ilusio falta mondragoetarrok?

Aldizkari bereko *Zorion agurrak* tartea beste adibide bat da. Aste hartan, hogeita bi pertsonak bidali zuten beren laguna edo senitartekoa zoriontzeko mezua; bakarra zetorren Arrasatek. Hau ere, estatistikei erreparatuz, ezinezkoa da.

Ondo ibili abuztuan, indarberritzeko sasoi paregabe.

BUKATZEKO

Euskal Herrian sortutako txanponak, liburuan

Txanponen bilduma egiteari ekin zion, 25 urterekin, Aramaion bizi den Pablo Maria Beitiak. Orain, 73 urterekin, urte hauetan guztietan egindako lana liburuan batu du. 'Moneda de Euskal Herria' izena eman dio miresmenez begiratzen dion horri

Miren Arregi ARRASATE

Txanpon bilduma-sorta ederra du etxean Marinen jaio eta Aramaion bizi den Pablo Maria Beitiak. Antzinarokoak, Greziako zibilizaziokoak, erromatarak, Erdi Arokoak... Ehunka eta ehunka bildu ditu 25 urterekin bilduma osatzeari ekin zionetik hona. Ikasketak bukatuta, Alacantera egindako bidaia batean piztu zitzaion txanponekiko miresmena. Luis XIV.aren garaiko txanpon bat ikusi zuen han, eta txunditurik gelditu zen. Txanpon haien bitartez, historiako pasarte garrantzitsuak ezagutzeko aukera ikusi zuen bere aurrean. Orduetik hona, bere zaletasun handiena bilakatu da. "Azoketan erosten ditut, enkanteetan eta, askotan, bildumagile partikularrei", dio Beitiak. Izan ere, ez dira asko txanpon-bildumak egiten dituztenak. "Nafarroan badaude gutxi batzuk, baina hemen inguruotan ni neu naiz bakarra".

Mundu osoko txanponak bildu ditu urteen joanarekin. Mundu osokoak eta garai askotarikoak. Baina beti izan du Euskal Herrian eginiko txanponekiko sentsibilitate berezia, eta, hain zuzen, txundidura horrek bultzatuta argitaratu berri du *Moneda de*



Pablo Maria Beitia, liburua eta txanpon-bildumako zati bat erakusten ANDONI BODES

Euskal Herria izeneko liburu mardula. Miguel Ibañez Artigaren, Luis Ignacio Azconaren, Esteban Indurainen, Angel Gastonen eta Jean Francois Soulen kolaborazioak ditu horrek.

Kristo aurrekoak

Duela bi urte inguru Pirinioetan agertutako txanponak dira liburuari hasiera ematen diotenak.



Eragin greziarrek euskal txanpona. A.B

Kristo aurreko 350. urte ingurukoak dira horiek. Oso txanpon primitiboak, zilarrezkoak. Zirkuluak irekidura bat du zizelarekin eginda. "Euskal Herrian egindako txanpona dela badakigu, eta eragin grekoa du".

Hortik abiatuta, XX. mendera arte Euskal Herrian egindako txanponak jasotzen ditu liburua. Esaterako, garrantzi berezia ematen die Kristo aurreko II. mendean inguruan Turiasu hirian egindakoei. Turiasu zeltiberiar hiri bat izan zen, gaur egungo Zaragozako Tarazona inguruan kokatzen zena. Adituek diote izen hori euskarazko *iturri* izenetik datorrela. Turiasuk txanpon propioa izan zuen, eta, hain zuzen ere, Turiasu izeneko txanpon fabrika egindako monetari, kutsu euskalduneko ia zateaz gain, euskara azaltzen delako ematen dio Beitiak garrantzi berezia. "Errepublikan erromatarren garaiko txanpona da. Errepublikak errespetatu egin zituen euskal hizkuntza eta eragina", dio Beitiak. "Gero, Erromatar Inperio garaian, Augustok dena desagerrarazi zuen".

Oñatiko fabrika egindakoak

Debagoieneko txanpon fabrika batean egindakoak ere jaso ditu liburuan. "Hirugarren Karlistaldian, Carlos VII.ak Oñatin zuen txanpon fabrika. Txanpon asko egin ziren bertan, baina gehienak galdu egin ziren. Gaur egun, oso gutxi daude eta oso zaila da horiek lortzea, oso garestiak baitira. Zilarrezko eta brontzezko txanponak dira", dio Pablo Maria Beitiak. Liburua Elkar liburu dendan egongo da eskuragarri, baita Aramaio okindegian ere, 30 euroren truke.

ttop

Irakurri, ukitu, ikusi, entzun.

Ttap euskarazko aldizkari digitala eta multimedia jaio da.

Astero jasoko duzu zure mugikorrean edo tabletan.

Abuztuaren 31ra bitartean deskargatzen duzuenon artean SPC etxeko Heaven 10.1 tableta bat zozketatuko dugu.

DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

Informazio gehiago
ttap.eus

Deskargatu eta saria lortu.



Instalatu orain!